



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko abenduaren 22a

146. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzen duena. Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).
- Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak onetsitako irizpena (20. or.).
- Foru Legea, ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituena. Akats zuzenketa (54. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Legea, enpresen sustraitzearen aldeko eta enpresen deslokalizazioaren aurkako neurriei buruzkoa. Akats zuzenketa (55. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, “Foru zubia” deitutakoan elurra dela-eta izan diren arazoei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (57. or.).
- Galdera, SET948 proiektuari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (57. or.).
- Galdera, 2020ko abenduaren 5eko elurtearen ondorioei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (58. or.).
- Galdera, industrialdeetako hondakin-bilketari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (59. or.).
- Galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluan irregulartasunak edo ilegaltasunak gertatzeari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (59. or.).
- Galdera, Bulego Judizialak Iruñeko espetxean duen ordezkariari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (60. or.).
- Galdera, sozietateen gaineko zergan zerga-oinarri negatiboen aplikazioa galtzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (61. or.).

**G SAILA:**

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Nafarroako Parlamentuan jardura presentzialera itzultzeari buruzko Kontingentzia Plana aldatzea, Mahaiaren 2020ko abenduaren 21eko erabakiaren bidez onetsia (62. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzen duena.**

### *EKONOMIA ETA OGASUNEKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 139. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena. Proiektu hori 2020ko azaroaren 16ko 126. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Aipatu irizpena dela-eta, ez da zuzenketarik mantendu, ezta boto partikularrik egin ere.

Iruñean, 2020ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **IRIZPENA**

Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak 2020ko abenduaren 18an eta 21ean egindako bileran onetsia.

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzen duena**

### **ZIOEN AZALPENA**

Nafarroako Foru Komunitateak, Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian xedatutakoaz baliatuz, aski eskumen-gaikuntza du bere toki ogasunei dagokiena arautzeko, eta arlo horretan araubide historikoa, bereki eta espezifiko izan du.

Gaikuntza hori Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 46.1 artikuluan zehaztuta dago, Nafarroari esleitzen baitzikio "gaur egun (lege organikoak indarra hartzean) dituen ahalmen eta eskumenak, 1841eko abuztuaren 16ko Lege Itunduan, 1925eko azaroaren 4ko Errege Lege-dekretu Itunduan eta beren xedapen osagarrietan erabakita-

koaren babesean, bai eta aurrekoekin bateragarriak izan eta Estatuko oinarritzko legeriaren arabera autonomia erkidegoei edo probintzietan dagozkienak ere".

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen hirugarren xedapen gehigarriak berak ezartzen duenez, lege horrek aginduko du Nafarroan, arlo horretan Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 46. artikulua Nafarroako toki administrazioarako ezartzen duen araubidearen kontrakoak ez diren gaitetan.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren azken xedapenetako hirugarrenaren lehen apartatuak ezartzen duenez, Nafarroako Foru Komunitatean, bere foru araubidea dela-eta, lege horretan xedatutakoa aplikatuko da, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Legearen 64. artikuluan ezarritakolari jarraikiz, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoan xedatutakoarekin bat.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan aurreikusitako informazioa emateko betebeharrak garatzen dituen urriaren 1eko HAP/2105/2012 Aginduaren xedapen gehigarri bakarrean xedatzen da ezen hura Nafarroako Foru Komunitatean eta Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatuko dela, betiere apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren azken xedapenetako hirugarrenean xedatutakoarekin bat.

Era berean, Estatuaren eta Nafarroaren arteko Hitzarmen Ekonomikoak, 1990eko uztailaren 31n izenpetutakoak (abenduaren 26ko 28/1990 Legea), zazpigarren xedapen gehigarrian ezartzen du Foru Komunitateari dagozkion Estatuak toki entitateetan betetzen dituen finantza arloko tutoretza ahalmenak, Aurrekontu Egonkortasunari

buruz orduan indarra zuen abenduaren 12ko 18/2001 Lege Orokorraren aplikazioarekin lotuta; horrek ez du esan nahi inola ere Nafarroako toki entitateen autonomia maila araubide erkidekoek dutena baino apalagoa izatea.

Hitzarmen Ekonomikoaren 48. artikulua ezarzen du, halaber, printzipio orokor gisa, Foru Komunitateari dagozkiola toki ogasunen arloan dituen ahalmenak eta eskumenak, 1841eko abuztuaren 16ko Lege Itunduan, 1925eko azaroaren 4ko Errege Lege-dekretu Itunduan eta gainerako xedapen osagarrietan erabakitakoaren babesean.

Foru lege proiektu honek zenbait aldaketa egiten ditu Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean, hala toki entitateen aurrekontu eta barne kontrolaren esparruari nola toki tributuen esparruari dagokionez, toki ogasunen arloan Nafarroak duen eskumen historiakoaz baliatuz.

Horrela, 13. artikuluko 5. apartatua aldatzen da berariaz gehitzeko, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean aurreikusi bezala, ordenantza fiskalek indarra hartuko dutela onetsi eta hurrengo ekitaldian, salbu eta ordenantzetan bertan beste data bat adierazten bada, indarra har dezaten argitaratzearekin batera edo argitara eman ondoren.

Aurrekontuaren eta gastu publikoaren arloan, aurrekontuaren likidazioa egiteko aurreikusitako data aldatzen da, martxoaren 1etik 31ra, onesteko denbora emateko.

Horrenbestez, aurrerantzean toki entitateko buruak apirilaren 30ean aurkeztu beharko ditu toki entitateko egoera-orriak eta kontuak, bi aurkezpenak egun berberetan ez egiteko.

Horrekin batera, desagertzen da ordainagiri bidez ordainarazitako tributu-zorrak edo ordezkoei atxikipenarengatik ordaindu behar dituztenak geroratzeko ezintasuna, horrela toki entitateek aukera izan dezaten zailtasun ekonomikoak dituzten subjektu pasiboetako tributu horiek ordaintzen laguntzeko eskaera gero eta ohikoagoari erantzuteko; behar hori oso agerian geratu da egun bizi dugun osasun eta ekonomia krisialdiaren hasieratik.

Orobat aurreikusten da kreditu transferentziak onartzeko xedearekin toki entitateek hartzen dituzten erabakiak, hondamendi publikoaren edo antzeko kasuetan, betearazleak izanen direla berehala, ukatu gabe haien kontra erreklamazioak sustatzeko aukera, zeinak aurkeztu eta hurrengo zortzi eguneko epean bideratu beharko baitira, eta

ezetsizat hartu erreklamazioaren egileari ebazpenik ez bazaio jakinarazten epe horretan.

Honekin aintzat hartzen da toki entitateek askok egindako eskaera bat, garrantzi berezia duena egungo egoeran, osasun eta ekonomia krisian, lehen aipatu bezala, bide hau araudian aurreikusirik baitzegoen soilik aparteko kredituak eta kreditu-gehirriak emateko.

Toki entitateei aurrekontu eta ekonomia kudeaketaren arloko tresna malguak ematea ere beharrezkotzat jotzen da, horien bidez aurreratu ahal izan dezaten gastu espedienteen tramitazio administratiboa, aurrekontuan behar den kreditu erabilgarria egon dadin behar diren erabakiak hartzen diren bitartean, dela ekitaldi bererako dela aurrekontu-egozpena egiten den ekitaldi bererako dela aurreko ekitaldirako.

Aukera horretan mota guztietako gastuak sartzan direnez, aurreikusten da kontratazioarako baldintza-agirietan, administrazio klausula partikularretako baldintzetan, dirulaguntzen deialdietan edo, gastuaren izaeraren arabera, beharrezkoak diren agirietan berariaz jasoko dela prebentzio hau: gastua, zeinaren tramitazioa aurreratzan ari baita, edo, kasua bada, baita adjudikazioa edo ebazpena ere, etenda egonen dela kasuan kasuko betebeharrak dagokion ekitaldian finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa izan arte.

Dagokion kreditua egoteko behar den finantzaketa honako hauei loturik egoten ahalko da, osorik edo zati batean: baliabide berekiak, mailegu bat, kreditu bat, transferentzia bat edo beste entitate publiko edo pribatu baten ekarpena edo dirulaguntza, adibide batzuk aipatzearen.

Horrela, toki entitateei ahalbidetzen zaie kreditua izan aurretik tramitatzea, besteak beste, kontratazio espedienteak, hurrengo ekitaldirako ez eze (Kontratu Publikoetako buruzko egungo 2/2018 Foru Legean aurreikusi bezala), uneko ekitaldirako ere bai.

Bestalde, Nafarroako toki entitateen aurrekontu egitura onesten duen 234/2015 Foru Dekretuan jasotako terminologiara ekartzen da foru legekoa, terminoak eguneratu eta harmonizatu baitzituen, halako moduan non "aurrekontuko partida" kontzeptua "aurrekontu aplikazioa" izanen baita hemendik aurrera, eta programen eta haien banaketaren araberrako sailkapen berriak lehengo sailkapen funtzionala ordeztuko baitu.

Orobat, zenbait aldaketa proposatzen dira aurrekontu aldaketei dagokienez, toki entitateen aurrekontu kudeaketa arinagoa izan dadin.

Izan ere, aurreikusten da osoko bilkurak onetsi ahal izanen dituela aparteko kredituak edo kreditu-gehigarriak, egiaz erabilgarriak diren baliabide atxikiekin finantzatuak, aurrekontuaren likidazioaren onespeneraren zain egon gabe; gauza bera aurreikusten da aurreko ekitaldian gastatu gabeko kredituak sartzeko ere.

Bi kasuetan nahitaezkoa izanen da kontu-hartzailetzak txostena egitea egiazko finantzaketa erabilgarriari buruz. Hartara, exekuzioaldian dauden espedienteen aurrekontu arloko kudeaketa arintzen da diru-sarrera atxiki erabilgarriekin, aurrekontuaren likidazioa onetsi arte.

Era berean, aurreikusirik dago osoko bilkurak jasotzea exekuzio oinarrietan (toki entitatearen aurrekontuarekin batera onesten direnak) tresna bat, aurrekontuaren onespenerako erabiltzen denaren parekoa baino arinagoa, organo horren eskumenekoak diren aurrekontu aldaketak tramitatu eta indarrean jartzeko.

Aldaketa horien xede nagusia da lehenbailehen tramitatzea, hurrengo ekitaldira arte atzeratu ezin diren gastuak exekutatzeko, hala egin ezean hurrengo ekitaldian sartuko liratekeelako eta ez indarreko aurrekontu-ekitaldian.

Horrenbestez, aldaketaren beraren izaera eta justifikazioarekin bat, tramitazioak helburuetarako egokia izan behar du, hau da, gastua uneko ekitaldian exekutatzea.

Hori dela eta, gerta daiteke, aurrekontu aldaketak egiteko eta aurrekontua bera onesteko tramite berdina eskatuz gero, ezinezkoa bihurtzea egin nahi den aldaketa uneko aurrekontu ekitaldian gauzatzea.

Horri gehitu beharra zaio, aldaketen eduki materialari dagokionez, ez dagoela alde nabarmenik beste batzuekin alderatuta, esate baterako diru-sarreraren bidezko kredituak sortzearekin, zeinaren tramitazioa exekuzio oinarrietan jaso bezala egiten baita, betiere baldintzak betez gero: egiaz lortu behar dira zergaz besteko diru-sarrera berriak, aparteko kredituetarako eta kreditu-gehigarrietarako aurreikusitakoen antzekoak, eta, uneko ekitaldian gastatzea lortu ezean, diruzaintzako gerakinean sartuko dira, aparteko kredituak edo kreditu-gehigarriak emateko espedienteak tramitatzea ahalbidetuz, bestelako tramitazioa baitute.

Horregatik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 1.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, beharrezkoa da 2/1995 Foru Legeak ahalbidetzea toki entitatearen aurrekontuaren exe-

kuzio oinarrietan (aurrekontuarekin batera onesten direnak eta, hortaz, aurrekontuaren beraren tramite eta betebeharrak berdina dituztenak) aurreikusi ahal izatea aparteko kredituak, kreditu-gehigarriak eta antzekoak emateko espedienteak jendaurrean jartzea iragarki-taulan argitaratuz, osoko bilkurak hasiera batean onetsi ondoren; hala egitea eraginkorra, proportzionatua eta beharrezkoa da ares-tian aipatutako helburuak betetzeko.

Epe horretan erreklamazioak edo alegazioak aurkezten ahalko dira, eta erabakia behin betiko onetsirik dagoela ulertuko da jendaurrean egoteko epea halakorik egin gabe iragan ondoren. Erreklamazioak edo alegazioak aurkeztuz gero, osoko bilkurak berariaz erabaki beharko du horien ebazpenaz eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenez, zeinak indarra hartuko baitu behin betiko testua toki entitatearen iragarki-taulan argitaratu ondoren.

Kontuan hartu behar da komunikazioaren teknologia berrien garapenari eta administrazio publikoen eta administrazio elektronikoaren kudeaketan gardentasunari buruzko araudiaren aplikazioari esker, toki entitate guztiek, gehiago edo gutxiago, bitartekoak dituztela publizitatea eta informazioa bermatzeko, Toki Ogasunei buruzko Foru Legea onartu zen garaian (1995ean) zeudenak baino arinagoak eta bestelakoak, web atariak eta egoitza elektronikoak, kasu.

Berme erantsi gisa aurreikusten da exekuzio oinarrietan halako aurreikuspenik ez dagoen kasurako, osoko bilkurak tramitatu eta onetsiko dituela espedienteak aurrekontuetarako bete behar diren tramite eta betebeharrak berdinekin (informazioa, erreklamazioa eta publizitatea).

Bestalde, aurrekontu egonkortasunaren eta finantza jasangarritasunaren helburuei dagokien, horiek betetzeko beharrezkoak diren elementu eta bitarteko batzuk ezartzen dira.

Horretarako, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoa-ko lurralde historikoetako toki entitateetarako foru arauen bidez arautu den bezala, kasu honetan ere, Nafarroako Foru Komunitateak toki ogasunen arloan duen eskumen historikoaz baliatuz, foru araudia egokitu beharra dago gure toki entitateei arau tresna batzuk emateko, batetik, aurrekontu egonkortasunaren eta finantza jasangarritasunaren helburuak betetzeko behar direnak, eta bestetik, horiek erabiliz, azkar eta eraginkortasunez erantzun diezaieten bizi dugun osasun eta ekonomia krisiak ekarri dituen beharrei, kontuan hartuta toki entitateak direla herritarrengandik gertuen dauden administrazio publikoak.

Horrela, gainera, Nafarroako Kontuen Ganberaren gomendioa betetzen da; izan ere, toki sektore publikoari buruz 2018an egindako urteko txostenean gomendio hau jasotzen du: “araudia eta prozedurak ezartzea Foru Administrazioak bete behar duen finantza tutoretzarako, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa Foru Komunitateko toki entitateei aplikatzeari dagokionez”.

Nafarroako toki entitateek hitzartu ditzaketen kreditu eragiketen gaineko indarreko arautzeari dagokionez –Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 125. artikulutik 131. artikulura bitarte jasotakoa–, esan behar da zaharkitua gelditu dela indarra hartu zutenetik aipatutako legeak, hots, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, eta toki mailako zorpetzearen eta haren baimen araubidearen arloan emandako arauak.

Horrenbestez, arlo honetako foru araudia eguneratu behar da, batetik, finantza zuhertasunaren printzipioa gehitzeko, eta, bestetik, epe luzeko kreditu eragiketak baimentzeko araubidea eguneratzeko, estatuko araudian indarra duen araubidea aplikatuz.

Epe luzeko kreditu eragiketak baimentzearen arloan, 2013rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legearen azken xedapenetako hogeita hamaikagarrenak aldatu zuen Defizit publikoa zuzentzeko presako neurriak, aurrekontuen, tributuen eta finantzen arlokoak arautzen dituen abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-dekretuaren hamalagarren xedapen gehigarriaren testua, eta mugagabeko indarra eman zion.

Horren ondorioz, Toki Ogasunei buruzko Foru Legea egokitzen da araudi orokor aplikagarrian xedatutakora, Nafarroako toki entitateen onerako.

Azkenik, barne kontrolaren arloan, 248. artikuluen 2. apartatua aldatu behar da, Nafarroako edozein toki entitatek, ez bakarrik Iruñeko Udalak, aukera izan dezan ezartzeko alde aurreko fiskalizazio eta kontu-hartze mugatuko araubidea, oinarriko baldintza batzuk dituen, oro har eta udalerri guztientzat aurreikusita dagoena, zein den ere biztanle kopurua, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onetsi zuen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 219.2 artikuluan.

Horretarako, ezabatu beharra dago 50.000 biztanletik gorako kopuruaren aipamena, hartara Nafarroako toki entitate guztiek erabaki ahal izan

dezaten alde aurreko kontu-hartzea mugatzea agindu horren a), b) eta c) letretan aipatzen diren gaiak egiaztatzea soilik, betiere toki entitateko buruak proposatuta eta kontu-hartzaitzako organoak txostena egin ondoren.

Estatuan bezala, Nafarroan ere ahalbidetu behar da toki entitate txikietan barne kontrol erraztuko araubide bat ezartzea, lege gaikuntza nahikoa emanez Nafarroako Gobernuak berak errege-lamenduz ezar dezan zein kasutan erabil dezaketen toki entitateek araubide hori eta zein diren haren ezaugarriak.

Toki tributuen arautzeari dagokionez, toki jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik aurreikusirik dauden tasen zenbatekoari dagokion araudia egokitu behar da merkatuaren errealitate berrira, bai interes orokorreko hornigaien kasuan bai populazio osoari edo zati garrantzitsu bati eragiten dioten hornigaien kasuan, energia hornidurarenean, nagusiki.

Merkatuko errealitate berri horrek alde batera uzten du eremu geografiko bakoitzeko hornitzaile bakarraren sistema zaharra, eta bereizten ditu, alde batetik, hornikuntzarako beharrezkoak diren sareen titular diren enpresa banatzaileak eta, bestetik, hornigaiak merkaturako lehiaren araubidean merkaturatzen dituzten enpresak.

Bi enpresa mota horiek aurreikusten dute ordainketa sistema bat banaketa sareen erabilergatik, kasu eta tributazio zehatzekin, eta hori guztia jaso behar da araudi aplikagarrian.

Lurraren kontribuzioari dagokionez, gaikuntza ematen zaie udalei aukerako hobari batzuk ezartzeko. Lehenengo eta behin, ehuneko 90erainoko hobaria, familia ugarien eta guraso bakarrekoen edo gurasobakartasun egoeran daudenen etxebizitzan gainean. Aldaketa horrekin betetzen da Familia Ugariari buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legearen 12.3.a) artikuluan eta Nafarroako Foru Komunitatean familia guraso bakarrekokoak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen 12. artikuluan jasotzen diren aginduak. Horrez gain, ezartzen diren hobariak, ezartzen badira, etxebizitzan balio eguneratuen gainean aplika daitezten, hobariaren aplikaziorako nahitaezkoa izanen da balorazio txostena azken bost urteetan eguneratu izana.

Orobat, 100eko 50erainoko hobaria ezartzen ahalko da ondasun higiezinaren gainean, eguzki energia edo beste energia berriztagarri batzuen bidezko aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak ezarri badituzte.



Bereziki aipagarria da ekonomia-jardueren gaineko zergaren aldaketa, 1.000.000 eurotik beherako negozio- zifra duten subjektu pasiboak zergaren ordainketatik salbuesteko xedea duena. Neurri horrek 31.000 langile autonomori eta 7.000 enpresa txikiri eraginen die, gutxi gorabehera, eta haren xedea da ekintzailatza bultzatu eta sustatzea eta koronabirusak ekarri duen krisi ekonomikoaren ondorioak apaltzea. Era berean, toki entitateen finantza nahikotasunaren printzipioa babestearren, lehen xedapen gehigarriaren aurrekustean da Nafarroako Gobernuak konpentsazio bat emanen diela toki ogasunek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren kargura. Beste alde batetik, azken xedapenetako lehenak aldatzen du Toki ogasunek transferentzia arrunten eta beste laguntza batzuen kontzeptuetan Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2020. urterako ezartzen dituen Foru Legea, konpentsazio hori nola egingen den ezartzeko.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari dagokionez, Arartekoaren gomendioak aintzat hartuta, zabaltzen da egokitzapen bereziak dituzten ibilgailuen eta desgaitasuna duten pertsonen izenean matrikulaturik daudenen gaineko salbuespena, ez baita aurrerantzean loturik egonen ibilgailuaren potentzia fiskalarekin. Bestalde, zergaren tarifak eguneratzen dira, toki ogasunek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsarako, transferentzia arruntei dagokienez, finkatzen den igoeraren arabera.

Tarifen azken eguneraketa abenduaren 27ko 19/2017 Foru Legean egin zenez, 2018an eta 2019an aplikatzeko, oraingoan tarifak eguneratzen dira, 2021ean aplikatu beharrekoak ezartzeko, 2020ko eta 2021eko igoerekin.

Ildo horretan, Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2020rako ezartzen dituen 3/2020 Foru Legean aurrekustean denez, igoera izanen da Nafarroako Foru Komunitatean KPIak duen igoera portzentuala, 2018ko ekainetik 2019ko ekainera hartuta, gehi ehuneko 2. 2018ko ekainetik 2019ko ekainera hartuta, KPIaren igoera %1,0koa izan zenez, 2020rako igoera orokorra %3an ezarri zen.

Horrekin batera, foru lege horren azken xedapenetako lehenak aurrekustean du hura 2021erako luzatzea, eta beraz, 2021erako funtsaren igoera izanen da Nafarroako Foru Komunitateko KPIaren igoera, 2019ko ekainetik 2020ko ekainera bitarte hartuta, gehi ehuneko bi. Aldi horretako KPIa negatiboa izan denez,  $-0,7\%$ koa, 2021erako aurrekustean den igoera %1,3koa da. Beraz, ehu-

nekoak batuta, aplikatu beharreko igoera %4,3koa da.

Eraikin, instalazio eta obren gaineko zergan lege gaikuntza bat eransten da, udalek ordenantza bidez arautu ahal izan dezaten hobari bat zergaren kuotarako, %95erainokoa eguzki energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendurako eraikuntza, instalazio edo obren kasurako. Horren helburua da Nafarroako udalen egoera ez izatea erkidego mugakideetako udalena baino okerragoa inbertsio mota hori erakartzeko.

Hiri-lurren balio-igoeraren gaineko zergan bi aldaketa egin dira. Lehenbizikoaren xedea da argitzea zein den kontuan hartu behar den eskurapen-balioa, zehaztu nahi denean balio-igoerarik dagoen ala ez eskualdaketa batean, 173.1 artikuluko a), b) eta c) letretan xedatutako aplikatuz salbuespen egon den beste eskualdaketa baten ondotik egiten delarik. Abiapuntuko ideia da salbuespen horiek, duten konfigurazioaren ondorioz, zergaren ordainketaren atzerapena direla, salbuespena baino areago, legeak ezartzen baitu ezen, etorkizuneko eskualdaketa baten ondorioetarako, ulertuko dela lurren balio-igoera gertatu den urte kopurua ez dela eten letra horietan aurreikusitako negozio juridikoak direla-eta. Zergaren atzerapenak koherentea izaten jarraitzeko, eta sortutako zalantzak eta gatazkak kontuan harturik, berariaz ezartzen da ezen, balio-igoerarik izan den zehaztearren, eskurapen-balioa izanen dela higiezinaren aurreko eskualdaketari dagokionna, aipatutako negozio juridikoen ondorioa ez denari.

Bigarren aldaketaren helburua da eguneratzea lurren balioari sortzapenaren unean aplikatu beharreko gehieneko koefizienteak, zeinak, Toki Ogasunei buruzko Foru Legean bertan ezarritakoaren arabera, urtero eguneratu behar baitira.

Azkenik, luxuzko gastuen gaineko zergari dagokionez, bingo jokoan lortutako sarien gaineko karga kentzen da.

Foru legearen egitura hauxe da: artikulua bakarra, bi xedapen gehigarri eta bi azken xedapen.

Proiektu hau egitean aintzat hartu dira arauketa onaren printzipioak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 129. artikuluan ezarriak.

Foru legea, hori prestatzeko prozedura eta gainerako arauetan dituen ondorioak Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta nafarroa.eus webgunean

argitaratzeak zaintzen du gardentasun eta irisgarritasun printzipioak errespetatuak izatea.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 20.2 artikuluan eta Nafarroako Par-lamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 152. eta 153. artikuluetan ezarritakoarekin bat, foru lege proiektu hau onesteko gehiengo osoa beharko da.

**Artikulu bakarra.** 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 13.5 artikulua.

“5. Ordenantza fiskalen eta haien aldaketen onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarri-ko da eta haien edukia Ordenantza Fiskalen erre-gistroari jakinaraziko zaio, erregistro publikoa baita, Nafarroako Aldizkari Ofizialean osorik edo zati batean argitaratzea ukatu gabe.

Ordenantza fiskalek onetsi eta hurrengo ekital-dian hartuko dute indarra, salbu eta ordenantzetan bertan beste data bat ezartzen bada, argitara-tzearekin batera edo argitaratu ondotik.”

Bi. 91. artikulua indargabetzea.

Hiru. 105.1 artikulua.

“1. Toki jabari publikoaren erabilera pribatiboa-gatik edo aprobetxamendu bereziagatik aurreiku-sirik dauden tasek zenbatekoa honako arau hauen arabera ezarriko da:

a) Oro har, erabileratik edo aprobetxamendutik eratorritako onurak merkatuan izanen lukeen balioa hartuko da oinarri, ukitutako ondasunak jabari publikokoak ez badira. Hartarako, ordenan-tza fiskalek zilegi izanen dute onura horren merka-tu balioa definitzeko irizpide eta parametroak adie-raztea, kasuan kasuko erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren izaera espezifikoa kontuan hartuta.

b) Lizitazio publikoko prozedurak erabiltzen direnean, emakida, baimena edo adjudikazioa zein proposamenentzat egiten den, haren balio ekonomikoaren arabera finkatuko da tasaren zen-batekoa.

c) Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalerrietako eremu publikoko lurzoru, lurgain eta lurpean egiten dituzten aprobe-txamendu berezien edo erabilera pribatiboan kasuan, zerbitzu horiek interes orokorreko horni-durak edo herritar guztiei edo zati handi bati eragi-ten dieten hornidurak emateko direnean, tasa

horien zenbatekoa izanen da enpresa horiek udal-mugarte bakoitzean urtero eskuratzen duten faktu-raziotik heldu diren diru-sarrera gordinen %1,5, kasu guztietan eta batere salbuespenik egin gabe.

Horri dagokionez, zerbitzu horiek ustiatzen dituzten enpresen artean sartzen dira banaketara-ko eta merkaturatzeko enpresak.

Sakelako telefoniako zerbitzuak ez dira sartuko tasaren zenbatekoa zehazteko araubide berezi honetan.

Zenbatekoa zehazteko araubide berezi hau aplikatuko zaie c) letra honek aipatzen dituen enpresei, bai kasuan kasuko sareen titularrak izan-nik haien bidez hornidurak egiten dituztenean, bai sare horien titularrak izan gabe, horiek erabiltzeko, eskuratzeko edo horiekin lotzeko eskubidearen titularrak direnean.

Letra honetan xedatzen denari dagokionez, fakturaziotik heldu diren diru-sarrera gordintzat hartuko dira entitate bakoitzari egozten ahal zaiz-kion diru-sarrera gordinak, udal-mugartean eman-dako hornidura zerbitzuen ordainetan jaso ditue-nak.

Ondorio horietarako, diru-sarrera gordinen artean ez dira sartuko egindako zerbitzuak karga-tzen dituzten zeharkako zergak, ezta hirugarrenen kontura kobratutako partida edo zenbatekoak ere, baldin ez badira entitatearen diru-sarrera berekiak, alegia, tasaren zenbatekoa zehazteko araubide berezi hau aplikatzen zaion entitatearen diru-sarrera berekiak. Orobat, Ekonomia Ministerioaren energia elektrikoa sortzeko instalazioen adminis-trazio erregistroaren 1. edo 2. ataletan inskribatu-tako instalazioetan erabili beharreko hornidura zerbitzuen ordainetan jasotako zenbatekoak ez dira sartuko fakturazioaren diru-sarrera gordinetan, araubide berezi horretan tributatu dezakeen energia sortzeko beharrezkoa den lehengai gisa.

Hornidurak egiteko kanpoko sareak erabiltzen dituzten enpresek beren fakturazioko diru-sarrera gordinetatik kenduko dituzte beste enpresa bat-zuei ordaindu dizkieten zenbatekoak, haien sare-ak eskuratzegatik edo haiei lotzeagatik. Sare horien titulartasuna duten enpresek kontzeptu horregatik eskuratzen dituzten zenbatekoak sartu beharko dituzte beren fakturazioko diru-sarrera gordinetan.

Araubide berezi hau aplikatu ondoriozko zen-batekoa ez zaio jasanaraziko c) letra honek aipa-tzen dituen hornidura zerbitzuen erabiltzaileei.

c) letra honetan arautzen diren tasak bateraga-riak dira toki erakundearen eskumeneko jardue-rak edo zerbitzuak egiteagatik ezar daitezkeen



beste tasa batzuekin. Halakoetan, c) letra honek aipatzen dituen enpresek subjektu pasibo izan beharko dute, 104.1.b) artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Udalerrietako eremu publikoko lurzoru, lurgain eta lurpean egiten dituzten erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezien ondoriozko beste tasa batzuk ez dira ordaindu beharko, tasa hau ordaintzen bada”.

Lau. 125 artikulua.

“125. artikulua.

1. Foru lege honetan aurreikusitako moduan, toki entitateek eta haien menpeko entitateek kreditu eragiketak hitzartzen ahalko dituzte, modalitate guztietakoak, epe luzeko nahiz laburrekoak, bai eta interes tasaren eta truke tasaren arriskua estali eta kudeatzeko finantza eragiketak ere.

2. Toki entitateek izenpetzen dituzten kreditu eragiketa guztiak, bai eta abalak edo bestelako berme publikoak ematea ere, finantza zuhurtasunaren printzipioari loturik egonen dira. Finantza zuhurtasuna baldintza multzo bat da, finantza eragiketek bete behar dutena beren arriskua eta kostua ahalik eta txikiak izan daitezen.

3. Eragiketek bete behar dituzten baldintzak finantza tutoretzaren arloan eskumena duen organoak emandako ebazpen bidez ezarriko dira”.

Bost. 126. artikulua.

“126. artikulua.

1. Aurreko artikuluan aipatzen diren entitateek epe luzeko kreditu publiko edo pribatura jotzen ahalko dute, edozein motatakoa dela, beren inbertsioak finantzatzeko, bai eta lehendik dituzten eragiketa guztiak nahiz batzuk ordeztzeko ere.

2. Kreditua modu hauen arabera gauzatuko da:

- a) Zor publikoaren jaulkipena.
- b) Mota guztietako finantza-entitateekin mailegu edo kredituen kontratazioa.
- c) Kreditu publiko edo pribatuaren beste edozein erabilera.

d) Lehendik dauden eragiketak eraldatu edo ordezte, guztiak edo batzuk.

3. Kreditu eragiketek eragindako betebeharren ordainketa bermatzen ahalko da diru-sarrera espezifikoak atxikiz, ondare ondasun zehatzen gaineko bermea eratuz, edo abalak emanez.

4. Toki entitateen zor publikoak eta haiek jaulkitako balio bereko titulu-baloreek Nafarroako Gobernuak jaulkitako zor publikoaren onura eta baldintza berdina izanen dituzte.

5. Foru lege honetan aurreikusitako epe luzeko kreditu mota guztiak hitzartzeko, beharrezkoa izanen da indarra duen behin betiko aurrekontuan sartzea edo, kasua bada, aurrekontuaren luzapenean”.

Sei. 127. artikulua.

“127. artikulua.

1. Toki entitateek, beren interesetarako komeni zaienean eta beren eskumeneko lanak egin eta zerbitzuak ematea errazteko, abala ematen ahaliko diote beraiekin lanak edo zerbitzuak kontratatzen dituzten edo toki entitatara itzuliko diren emakidak ustiatzen dituzten pertsona edo entitateek hitzartutako kreditu eragiketei, nolana hikoak direlarik eragiketa horiek; abalak banaka emanen dira eragiketa bakoitzerako.

2. Toki entitateek abala ematen ahalko diote beren menpeko entitateek hitzartzen duten edozein mailegu eragiketari. Abalak, hala ere, ezin izanen du bermatu menpeko entitatean duen partaidetza baino handiagoa den kreditu-portzentajerik.

3. Aurreko bi apartatuetan aipatutako eragiketak aurretiazko fiskalizazioaren menpe egonen dira eta bermatutako maileguaren zenbatekoa ez da izanen entitateak berak obra edo zerbitzua zuzenean finantzatu balu baino handiagoa”.

Zazpi. 128. artikulua.

“128. artikulua.

Toki entitateek diruzaintzako eragiketak hitzartzen ahalko dituzte, urtebeteko eperako gehienez, edozein finantza entitatearekin, diruzaintzan dituzten aldi baterako beharrei erantzuteko, baldin eta ez badira, osotara hartuta, aurreko ekitaldian eragiketa arruntengatik onartutako diru-sarreren ehuneko 35 baino handiagoak, non eta eragiketa ez den egin behar ekitaldi horretako aurrekontuaren likidazioa egin aurretik, kasu horretan kontuan hartuko baita azken ekitaldiaren aurrekoan egingako likidazioa”.

Zortzi. 129. artikulua.

“129. artikulua.

1. Kreditu eragiketak hitzartu edo aldatzea kontu-hartzaitzak txostena egin ondotik erabaki beharko dira. Txostenean, bereziki, aztertuko da toki entitateak gaitasuna duen eragiketetatik heldu diren betebeharrak denboran betetzeko, eta betebeharrak horiek aurrekontu egonkortasunean eta finantza jasagarritasunean izanen duten eragina.

2. Toki entitateetako buruek aurrekontuan aurreikusitako epe luzeko kreditu eragiketak hi-

tzartzen ahalko dituzte, baldin eta haien zenbateko metatua ez bada, ekitaldi ekonomiko bakoitzean, aurreko ekitaldian eragiketa arruntengatik onartutako diru-sarreraren ehuneko 10 baino handiagoa, non eta eragiketa ez den egin behar ekitaldi horretako aurrekontuaren likidazioa egin aurretik, kasu horretan kontuan hartuko baita azken ekitaldiaren aurrekoan egindako likidazioa.

Epe laburreko kreditu eragiketak hitzartzen ahalko ditu izaera horretako eragiketa biziaren zenbateko metatua, eragiketa berria barne, ez denean aurreko ekitaldian eragiketa arruntengatik onartutako diru-sarreraren ehuneko 15 baino handiagoa, non eta eragiketa ez den egin behar ekitaldi horretako aurrekontuaren likidazioa egin aurretik, kasu horretan kontuan hartuko baita azken ekitaldiaren aurrekoan egindako likidazioa.

Toki entitateko buruak hitzartzen dituen eragiketen berri eman beharko dio toki entitatearen osoko bilkurari edo organo baliokideari, ondotik eginen den lehenbiziko bilkuran.

Muga horiek gainditu behar direnean, udalbatzaren osoko bilkurari edo organo baliokideari dagokio onestea”.

Bederatzi. 130. artikulua.

“130. artikulua.

1. Toki entitateek eta haien menpeko entitateek, Europako Kontuen Sistemaren arabera definituz eta mugaketarekin bat Administrazio Publikoaren sektorean sailkatutakoek, aurre-aurreko ekitaldiko likidazioa aurrezki garbi positiboarekin ixten badute, epe luzeko kreditu eragiketa berriak hitzartzen ahalko dituzte, baldin kapital biziaren bolumen osoa ez bada likidatutako edo sortutako diru-sarrera arruntaren ehuneko 75etik gorakoa, kontabilitateko egoera-orri bateratuetatik ateratzen diren zifretan oinarrituta.

Zorpetze bolumena aurreko paragrafoan aipatzen dena baino handiagoa eta likidatutako diru-sarrera arruntaren ehuneko 110 baino txikiagoa duten toki entitateek zorpetze eragiketak hitzartzen ahalko dituzte, finantza tutoretzako organoak horretarako baimena eman ondoren.

Aurrezki garbi negatiboa edo aurreko paragrafoan jasotzen dena baino zorpetze biziaren bolumen handiagoa duten entitateek ezin izanen dute epe luzeko kreditu eragiketarik hitzartu.

Ondorio horietarako, ulertuko da toki entitateen eta haien erakunde autonomoen aurrezki garbia dela diru-sarrera arruntengatik likidatutako eskubiaren eta gastuen egoera-orrietako lehen, bigarren eta laugarren kapituluetan onartutako betebeharraren

arteko diferentzia, zenbateko hau kenduta: urteko amortizazio-kuota teoriko bat, proiektatutako eragiketarena eta ordaintzeko dauden mailegu eta jesapen bereki nahiz hirugarrenei abalaturako guztiena.

Urteko amortizazio-kuota teoriko horren zenbatekoa, biltzen dituen hitzartutako epe luzeko mailegu guztiena, korporazioak abalaturakoena, ordaintzeko dauden maileguena eta proiektatutako eragiketarena, termino konstantetan ezarriko da beti, interesak eta amortiziorako urteko kuota barne hartuz, edozein direla ere eragiketa bakoitzaren modalitatea eta baldintzak.

Enpresa-erakunde publikoetan eta toki mailako fundazioetan eta merkataritza sozietateetan, aurrezki garbia da jarduera arruntaren emaitza, mailegu edo jesapenen interesak alde batera utzita, eta urteko amortizazio-kuota teoriko bat kenduta, aurreko paragrafoan zehazten den bezala.

Aurrezki garbian ez dira sartuko kreditu aldaketatik datozen betebeharrak onartuak, diruzaintzako gerakin likidoarekin finantzatu direnak.

Urteko kuota teoriko horien zenbatekoa kalkulatzeko ez dira kontuan hartuko ondasun higiezinaren gaineko hipoteken bidez bermatutako kreditu eragiketak, berme horrek hartzen duen mailegu-zatiari dagokion proportzioan.

Toki mailako erakunde autonomoen, enpresa-erakunde publikoaren edo merkataritza sozietatearen jardueraren xedea etxebizitzak eraikitzea baldin bada, aurrezki garbiaren kalkulua egiten da azken bi ekitaldietako batezbestekoa hartuz.

Aurrezki garbia eta zorpetze maila kalkulatzeko kontuan hartu beharreko diru-sarrera arruntak zehazteko, kenduko dira kapital eragiketei atxikitako diru-sarrerak eta 1. kapitulutik 5. kapitulura bitartekoei aplikatutako aparteko beste edozein diru-sarrera, legezko atxikipenengatik eta/edo errepikatutako ez izategatik diru-sarrera arruntak ez direnak.

Kapital biziaren kalkulurako, kontuan hartuko dira aurreko urteko abenduaren 31n indarra zuten eragiketa guztiak, abalen arriskua barne, horri gehituta, kasua bada, eragiketa formalizatuen saldo erabili gabeak eta proiektatutako eragiketaren zenbatekoa.

2. Edozein kasutan, finantza tutoretzako organoaren baimena beharko da epe laburreko eta luzeko kreditu eragiketarako, abalak emateko eta kontratuen baldintzak aldatzen edo berme gehigarriak erantzen dituzten gainerako eragiketarako, hirugarrenen bitartekaritzarekin nahiz gabe, kasu hauetan:

a) Atzerrian edo Espainiako egoiliarrek ez diren finantza entitateekin formalizatzen direnak, edozein dela ere proiektatutako eragiketaren kapitala ezartzeko dibisa; horren barnean daude finantza entitate ez-egoiliarrei egindako lagapenak, entitate egoiliarrek toki entitateei, haien erakunde autonomoei eta haien menpeko entitate, fundazio eta merkataritza-sozietateei emandako kredituetan dituzten partaidetzenak, horiek ematen dituzten zerbitzuak edo ekoizten dituzten produktuak nagusiki merkatuko diru-sarrerekin finantzatzen ez badira.

b) Zor jaulkipenen bidez edo kreditu publikoaren beste edozein erabileraren bidez gauzatzen direnak.

a) letran aurreikusten denari dagokionez, ez dira atzerriko finantzaketatzat hartuko Europar Batasuneko herrialdeen lurraldearen barruan herrialde horietako bateko egoiliarrek diren finantza entitateekin eurotan egiten diren eragiketak. Kasu guztietan, eragiketa horiek finantza tutoretzako organoari komunikatu beharko zaizkio alde aurretik.

3. Aldi baterako inbertsioak finantzatzen dituzten eta foru lege honen 128. artikuluan araututako mugak gainditzen dituzten epe laburreko eragiketarako, baimena beharko da, zeina bakarrik emanen baita toki entitateak justifikatzen badu funtsak badituela dagokion muga-egunean kitatzeko.

4. Artikulu honetan ezarritako arauekin bat, beharrezkoa bada finantza tutoretzako organoaren baimena kreditu eragiketa hitzartzeko, eragiketa horrekin lotutako gastu konpromisoak ez dira irmo bihurtuko harik eta baimen hori eskuratu arte. Horretarako, finantza tutoretzako organoaren komunikazioa, baimenari buruzkoa, toki entitatera igorriko da kreditu eragiketa hitzartzeko eskaera egin eta bi hilabete iragan baino lehen.

5. Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru legeetan ezartzen ahalko dira, urtero, toki entitateek kreditua eskuratzeko bestelako baldintza batzuk, unean uneko egoera dela-eta neurri hori hartzea komeni denean, politika ekonomiko orokorraren arazoiengatik. Aurrekontuak luzatzen direnean, mugak ezartzen ahalko dira horretarako onetsitako foru lege baten bidez.

6. Mailegu edo kreditu eragiketa bat edo zor-jaulkipenak, bere modalitate guztietan, edozein motatako kredituan emandako abalak eta bermeak, finantza errentamenduko eragiketak eta etorkizuneko finantza egoerari eragiten dioten beste edozein, toki entitateek edo beren menpeko entitateek, Administrazio Publikoen sektorean sailka-

tutakoek, hitzartu dituztenak, izenpetu, kitatu edo aldatu eta hilabeteko epean, gehienez ere, jakinaraziko zaizkio finantza tutoretzako organoari eragiketaren baldintzak eta amortizazio taula”.

Hamar. 131. artikulua.

“131. artikulua.

Toki entitateen menpeko erakundeek kreditu eragiketak hitzartzen ahalko dituzte aurreko artikuluetan ezarritako baldintzetan, korporazioaren osoko bilkurak baimena eman eta kontu-hartzailetzak txostena egin ondotik”.

Hamaika. 140. artikulua, 4. eta 5. apartatuak gehitzea.

“4. Ordenantza fiskalek arautzen ahalko dute zergaren kuotaren ehuneko 90erainoko hobari bat, kasuan kasuko etxebizitza familia ugariaren edo familia guraso bakarrekoaren edo gurasobarkartasun egoeran dagoen familiaren titularrak diren subjektu pasiboaren ohiko bizilekua denean.

Toki-entitateek, beren udal-autonomiaren barruan, hobari hori berdindu ahal izanen dute kotizazio gabeko pentsioak dituzten zergadunekin, errenta bermatua edo bizitzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzen dutenekin.

Hobari hori jasotzeko, subjektu pasiboaren errentek, salbuetsiak alde batera utzita, ezin izanen dute gainditu lanbide arteko gutxieneko soldata halako 4, eta toki-entitate bakoitzak tarte desberdinak hartu ahal izanen ditu kontuan errentaren arabera, ehuneko 90eraino gehienez.

Hobari hau aplikatzeko, beharrezkoa izanen da udalerriko balorazio txosten osoaren onespena edo azken berrikuspena aurreko bost urteko epean egina izatea, gehienez ere.

Hobariaren gainerako alderdi substantiboak eta formalak ordenantza fiskalaren bidez arautuko dira.

5. Orobat, ordenantza fiskalek arautzen ahalko dute ondasun higiezin gainerako zergaren kuota osoaren 100eko 50erainoko hobaria, higiezin eguzki energia edo beste energia berriztagarri batzuen bidezko aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak ezarri direnean.

Hobari hori jasotzeko, subjektu pasiboaren errentek, salbuetsiak alde batera utzita, ezin izanen dute gainditu lanbide arteko gutxieneko soldata halako 4, eta toki-entitate bakoitzak tarte desberdinak hartu ahal izanen ditu kontuan errentaren arabera, ehuneko 90eraino gehienez.

Hobari horren aplikaziorako, beharrezkoa izanen da beroa sortzeko instalazioetan administra-

zio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak egotea.

Hobariaren gainerako alderdi substantiboak eta formalak ordenantza fiskalaren bidez arautuko dira”.

Hamabi. 150.1 artikulua, g) letra gehitzea.

“g) Negozio-zifraren zenbateko garbia 1.000.000 eurotik beherakoa duten subjektu pasiboak.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunei dagokienez, salbuespena aplikatuko zaie soilik Espainiako lurraldean establezimendu iraunkorraren bidez jarduten dutenei, baldin eta negozio-zifraren zenbateko garbia 1.000.000 eurotik beherakoa badute.

Edozein kasutan, salbuespena aplikatzeko beharrezkoa izanen da subjektu pasiboetan ez izatea letra honetan aurreikusitako negozio-zifraren zenbateko garbiaren betebeharra betetzen ez duten enpresen ehuneko 25eko edo gehiagoko partaidetza, zuzenekoak nahiz zeharkakoak, salbu eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 94. artikuluan aipatzen diren arrisku kapitaleko entitateak badira, partaidetza entitate horien xede soziala betetzearen ondorioa denean.

Letra honetan aurreikusitakoa aplikatzeko, arau hauek kontuan hartuko dira:

Lehena. Subjektu pasiboaren negozio-zifraren zenbateko garbian kontuan hartuko dira enpresaren ohiko jarduerari dagozkien zerbitzu-prestazioen, produktu-salmenten eta beste diru-sarrerak batzuen zenbatekoak, salmenten gaineko hobariak eta gainerako murriztapenak kenduta, bai eta balio erantsiaren gaineko zergaren eta aipatu negozio-zifrarekin zuzenean loturiko beste zerga batzuen zenbatekoak ere, jasanarazi beharrekoak.

Bigarrena.. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren, edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunen kasuan, negozio-zifraren zenbateko garbia izanen da tributu horien aitortpenak aurkezteko epea zerga honen sortzapenaren aurreko urtean bukatu zen zergaldikoa.

Sozietateen gaineko zergaren zergadun ez diren sozietate zibilen kasuan, bai eta Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 25. artikuluan aipatzen diren entitateen kasuan ere, negozio-zifraren zenbateko garbia izanen da zerga honen sortzapeneko urtearen aurreko azken-aurreko urteari dagokiona.

Zergaldiaren iraupena urte naturala baino laburragoa izan bada, negozio-zifraren zenbateko garbia urte osoaren araberkoa izanen da.

Hirugarrena, Subjektu pasiboaren negozio-zifraren zenbateko garbia kalkulatzeko, kontuan hartuko dira hark betetako jarduera ekonomiko guztiak.

Delako entitatea sozietate talde bateko kidea bada (Merkataritza Kodearen 42. artikulua definitzen duen bezala), alde batera utzita egoitza eta urteko kontu bateratuak formulatzeko betebeharra, negozio-zifraren zenbateko garbia kalkulatu da talde horretako sozietate guztiak aintzat hartuta, kontuan harturik egoki diren eliminazioak eta gaineratutakoak, kontabilitateko araudia aplikatuta. Irizpide hori bera aplikatuko da pertsona fisiko bat, bera bakarrik edo ezkontidearekin edo ahaide dituen beste pertsona fisiko batzuekin elkar hartuta (ahaideak lerro zuzenekoak nahiz albokoak izan, odol bidezkoak nahiz ezkontza bidezkoak, bigarren graduraino, bigarrena barne), Merkataritza Kodearen 42. artikulua aipatzen dituen kasuetako batean badago, bazkide diren beste entitate batzuekiko, alde batera utzita entitateen egoitza eta urteko kontu kontsolidatuak egiteko betebeharra.

Laugarrena. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunen kasuan, aintzat hartuko da Espainiako lurraldean dauden establezimendu iraunkor guztiei egotzi beharreko negozio-zifraren zenbateko garbia”.

Hamahiru. 160. artikulua.

“160. artikulua.

1. Honako hauek daude zerga honetatik salbuetsiak:

a) Nafarroako Foru Komunitatearen, Estatua-  
ren eta toki entitateen ibilgailu ofizialak.

b) Bulego kontsularren eta Espainian akreditazioa duten karrerako funtzionario kontsularren ibilgailuak, horiek beren herrialdeetako hiritarrak badira, kanpoan identifikatuak eta bai kopuruan bai graduan erreziprozitatearen baldintzarekin.

Era berean, Espainian egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak, bai eta haietako funtzionarioen edo estatutu diplomatikoa duten kideenak ere.

c) Anbulantziak eta osasun laguntza emateko zuzenean erabiltzen diren gainerako ibilgailuak, Espainiako Gurutze Gorriarenak eta DYA Elkartearenak.

d) Desgaitasuna duten pertsonak eramateko ibilgailuak, irabazi-asmorik gabeko erakundeen izenean matrikulatutakoak.

e) Egokitzapen bereziak dituzten ibilgailuak. Salbuetsirik egonen dira, halaber, ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa dutenen izenean matrikulatutako ibilgailuak eta, desgaitasunaz gain, ezaugarri hauetakoren bat badute:

a') Mugikortasun murriztua izatea, Desgaitasun maila aitortu, onartu eta kalifikatzeko prozedurari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren II. eranskinean jasotakoaren arabera.

b') Defizit kognitiboa, intelektuala edo nahasmentu mentala izatea.

c') Begirik hoberenean ikusmen-zolitasuna 0,1ekoa edo gutxiagokoa izatea leiar zuzentzaileekin, edo ikus-eremua 10 gradura edo gutxiagora murriztua.

d') Adingabea izatea.

Salbuespenak ibilgailu bat hartuko du pertsona bakoitzeko.

f) Garraio publikoari atxikitako hiri barneko autobusak, zerga ezartzen duen udalak edo udala, zerbitzu hori beste batzuekin elkartuta emateko, kide den toki entitateak emandako administrazio emakidaren araubidean.

g) Nekazaritzako Inskripzio Txartela duten traktore, atoi, erdi-atoi eta makinak.

2. 1. apartatuko e) eta g) letretan aipatzen diren salbuespenak baliatzeko, interesdunek eskatu beharko dute, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onura izateko arrazoia adieraziz. Toki entitateak salbuespena deklaratu ondoren, hala dela frogatzen duen agiri bat egingen da”.

Hamalau. 162.1 artikulua.

“1. Zerga honako kuota hauen arabera eskatuko da:

a) Turismo ibilgailuak:

- 8 zaldi fiskal baino gutxiagokoak: 20,88
- 8 zaldi fiskaletik 12ra bitartean: 58,72
- 12 zaldi fiskal baino gehiago eta gehienez 16: 125,25
- 16 zaldi fiskal baino gehiago: 156,63

b) Autobusak:

- 21 leku baino gutxiago: 146.12
- 21 lekutik 50era bitarte: 208.79
- 50 leku baino gehiago: 260.99

c) Kamioiak:

- 1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria: 73.15
- 1.000 kg-tik 2.999ra bitarteko karga erabilgarria: 146.12
- 2.999 kg-tik gora eta 9.999ra bitarteko karga erabilgarria: 208.79
- 9.999 kg. baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak: 260.99

d) Traktoreak:

- 16 zaldi fiskal baino gutxiago: 35,87
- 16 zaldi fiskaletik 25era bitarte: 71,72
- 25 zaldi fiskal baino gehiago: 143,27

e) Atoiak eta erdi atoiak:

- 1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria: 36,61
- 1.000 kg-tik 2.999ra bitarteko karga erabilgarria: 73.15
- 2.999 kg. baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak: 146.12

f) Bestelako ibilgailuak:

- Ziklomotorrak: 5,22
- 125 cc-ra arteko motozikletak: 5,26
- 125 cc-tik gora eta 250 cc-ra bitarteko motozikletak: 7,90
- 250 cc-tik gora eta 500 cc-ra bitarteko motozikletak: 25,80
- 500 cc-tik gora eta 1.000 cc-ra bitarteko motozikletak: 51,64
- 1.000 cc-tik gorako motozikletak: 103,27”

Hamabost. 170. bis artikulua gehitzea.

“170. bis artikulua. Aukerako hobariak.

Ordenantza fiskalek arautzen ahalko dute zergaren kuotaren ehuneko 95erainoko hobari bat, eguzki energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikora-ko sistemak ezartzen dituzten eraikuntza, instalazio edo obren alde. Hobari horren aplikaziorako, beharrezkoa izanzen da beroa sortzeko instalazioetan administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak egotea.

Hobariaren gainerako alderdi substantiboak eta formalak ordenantza fiskalaren bidez arautuko dira”.



Hamasei. 173.1 artikulua.

“1. Zerga honetatik salbuetsirik daude honako egintza hauen ondorioz gertatzen diren balio-igoerak:

a) Ezkontideek ezkontza-sozietateari egindako ondasun eta eskubide ekarpenak, haren alde eta haiek ordaintzeko egindako esleipenak, eta ezkontideei haien bien aktiboen ordainetan egiten zaizkienak.

b) Herentziaz, legatuz, ezkonsariz, dohaintzaz edo doako beste edozein titulu bidez aurrekoen, ondorengoan eta ezkontideen artean egiten diren eskualdaketak, mota guztietako ondasunenak.

c) Ezkontideen arteko edo seme-alaben aldeko ondasun eskualdaketak, deuseztasun, banaketa edo dibortzio kasuetan epaiak betetzearen ondoriozkoak, ezkontza araubide ekonomikoa edozein dela ere.

Nolanahi ere, aurreko a), b) eta c) letretan aipatzen diren negozio juridikoak gertatzen direnean, eta balio-igoera lotua baina salbuetsia dagoe-larik, ez dute etenik eraginen 175. artikuluan aurreikusitako hogeitazko epean. Higiezin horiek gero eskualdatzen direnean, ulertuko da lurren balio-igoera gertatu den urteen kopuruan ez dela etenik izan letra horietan aurreikusitako negozio juridikoen ondorioz. Era berean, 172.4 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ez da eskurapen-balioztat hartuko aipatutako negozio juridikoei dagokiena, beste egintza batzuegatik higiezinaren aurreko eskualdaketari dagokiona baizik.

d) Zortasun eskubide ororen eraketa eta eskualdaketa.

e) Ondasun eskualdaketak edo jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealeen eraketa edo eskualdaketa kostu gabekoa, Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean aurreikusitako zerga araubidea aplikatzekoa zaien entitateen aldekoa, edo Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legearen 4. artikuluan aipatzen den kultur mezenasgoaren onuradunak diren pertsonen eta entitateen aldekoa.

Letra honetan araututako salbuespenerako eskubidea izateko, beharrezkoa izanen da ondasun edo eskubide horiek 10/1996 Foru Legean jasotako entitateen berariazko xedea diren jardueri atxikitzea, edo 8/2014 Foru Legean jasotako pertsonen edo entitateek egindako proiektuei edo jardueri, baldin eta interes sozialaren deklarazioa

badute, Nafarroako Gobernuaren kulturaren esku-mena duen departamentuak emana”.

Hamazazpi. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, 175.2 artikuluan ezarritako gehieneko koefizienteak honako hauek izanen dira:

“Koefizientea	Sortzealdia
0,50	20 urte edo hortik gora
0,52	19 urte
0,14	18 urte
0,13	17 urte
0,06	16 urte
0,06	15 urte
0,06	14 urte
0,06	13 urte
0,06	12 urte
0,06	11 urte
0,06	10 urte
0,06	9 urte
0,06	8 urte
0,13	7 urte
0,30	6 urte
0,36	5 urte
0,28	4 urte
0,20	3 urte
0,11	2 urte
0,06	1 urte
0,06	Urtebetetik behera”

Hemezortzi. 179.c) artikulua, indargabetzea.

Hemeretzi. 180.c) artikulua, indargabetzea.

Hogei. 181.1.c) artikulua, indargabetzea.

Hogeita bat. 182.c) artikulua, indargabetzea.

Hogeita bi. 183.c) artikulua, indargabetzea.

Hogeita hiru. 200.3 eta 4 artikulua.

“3. Gastu aurrekontuko egituraren programen araberrako sailkapenak eta sailkapen ekonomikoak irizpide hauek beteko dituzte:

a) Programen araberrako sailkapenak hiru maila izanen ditu. Lehenbizikoa gastuaren arlokoa, bigarrena gastu politikakoa eta hirugarrena programa taldekoa. Sailkapen honi maila bat edo bi gehitzen ahalko zaizkio, programarako eta azpi-programarako, hurrenez hurren.

b) Sailkapen ekonomikoak hiru maila izanen ditu, lehenbizikoa kapitulukoa, bigarrena artikulua



koa eta hirugarrena kontzeptukoa. Sailkapen honi maila bat edo bi gehitzen ahalko zaizkio.

4. Aurrekontu aplikazioan, zeinen adierazpen zenbakitua aurrekontuko kreditua baita, gutxienez programen araberrako sailkapena eta sailkapen ekonomikoa sartuko dira.

Toki entitateak sailkapen organikoa erabiltzea erabakitzen badu, aurrekontu aplikazioan ere sartuko da.

Gastuen kontabilitate-kontrola aurrekontu aplikazioaren gainean eginen da eta kontrol fiskala, berriz, lotespen juridikoaren mailaren gainean, 208. artikulua ezarri moduan”.

Hogeita lau. 208.2. eta 3 artikulua.

“2. Aurrekontuaren exekuzio oinarrietan ezartzen ahalko da gastuetarako kredituen lotespena toki entitateak bere kudeaketa egokirako beharrezkotzat jotzen dituen garapen mailekin, garapena programen araberrakoa, ekonomikoa edo organikoa dela.

3. Aurreko apartatuan jasotzen den ahalmena erabiltzen duten toki entitateek, betiere, errespetatu beharko dituzte muga hauek lotespen mailei dagokionez:

a) Programen araberrako sailkapenari dagokionez, gastu arloa.

b) Sailkapen ekonomikoiari dagokionez, kapituluua”.

Hogeita bost. 210 bis artikulua gehitzea.

“210.bis artikulua.

1. Nafarroako toki entitateek hasiera ematen ahalko diote gastu espedienteen tramitazioari dagokion aurrekontu kreditua izan aurretik ere, zein ekitalditako aurrekonturi egotziko zaizkion, ekitaldi horretan berean nahiz aurrekoan.

Espedientearen hasierari erantsi beharko zaio nahitaez kontu-hartzaitzaren txosten bat, zeinaren berariaz jasoko baita gastua aurreratua dela eta kreditu egokia eta nahikoa izatearen baldintza etengarriaren menpe dagoela.

2. Edozein kasutan, administrazio klausula partikularren agiri edo baldintzetan, dirulaguntzen deialdietan edo, gastuaren izaeraren araberrera, beharrezkoak diren agirietan berariaz jasoko da prebentzio hau: gastua, zeinaren tramitazioa aurreratzen ari den, edo, kasua bada, baita adjudikazioa edo ebazpena ere, etenda egonen dela kasuko betebeharrak dagokion ekitaldian finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa izan arte”.

Hogeita sei. 213.1 artikulua.

“1. Aparteko kredituak eta kreditu-gehirriak baliabide hauek batekin edo batzuekin finantzatzeko ahalko dira:

a) Diruzaintzako gerakin likidoaren kargura.

b) Ekitaldian, aurreikuspenen araberrera, jasoko diren diru-sarrera berriekin edo aurrekontu arruntan aurreikusitakotik gora guztira egiaz bildu diren diru-sarrerekin.

c) Indarreko aurrekontuko konprometitu gabeko beste aurrekontu aplikazio batzuetako kredituak baliogabetuz edo baja emanaz, ulertzen denean horien zuzkidurak murriztu daitezkeela dagokion zerbitzuari nahasmendurik eragin gabe”.

Hogeita zazpi. 213. artikulua, 4. apartatua gehitzea.

“4. Salbuespen gisa, aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa onetsi arte, aurreko ekitaldian erabili gabeko baliabideekin finantzatzeko ahalko dira gastu berriei edo handiagoei erantzuteko behar diren aldaketak. Nahitaezkoa izanen da kontu-hartzaitzaren txostena egiazko finantzaketa erabilgarriari buruz”.

Hogeita zortzi. 214.2. eta 3 artikulua.

“2. Aurrekontuaren exekuzio oinarrietan hala ezarrita dagoenean, kreditu horiek emateko osoko bilkurak hartutako hasierako erabakia jendaurrean jarriko da Korporazioko iragarki-taulan hamabost egun naturaleko epean, bizilagunek edo interesdunek egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak edo alegazioak aurkez ditzaten.

Epe hori iraganik, eta erreklamazio edo alegaziorik egin ez bada, hasierako onespren erabakia behin betikoa dela ulertuko da, eta jendaurrean egoteko epea iraganik hartuko du indarra.

Erreklamazioak edo alegazioak aurkezten badira, berriz, osoko bilkurak berariaz erabaki beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenaz eta proposatutako aldaketaren behin betiko onesprenaz, zeinak indarra hartuko baitu behin betiko testua toki entitatearen iragarki-taulan argitaratu ondoren.

Exekuzio oinarrietan halako aurreikuspenik ez dagoen kasurako, osoko bilkurak espedienteak tramitatu eta onetsiko ditu aurrekontuetarako bete behar diren tramite eta betebeharrak berdinekin (informazioa, erreklamazioa eta publizitatea).

3. Aparteko kredituak edo kreditu-gehirriak emateko xedearekin toki entitateek hartzen dituzten erabakiak, hondamendi publikoaren edo antzeko kasuetan, betearazleak izanen dira bereha-

la, ukatu gabe haien kontra erreklamazioak sustatzeko aukera, zeinak aurkeztu eta hurrengo zortzi eguneko epean bideratu beharko baitira, eta ezetsizat hartu erreklamazioaren egileari ebazpenik ez bazaio jakinarazten epe horretan”.

Hogeita bederatzia. 216.2. eta 3 artikulua.

“2. Gastu arlo desberdinen arteko kreditu transferentziak onestea Korporazioaren osoko bilkuraren eskumena izanen da kasu guztietan, salbu eta bajek eta altek langileen arloko kredituei eragiten dietenean.

3. Artikulu honetan aipatzen diren aurrekontu aldaketak, osoko bilkuraren eskumenekoak direnean, foru lege honen 214.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera tramitatuko dira”.

Hogeita hamar. 217. artikuluar 3. apartatua gehitzea.

“3. Gastu arlo desberdinen arteko kreditu transferentziak egiteko xedearekin, toki entitateek hartzen dituzten erabakiak, hondamendi publikoaren edo antzeko kasuetan, betearazleak izanen dira berehala, ukatu gabe haien kontra erreklamazioak sustatzeko aukera, zeinak aurkeztu eta hurrengo zortzi eguneko epean bideratu beharko baitira, eta ezetsizat hartu erreklamazioaren egileari ebazpenik ez bazaio jakinarazten epe horretan”.

Hogeita hamaika. 219. artikulua.

“5. Halere, diru-sarrera atxikiarekin finantzatutako proiektuak babesten dituzten kreditu gerakinak nahitaez sartu beharko dira, eta ez zaizkie aplikatuko ekitaldi kopuruari dagokion mugaren arauak, salbu eta uko egiten bazaio gastuaren exekuzioari hasiera edo jarraipena emateari, osorik nahiz zati batean, edo egitea ezinezkoa bada. Era berean, aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa onetsi arte iragaten den denbora epean sartzen ahalko dira”.

6. Salbuespen gisa, eta aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa onartu arte, artikulua honetako 1. apartatuan deskribatutako erabili gabeko kredituak txertatu ahal izanen dira, besteak beste, aurreko ekitaldian erabili gabeko baliabideekin finantzatuta. Nahitaezkoa izanen da kontu-hartzailetzaren txostena egiazko kreditua egoteari buruz eta finantzaketa erabilgarriari buruz”.

Hogeita hamabi. 227.2 artikulua.

“2. Kontu-hartzailetzak txostena egin ondoren, toki entitateko buruak onetsi beharko du, martxoaren 31 baino lehen, toki entitatearen eta haren menpeko erakunde autonomoen aurrekontuen liki-

dazioa, bigarren kasu horretan organo eskudunak ere onetsi ondoren”.

Hogeita hamahiru. 227. artikuluar 3. apartatua gehitzea.

“3. Behar bezala onetsitako likidazio hori igorriko diote toki entitateek Foru Komunitateko Administrazioari, onetsi eta hamabost egun balioduneko epean”.

Hogeita hamalau. 242.1 artikulua.

“1. Toki entitateko buruak egoera-orriak eta kontuak osatu beharko ditu dagokien ekitaldiaren ondoko ekitaldiko apirilaren 30a baino lehen. Erakunde autonomoenak, merkataritza sozietateenak (horien kapitala toki entitatearena denean osorik edo zati handienez), eta toki entitatearen menpeko beste entitate batzuenak, hasiera batean horietako organo eskudunek eman eta proposatuak, epe berean igorriko zaizkio toki entitateari”.

Hogeita hamabost. 242. bis artikulua gehitzea.

“242 bis artikulua.

1. Nafarroako toki entitateen eta haien menpeko erakundearen aurrekontuen prestaketa, onespina eta exekuzioa, bai eta haien gastu eta diru-sarrerari eragiten dieten gainerako jarduketak ere, aurrekontu egonkortasuna eta finantza jasangarritasuna oinarri hartuta beteko dira, Foru Komunitateko Estatuko eta Europako araudiarekin bat.

2. Gastu araua aplikatzeko, Kontu Nazionalen eta Eskualdeetako Europako Sistemaren arabera definitutako gastu ez-finantzarioen urtetik urterako aldea ez da izanen Espainiako ekonomian epe ertainean barne produktu gordinak duen erreferentziako hazkunde-tasa baino handiagoa. Kalkulu horretatik kanpo utziko dira zorraren interesak eta Europar Batasunetik, beste administrazio publiko batzuetatik, hirigintza kudeaketatik edo bestelakoetatik datozen funts finalistaren bidez finantzatutako gastu-zatia”.

Hogeita hamasei. 242 ter artikulua gehitzea.

“242. ter artikulua.

1. Ekitaldia ixtean aurrekontu egonkortasunaren helburua, zor publikoarena edo gastu araua betetzen ez bada, ez-betetzearen erantzulea den Administrazioak ekonomia eta finantza plan (EFP) bat prestatuko du, urte horretan eta hurrengoan helburuak edo gastu araua betetzeko bide eman duena.

2. Aurrekontu egonkortasunaren helburuaren ez-betetzea gertatzen bada gastuak diruzaintzako gerakinarekin finantzatu direlako, ekonomia eta finantza planaren orde, kontu-hartzailetzako

lanak betetzen dituen organoak komunikazio bat igorriko dio osoko bilkurari horren berri emanez, ez-betetzeari eta toki korporazioaren finantza jasangarritasunari buruzko analisi eta ebaluazioarekin batera. Gauza bera egingen da ez-betetzea gertatzen bada gastu proiektuak exekutatu direlako urteko finantzaketa desbideratze negatiboekin.

3. Gastu araua betetzen ez duten entitateen kasuan, plana egin ordez, kontu-hartzailletza lanak betetzen dituen organoak komunikazio bat igortzen ahalko dio osoko bilkurari, entitatearen finantza jasangarritasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatzen duena, baldin eta ez-betetzea gertatu den ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa egiten bada gastu orokorretarako diruzaintza gerakina eta aurrezki garbi positibo izanda, eta betetzen badira hurrengo ekitaldirako defizitaren eta zor publikoaren helburuak.

4. Artikulu honen 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako kasuetan, osoko bilkuraren akta, kontu-hartzailletzako organoaren txostena eta horien euskarri den gainerako dokumentazioa finantza tutoretzako organoari igorriko zaizkio; organo horrek, dokumentazioa jaso eta 30 eguneko epean, beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarria eskatzen ahalko du, bai eta neurri osagarriak har daitezela ere, horien artean, besteak beste, ekonomia eta finantza plan bat egitea, toki entitatearen finantza jasangarritasunaren berme gisa. Epe hori iragaten bada finantza tutoretzako organoak berriazko ebazpenik eman gabe, ulertuko da ez dela beharrezkoa neurri osagarriak hartzea”.

#### Hogeita hamazazpi. 248.2 artikulua.

“2. Osoko bilkurak, toki entitateko buruak proposatuta eta kontu-hartzailletzako organoak txostena egin ondotik, erabaki dezake alde aurreko kontu-hartzailletza alderdi hauek egiaztatzea mugatzea:

a) Aurrekontu kreditu aski baden, proposatzen den kreditua egin edo hartu nahi den gastu edo betebeharrerako egokia den, eta, urte anitzeko gastu konpromisoak hartuz gero, 224. artikuluan eta hurrengoetan agindutakoa betetzen den.

b) Betebeharrak edo gastuak organo eskudun batek proposatzen dituen.

c) Kudeaketa prozesuan duten eragina dela-eta, osoko bilkurak zehazten dituen beste alderdi batzuk.

Kontu-hartzailletzako organoak egoki iruditzen zaizkion ohar osagarriak egiten ahalko ditu, baina horiek ez dute inola ere etenik ekarriko espedienteen tramitazioan”.

Hogeita hemezortzi. 248. artikuluar 5. apartatua gehitzea.

“5. Nafarroako Gobernuak erregelamenduz ezarriko du zein kasutan erabiltzen ahalko duten toki entitateek barne kontrol erraztuko araubide bat, bai eta zein diren haren ezaugarriak ere”.

**Lehen xedapen gehigarria.** Toki entitateentzako konpentsazioak, ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformaren eraginez sarrerak galitzeagatik.

Toki entitateen finantza nahikotasunaren printzipioa babesteko eta ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformaren ondorioz sarreretan izan dezaketen jaitsiera konpentsatzeko, Nafarroako udalek ekarpen bat jasoko dute toki ogasunek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsetik.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Nafarroako Administrazio Auzitegiaren epaien edo ebazpenen ondoriozko zorrak.

1. 2021eko ekitaldian, Nafarroako toki entitateek, salbuespenez, epe luzerako kreditu-eragiketak hitzartzen ahalko dituzte Nafarroako Administrazio Auzitegiaren epaien edo ebazpenen ondoriozko zorren ordainketa finantzatzeko, epai edo ebazpen horiek eragiten diotenean toki entitateari edo haren menpeko entitateei edo toki entitatearen partaidetza dutenei, entitate horiek Europako Kontuen Sistemaren definizio eta mugaketaren arabera administrazio publikoen sektorean sailkatuta egon nahiz ez.

2. Xedapen honen babesean hitzartzen diren zorpetze eragiketetarako, finantza tutoretzaren arloan eskumena duen organoak baimena eman beharko du aurretik, eta aurreko 1. apartatuan aipatzen diren zorrak ordaintzeko baizik ez dira erabiliko.

3. Xedapen honetaz baliatzen den toki entitateak finantza saneamendurako plan bat onetsi eta finantza tutoretzako organoari igorri beharko dio baimen eskaerarekin batera; plan horretan aztertuko da entitatearen gaitasuna egungo eta etorkizuneko ordainketa betebeharre aurre egiteko, eta haren konpromisoa jasoko da, horretarako beharrezkoak diren finantza arloko jasangarritasun neurriak hartzeko.

4. Toki entitateko kontu-hartzailletza organoak saneamendu planaren betetzeari buruzko txosten bat eman beharko du urtero, eta toki korporazioko osoko bilkurari aurkeztu, jakinaren gainean egon dadin, bai eta finantza tutoretzaren arloko eskumena duen organoari igorri ere.

Planaren ez-betetzere bat gertatuz gero, toki entitateak ezin izanen du epe luzeko zorpetze-eragiketarik hitzartu edozein inbertsio mota finantzatzeko. Horrez gain, finantza tutoretzaren arloko organo eskudunak aparteko neurriak proposatzen ahalko ditu, ukitutako toki entitateek bete beharrekoak.

**Azken xedapenetako lehenbizikoa.** Toki ogasunek transferentzia arrunten eta beste laguntza batzuen kontzeptuetan Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2020. urterako ezartzen dituen Foru Legearen aldaketa.

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak izateko, 15. artikulua gehitzen zaio Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2020rako ezartzen dituen otsailaren 27ko 3/2020 Foru Legeari; hau da haren testua:

“15. artikulua. Nafarroako udalenzako konpentsazioa, ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformaren eraginez sarrerak galtzeagatik.

Nafarroako udalek toki ogasunek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren ekarpen bat jasoko dute, ekonomia-jardueren gaineko

zergaren erreformak diru-bilketan eraginen duen galeraren konpentsazio gisa.

Ekarpenaren zenbatekoa urtero ezarriko du Ekonomia eta Ogasun Departamentuak, ekonomia-jardueren gaineko zergaren erregistroko datuetan oinarriturik, aurreko zergaldiari dagokionez.

Ekarpenaren zenbatekoa, 5.000 biztanleko edo gutxiagoko udalerrri bakoitzarentzat, hau izanen da: ekonomia-jardueren gaineko zergan, salbuespenik egon ez balitz, zergaldian eta negozio-zifra-zenbateko garbia 1.000.000 euro baino txikiagoa duten zergadunengandik jasoko zituzkeen tributu kuoten ehuneko 100. 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrien kasuan, ekarpena kuota horien ehuneko 95 izanen da.

Tributu kuota horiek ezartzeko, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 154. artikuluan aipatzen diren indizeak izanen dira udal bakoitzak 2020ko ekitaldian aplikatu dituenak”.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.



## **Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.**

### *EKONOMIA ETA OGASUNEKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.3 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena. Proiektua hori 2020ko azaroaren 13ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **IRIZPENA**

Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak 2020ko abenduaren 18an eta 21ean egindako bileran onetsia.

### **Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Foru lege honen xedea da ondorengo arau hauek aldatzea: Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen Foru Legea, Nafarroako Kooperatiben Zerga-araubideari buruzko Foru Legea, Ekonomia-jardueren gaineko zergaren edo lizentzia fiskalaren tarifak eta jarraibidea onesten dituen Foru Legea, eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea.

Tributazioan egiten den edozein aldaketaren lehen helburua izan behar da justizia hobetzea alor horretan, eta zerga iruzurraren aurka borrokatzea. Horretarako, zenbait neurri sartu dira, zerga-kontrolerako jarduerak errazteko eta zerga iruzurrari aurrea hartzeko, batez ere diru-bilketaren aldiari. Bigarrenik, Europako araudiak ezartzen dituen xedapenak betetzeko asmoz, 2016/1164 (EB) Zuzentaraua, uztailearen 12koa, Foru Komunitateko tributuen gaineko ordenamendura ekartzeko prozesua osatzen da; izan ere, zuzentarau horrek barne merkatuaren funtzionamenduan

zuzenean eragiten duten zerga-saihestearen praktiken aurkako arauak ezartzen ditu (zerga-saihestearen aurkako zuzentaraua edo ATAD). Zuzentarauaren kontuan hartuzkoetan ezarritakoaren arabera, beharrezkoa da bermatzea zerga ordaintzen dela mozkinak eta balioa sortzen diren lekuetan, gehiegizko zerga-plangintzaren aurkako batez besteko babes maila indartzea, eta barne merkatuko zerga-oinarrien higaduraren eta mozkinak hortik kanpo lekualdatzearen aurkako arauak ezartzea. Helburu horiek betetzeko asmoz, Tax Exit (irteera zerga) delakoari buruzko xedapenak sartzeko dira, baita nazioarteko zerga gardentasunari buruzkoak ere. Azkenik, gaurko testuinguruan, ezin da ahaztu krisi ekonomikoaren egoeran gaudela koronabirusak (Covid-19a) eragin duen osasun krisiaren ondorioz; horregatik, krisiak zenbait arlotan eragin dituen ondorioak leuntzeko neurriak ere sartzeko dira; are bereziki ukituak izaten ari diren pertsona batzuegan eragin dituen ondorioak leuntzeko neurriak ere.

Proiektu hau egitean aintzat hartu dira arauketa onaren printzipioak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 129. artikuluan ezarriak. Horrela, foru lege honek, lehen adierazi diren arrazoiengatik, beharizanaren eta eraginkortasunaren printzipioak betetzen ditu: justifikatuta dago interes orokorraren arrazoiengatik, hainbat zerga-arau aldatzen duenez; lortu nahi diren helburuen identifikazio argian (aurreko paragrafoetan definitutakoak) oinarritzen da; eta, azkenik, helburuok lortzeko tresna egokia da, zerga arloan lege erreserbak agintzen baitu, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren 11. artikuluan ezarrita.

Foru lege honek beste foru lege batzuen zenbait artikulua aldatzen ditu ahalik eta zehaztasun handienarekin, eta, beraz, proportzionaltasunaren printzipioa ere betetzen da. Horregatik, segurtasun juridikoaren printzipioa ere betetzen da. Izan ere, gainerako ordenamendu juridikoarekiko koherentea eta pertsona nahiz enpresentzako egonkorra, aurreikusgarria eta ziurra izatea zehatz-mehatz neurtu dira, oreka lortze aldera legegilearen borondatearen eta gainerako errealitate juridikoaren artean, jurisprudentzia berriena ere barne dela. Foru lege honekin lortu nahi diren zenbait helburu betetzeko, oso kontuan hartu da sinpleta-



sun eta efizientzia printzipioa ere, zeinak xede baitu karga administratibo ez-beharrezkoak edo osagarriak saihestea eta baliabide publikoen kudeaketa arrazionalizatzea.

Foru legea, hori prestatzeko prozedura eta gainerako arauetan dituen ondorioak Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta nafarroa.eus webgunean argitaratzeak zaintzen du gardentasun eta irisgarritasun printzipioak errespetatuak izatea.

Amaitzeko, kontuan izan da gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasun printzipioa, eta aldaketak egin dira, arauetan hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabiltzeko.

Foru legearen egitura hauxe da: sei artikulua, lau xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta hiru azken xedapen.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergaren esparruan zenbait aldaketa egiten dira.

Kooperatibako bazkide langileek borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitateetatik jasotzen dituzten prestazioen zerga-salbuespena deklaratzeko, prestazio horiek jasotzen direnean Gizarte Segurantzak emandako ezintasun iraunkor absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik prestazioak jasotzen diren egoera berean. Horrela, prestazio hauen zerga-tratamendua Gizarte Segurantzaren prestazioen tratamenduarekin parekatzen da, edo langile autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian sartuta ez dauden profesionalak gizarte-aurreikuspeneko mutualitateetatik jasotako prestazioen tratamenduarekin.

Halaber, bizitzeko gutxieneko errenta, maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege-dekretuak ezarria, salbuetsita dagoela deklaratzeko, Errenta Bermatuan indarrean dagoen salbuespenarekin bat eginez.

Azkenik, prestakuntza ekintzetara doazen lan-gabetuak ez kaltetzeko asmoz, bekak, garraiorako, mantenurako eta alojamendurako laguntzak, eta familia eta lan-prestakuntza bateratzeko laguntzak, uztailaren 3ko 694/2017 Errege Dekretua garatzen duen martxoaren 28ko TMS/368/2019 Aginduaren IV. kapituluaren ezarritakoak, salbuetsita daudela deklaratzeko. Errege dekretu horren bidez, garatu zen irailaren 9ko 30/2015 Legea, zeinaren bidez arautu baitzen Lan arloan enplegurako Lanbide Heziketaren sistema, administrazio eskudunen prestakuntza eskaintzari eta haren finantzazioari dagokionez, eta ezarri baitziren hura finantzatzeko dirulaguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak.

Lan etekinaren alorrean, diruzkoak ez diren ordainsariei edo gauzako ordainsariei buruzko artikuluen egitura aldatzen da. 1. apartatuan gauzako ordainsarien kontzeptua ezartzen da, eta zerrenda ireki bat ematen. 2. apartatuan beste ordainsari-kontzeptu batzuk sartzen dira, 1. apartatuan ematen den gauzako ordainsarien definizioan sartzen ez direnak, xede partikularretarako erabileraren baldintza faltako litzatekeelako; argi utzi nahi da, ordea, horiek sekula ez direla gauzako ordainsaritzat hartuko. Azkenik, 3. apartatuan salbuetsita dauden gauzako ordainsariak jasotzen dira, hau da, gauzako ordainsaritzat hartzen ahal diren ordainsari-kontzeptuak, baina, halere, legegileak tributaziotik salbuetsi nahi izan dituenak. Apartatu honetan biltzen dira ordainsari batzuk, aurreko legediaren arabera "gauzako ordainsaritzat hartzen ez zirenak". Ordainsari-kontzeptuen tributazioa aldatzen ez bada ere, egiten den aldaketak bi arrazoi nagusi ditu: bat kontzeptuala da, teknikoki zuzenagoa delako ezartzea gauzako zenbait ordainsari salbuetsita daudela "gauzako ordainsaritzat ez hartzea" baino, izan badirelako; bigarrena zerga-kontrolari dagokio, nahitaezkoa delako salbuetsita dauden lan ordainsariei buruz (diruzkoak edo gauzazkoak) informazioa; eta nahitaezotasun hori ez da hain argi gelditzen ordainsariok "ez badira gauzako ordainsaritzat hartzen". Horrela lan-errenta guztiei buruzko informazioa lortzen da, diruzkoak izan edo gauzazkoak izan, zergapekoak edo salbuetsiak, eta hobeki koordinatzen da beste zerga-administrazioekiko informazio trukea.

Ekitatea areagotzeko asmo etengabe hori edozein zerga sistemaren funtsezko helburua da, eta, horregatik, ahalmen ekonomikoak izan behar du zerga-betebeharrak banatzeko benetako neurria. Alde horretatik, egokitzen jo da zenbatespen objektiboaren araubidea kentzea, jarduera enpresarial eta profesionalen etekin garbia zehazteko, helburu honekin: pertsona fisikoa den enpresariaren tributazioa bere jardunaren egiazko etekinera hurbiltzea. Zenbatespen objektiboaren araubidearen ordez, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, zuzeneko zenbatespen bereziaren araubidea jarriko da, zeinean abiapuntua baita jarduera ekonomikoak sortutako diru-sarrerak, eta zeinean subjektu pasiboaren eragiketa-kopurua eta jardueraren ezaugarriak aintzat hartuz, ezartzen baita gastu jakin batzuk ez direla zerga-kenkaria aplikatzeko modukoak, eta, horren ordez, subjektu pasiboak etekin garbi positiboaren kenkari-ehuneko bat aplikatuko duela.

Gizarte-aurreikuspeneko sistemetarako enpresa ekarpen eta kontribuzioengatik zerga-oinarriaren zati orokorraren murrizketarako gehieneko

mugei dagokienez, 2.000 eurora jaitsi da ekarpenei dagokien muga orokorra, eta 5.000 eurora 50 urte baino gehiago dutenen ekarpenaren muga; beste alde batetik, 5.000 eurora igo da partaideei egotzitako enpresa kontribuzioetarako ezarritako muga bereki eta independentea.

Kuota diferentzialaren kenkarietarako dagokienez, ekonomia-jardueren gaineko zergarengatik ordaindutako kuoten kenkaria desagertzen da. Aldaketa honen arrazoiak da 1.000.000 euro baino gutxiagoko negozio-zifraren zenbateko garbia duten subjektu pasiboek ez dutela ordaindu beharko ekonomia-jardueren gaineko zerga 2021eko urtarilaren 1etik aurrera.

Gazteei alokatzeko aukera gehiago emateko xedearrekin, ezartzen da emantzipatzeko alokatzeagatik kenkariaren (Emanzipa) ordainketa hileroko eginen dela, eta ez hiru hilabetez behin, orain arte bezala.

Halaber, malgutu egiten dira, 2021ean bakarrik, emantzipatzeko alokatzeagatik kenkaria lortzeko baldintzak, kenkari hori eduki ahal dezaten, baita ere, aldi baterako enplegu-erregulazio espedientean (ABEEE) daudenak edo langabezian daudenak; baita etxebizitza eskuratzeko errentamenduagatik kenkariak lortzeko baldintzak ere, etxebizitza babestua eskatzeko erroldan 2020ko abenduaren 31 baino lehen sartuta zeuden familiak kenkaria lortu ahal dezaten, dela errentamenduaren modalitatean, dela erosteko aukera duen errentamenduan; halaber, kenkari hori lortu ahal dezaten aipatu eguna baino lehen babes ofizialeko etxebizitza baten errentamendua zeukatenean, administratiboki bisatutako kontratuekin, nahiz eta antzintasuneko urtebeteko baldintza ez bete.

Denbora-egozpenerako arau bereziak ezartzen dira, Espainiako Landa Garapenerako Esparru Nazionalen ezarritako laguntza publikoetarako dagokienez, nekazari gazteen lehen instalaziorako. Laguntza hauek ez dira gehiago lotzen instalaziorako inbertsio eta gastuekin; orain baldintza da zuzenean lotuta izatea enpresa plan baten garapenarekin. Horrek esan nahi du kapitaleko dirulaguntzak izateatik dirulaguntza arruntak edo ustiatzekoak izatera pasatu direla; horregatik, onuradunak dirulaguntza egotzi beharko lioke jasotzen duen zergaldian, horrek dakarren zerga-oinarriaren gehikuntzarekin eta pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren tarifa progresiboaren aplikazioarekin. Nafarroan horrek dakarren inpaktua oso handia ez bada ere, aipatu laguntza horien kobrantza bi urtetan zatitzen delako, ezartzen da, Estatuko araudian bezala, laguntzak laur-

denetan egozten ahalko direla, jasotzen diren zergaldian eta ondorengo hiruretan.

Laguntza hauek jarduera ekonomikoaren etekin-tzat hartuko dira jasotzen dituenak bere nekazaritza jarduera egiten duenean pertsona fisiko bezala, eta ondare-gehikuntzat erabiltzen direnean nekazaritzako sozietate-enpresen kapitaleko partaidetza bat eskuratzeko. Bi kasuetako edozeinetan laurdenetan egozten ahalko dira.

Beste alde batetik, hartzaileak inbertsioaren arriskua bere gain hartzen duen bizi-aseguruei dagokienez, eskatu beharreko baldintzak egokitu dira, denbora-egozpenaren arau berezia ez dadin aplikatu aseguru mota hauetan, aseguru entitateei aplikatzen zaizkien araudietan egin diren azken aldaketen ildotik. Aseguruei buruzko gaurko araudiak ez duenez arautzen dibertsifikazio eta sakabanatze-muga berariazkorik, eta aseguru entitateen inbertsioak azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuaren 89. artikuluan arautzen direnez, hau da, Aseguru eta berraseguru entitateen antolamenduari, gainbegiratzeari eta kaudimenari buruzko Errege Dekretuan, bidezkoa da orain arte indarrean egon diren baldintzak kendu, eta haien ordez errege dekretuak jarri.

Azkenik, informatzeko betebeharrak sartu dira, zerga-kontrola indartzeko asmoz.

Alde batetik, kooperatibak behartzen dira ekarpen sozialak eskualdatzearen edo itzultzearen ondoriozko errentei buruzko informazioa ematera.

Beste alde batetik, beste bi informazio-betebehar berri ezartzen dira, diru birtualak edukitzeari buruzkoa bata, eta haiekin egindako eragiketei buruzkoa bestea.

Horrela, diru birtualen titularrek daukaten saldoari buruzko informazioa eman beharra sartzen da, horrelako dirua eduki eta erabiltzeko bidea hirugarrenei ematen dieten pasahitz kriptografiko pribatuak gordetzeko zerbitzuak ematen dituztenentzako, aipatu dirua aldatzeko zerbitzuak ematen dituztenak barne, aldatzekoaz gain dirua edukitzeko zerbitzua ere ematen badute.

Era berean, pertsona edo entitate horientzat berentzat, esku hartzen duten diru birtualaren gaineko eragiketei buruzko informazioa (eskuratzea, eskualdatzea, trukea, transferentzia, kobrantzak eta ordainketak) emateko betebeharrak ezartzen da. Betebehar hori bera daukate diru birtual berrien hasierako eskaintzak egiten dituztenek, eta diru birtualaren eta legezko diruaren arteko trukeak, edo zenbait diru birtualen artekoak egiten dituztenek, edo horrelako eragiketetan edozein modutan artekari aritzen direnek.

Sozietateen gaineko zergaren aldaketa garrantzitsuenak Kontseiluaren 2016ko uztailaren 12ko 2016/1164 (EB) Zuzentarauaren transposizioarekin lotuta daude. Zuzentarau horren bidez, barnermerkatuaren funtzionamenduan zuzenean eragiten duten zerga-saihestearen praktiken aurkako arauak ezartzen dira (ATAD Zuzentaraua). Zuzentarau hori Europar Batasunean (EB) tributazio bidezkoagoa, errazagoa eta eraginkorragoa lortzeko Europako Batzordearen neurri sortaren barruan dago. Bereziki, ATAD zuzentarauaren 5. artikuluan ezarritakoaren transposizioa egiten da, irteera zergari buruzkoa, eta 7. eta 8. artikuluetan ezarritakoaren transposizioa, atzerriko sozietate kontrolatuei buruzkoa.

Irteera zergak bermatzen du ezen, zergadun batek aktibo batzuk edo zerga-egoitza estatu baten zerga jurisdikziotik kanpo aldatzen dituenean, estatu horrek zergapetuko duela bere lurraldean sortutako edozein gainbalioaren balio ekonomikoa, gainbalio hori gauzatu ez bada ere.

Bestalde, atzerriko sozietate kontrolatuei buruzko arauak (nazioarteko gardentasun fiskalaren araubidea Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen terminologian), aukera ematen dute zerga maila baxuko filial kontrolatu baten edo establezimendu iraunkor baten errenta sozietate nagusiari berriz esleitzeko.

Bi arau horiek dagoeneko badaude foru araudian, baina aldatu egin behar dira beren edukiak bat egin dezan ATAD zuzentaruaren ezarritakoarekin.

Tax Exit edo irteera zergari dagokionez, baldin eta egoitza aldaketa Europar Batasuneko beste estatu batera edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioaren parte den hirugarren herrialde batera egiten bada, irteera zergaren ordainketaren gerorapena ezartzen zen, zergadunak hala eskatuz gero, hirugarrenei ukitutako ondare-elementuen eskualdaketa egin arte. Hala ere, kasu horietan zuzentaruak aurreikusten du zergadunak eskubidea duela irteera zergaren ordainketa zatikatzeko bost urtean zehar, eta, era berean, arau osagarri jakin batzuk ezartzen ditu zatikatze hori eskatzen denerako; zatikatze hori da foru araudian sartu dena, geroratzea ordezkatzeko.

Gainera, irteera zerga ordaintzea eragin duen gainbalioa geroago Europar Batasunaren barruan zergapetzen bada, zergapetze bikoitza saihesteko, ATAD zuzentaruak ezartzen du aktiboan, egoitzaren edo jardueraren aldaketa hartzen duen Europar Batasuneko estatuak onartu behar duela irteerako estatuak zerga-ondorioetarako zehaztu

duen balioa, ez bada balio horrek ez duela islatzen merkatu-balioa, erabateko lehiaren printzipioan oinarritutakoa; erregulazio hau ere sartu da foru araudian.

Nazioarteko zerga gardentasunari dagokionez, aipatu araubidea aldatzen da, sartzeko, nazioarteko zerga gardentasuna aplikatzeko ondorioetarako, atzerriko establezimendu iraunkorretan lortutako errentak, baita errentamendu finantzarioen eragiketetatik eratorritakoak edo aseguruaren eta bankuen jardueretatik eta beste hainbat jarduera finantzariotatik eratorritakoak ere. Aldaketa hauek egiten dira, halaber, nazioarteko zerga gardentasuna arautzen denean pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan.

Kuotaren kenkariaren eremuan, aldatu egiten dira ekoizpen zinematografikoetan eta ikus-entzunezko serieetan egindako inbertsioagatikoen kenkaria eta enplegua sortzeagatikoen kenkaria.

Ekoizpen zinematografikoetan eta ikus-entzunezko serieetan egindako inbertsioengatikoen kenkariari segurtasun juridiko handiagoa emateko, kenkariaren oinarria aldatzen da, eta ikus-entzunezko lanaren kostua aipatzen da, film baten kostuaren eta ekoizlearen inbertsioaren aitortpena arautzen duen abenduaren 18ko ECD/2784/2015 Aginduaren arabera. Horrela argi gelditzen dira kenkariaren oinarrian sartzen ahal diren kostu kontzeptuak, Baita oinarrian sartzeko gastuak zer alditan egin behar diren ere. Horrela, kenkariaren oinarrian sartuko dira, besteak beste, ekoizleak kopia estandarra edo master digitala lortu arte egindako gastuak, finantza gastu jakin batzuk eta publizitate eta sustapen gastuak, filma egitearen kostuaren % 40ko mugarekin.

Gainera, bi prozedura ezartzen dira, zerga-arloan eskumena duen departamentuko titularraren foru aginduaren bidez garatuko direnak: bata, kenkaria aplikatu ahal izateko baldintzak aldeztetik baliozkotzekoa, eta, bestea, eragindako kostuak ondoren justifikatzeko, kenkariaren oinarria zehazteko. Pelikula amaitu eta gero, Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuak (ZIAI-ICAA) emandako kostuaren aintzatespenaren ebazpenean oinarritua, eta Nafarroan egin diren gastuetan oinarritua, Kultura Zuzendaritza Nagusiak ebazpen bat emanen du, zeinean zehaztuko baita kenkariaren oinarriaren zenbatekoa. Aplikatutako kenkaria handiagoa bada ebazpenean ezartzen den kenkariaren oinarriaren arabera zehaztuko baina, zergadunak kenkaria erregularizatu beharko du Kulturaren ebazpena jakinarazi den zergaldiari dagokion autolikidazioan.

Enplegua sortzeagatiko kenkaria errazteko asmoz, kenkaria finkatzeko betebeharrak bat kentzen da, zehazki plantillei eusteko betebeharrak. Gainera, soldataren gaineko mugak ezarri izanak, eta sortzen den enplegua gizonezkoentzat, emakumezkoentzat edo desgaitasuna dutenentzat den, kenkariaren zenbatekoa ezberdin izateak ikaragarri zaildu dute kenkariaren kalkulua, eta batez ere ondorengo erregularizazioa, plantillari eusteko betebeharrak betetzen ez den kasuetan. Horrek guztiak hutsak sortzen ditu kenkariaren aplikazioan, eta berrikuspenera eta erregularizazioa zailtzen ditu. Gainera, plantillari eusteko betebeharrak ezinezkoak sortzen du enpresetan, enplegua bi urtean zehar nola bilakatzen den begiratu behar baitute, sortutako kenkaria finkatu ahal izateko. Beste alde batetik, krisi garaian, orain COVID-19ak sortu duena bezalakoetan, edo beste inguruabar batzuegatik gertatzen direnetan, beharrezkotzat jotzen da betebeharrak malgutzera egoera berrira egokitu behar diren enpresei kalte ez egiteko.

Automobilgintza-industriako produkzio prozesuetan berrikuntza modu berezian sustatzeko, berrikuntza teknologikoko jarduerak gauzatzegatiko kenkariaren ehunekoa handitu egiten da 2020an eta 2021ean hasten diren zergaldietan, baldin eta horien emaitza aurrerapen teknologikoa bada, automobilgintza-industriaren balio-katean ekoizpen prozesu berriak lortzeko edo lehendik dauden prozesuetan hobekuntza nabarmenak egiteko. Horrela, 2020an eta 2021ean kenkariaren ehunekoa %25 izanen da, eta ez %15.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan bezala, eta arrazoi berberaz, ekonomia-jardueren gaineko zergagatik ordaindutako kuoten kenkaria kentzen da.

Azkenik, partzialki salbuetsita dauden entitatei aplikatu beharreko araubide bereziaren erregularizazioa osatzen da, argitzeko entitate hauek egiten dituzten inbertsioek kuotaren kenkaria izateko eskubidea emanen dutela bakarrik zergapeko eta salbuetsi gabeko jarduerekin lotuta badaude.

Xehetasun berdina sartzen da Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregularizatzeko duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean, fundazioen sozietateen gaineko zergaren kuota likidoa zehazteko ondorioetarako.

Halaber, beste aldaketa bat egiten da Fundazioen tributu araubidea erregularizatzeko duen Foru Legean. Horren arrazoia da 1.000.000 euro baino gutxiagoko negozio-zifra garbia duten subjektu pasiboak salbuetsita daudela ekonomia-jardueren gaineko zergan. Aldaketa horren ondorioz, eta

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, 1.000.000 euro baino gutxiagoko negozio-zifra garbia duten fundazioak EJRn salbuetsita egonen dira, horretarako eskumena duten udalei eskatu behar izan gabe, eta 10/1996 Foru Legean arautzen den zerga araubidearen babesean dauden edo ez alde batera utzita. Beraz, 1.000.000 euroko negozio-zifra garbia edo handiagoa duten fundazioek eskatu beharko dute salbuespena bakarrik, eta frogatu beharko dute egiten duten jarduera ekonomikoa dela beren xede edo helburu espezifikoak, eta 10/1996 Foru Legean arautzen den zerga araubidearen babesean daudela.

Justifikazio berdina dute, alegia 1.000.000 euro baino gutxiagoko negozio-zifra garbia duten subjektu pasiboek ekonomia-jardueren gaineko zerga kentzea, Kooperatiben Zerga-araubidea arautzen duen Foru Legean sartu diren aldaketek. Mantentzen dira, beraz, negozio-zifra 1.000.000 eurokoa edo gehiagokoa duten kooperatibentzat bakarrik dauden hobariak.

Espainiako Konstituzioaren 31.1 artikulua ezartzen du gastu publikoek eusten laguntzeko betebeharrak, eta horrek, Konstituzio Auzitegiaren doktrinarekin bat, ekartzen du eskaera zuzen bat legegilearentzat, behartuta baitu aberastasuna bilatzera aberastasuna dagoen tokian, eta ez baitu eman behar zerga-abantaila diskriminatzaileak, horrek hautsiko lukeelako Estatuaren gastuei eusten laguntzeko betebeharrak generikoak. Konstituzio Auzitegiak argi utzi zuen ekainaren 8ko 73/2017 epaian, 12/2012 Errege Lege-dekretuaren lehenengo xedapen gehigarrian ezarritako zerga-aitorpen berezia inkonstituzionala dela, ukitzen duela Konstituzioaren aipatutako 31.1 artikulua ezartzen duen gastuei eusteko betebeharraren funtsa. Aurrekoarekin bat, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean ezartzen da zerga zorraren zenbatekoa murriztea dakarren zerga erregularizazio aparteko edozein mekanismo ezartzeko debekua, eta beraz, gaitasun ekonomikoaren, berdintasunaren eta progresibitatearen printzipioak haustekoak, horiek direlako zerga sistema-aren ordenamendua zuzendu behar dutenak.

Zerga kontrolerako neurri gisa, ezartzen da kontabilitateko edo enpresa kudeaketako prozesuen euskarri diren sistema informatikoak edo elektronikoak egokitu behar direla erregistroen osotasuna, kontserbazioa, irisgarritasuna, irakurgarritasuna, trazabilitatea eta aldaezintasuna bermatzen dituzten baldintza jakin batzuetara. Baldintza horien zehaztapen teknikoak erregelamendu bidez garatzen ahal da, bertan sartuz horien ziurtapena egiteko aukera. Halaber, erregularizazio horrekin bat, zehapen araubide espezifiko



bat ezartzen da, sistema edo programa horiek ziurtapen egokirik izan gabe ekoizte hutsaren edo edukitzearen ondorioz.

Beste alde batetik, zerga egoitza Nafarroatik kanpo duten subjektu pasiboen ordezkariak beren zerga egoitza Nafarroan izateko betebeharra kentzen da, erregulazioa eta Europar Batasunaren zuzenbidea bat etor daitezten.

Arau-hausteen eta zehapenen eremuan, subjektu arau-hausle gisa sartzen da BEZaren entitate-taldearen araubide bereziko entitate nagusia, subjektu arau-hausleei tratamendu homogenea emateko, bai sozietateen gaineko zergaren kontsolidazio fiskalaren araubidean, bai balio erantsiaren gaineko zergaren entitate-taldearen araubide berezian.

Zerga prozedurei dagokionez, aldaketa batzuk egiten dira. Justifikatutako etenaldiak sartzen dira prozedurak ebazteko epearen zenbaketatik kanpo uzteko denbora gisa, eta berariazko lege-estaldura ematen zaio prozeduraren luzapenak, geraldiki eta etenaldiak legea baino maila txikiagoko arau bidez arautzeari; zehazten da ofizioz hasitako prozeduretako epeen zenbaketa egin behar dela has-teko erabakia jakinarazten den egunetik aurrera egin behar dela; eta Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean sartzen da nahitaez erabili beharreko ereduak onartzeko eta dokumentuak bitarteko telematikoen bidez aurkeztera behartzeko aukera. Horrekin sustatu nahi da tresna horiek eta eredu normalizatuak erabiltzea, eta aurkezpen telematikoa, ikusi delako oso eraginkorrak direla era askotako eskabideak masiboki eta automatikoki kudeatzeko, nahitaez erabili beharra ezartzen denean.

Bereziki diru-bilketari eragiten dioten neurriak dagokionez, geroratzeko, zatikatzeko, konpentsatzeko, eteteko edo gauzatan ordaintzeko behin eta berriz egiten diren eskaeren erabilera desegokia saihesteko, beren tramitazio epeek epe exekutiborekin hasiera kautelaz eteten baitute, ezartzen da eskaerak behin eta berriz aurkezteak, aurrekoei uko egin zaienean, eta ez denean egin egin beharreko diru-sarrera, ez duela epe exekutiboa hastea galarazten; gainera, beste berme batzuk dituzten edo horiek salbuesten dituzten etete prozedurak iruzurrez erabil ez daitezten, horiek tramitatu bitartean kautelazko neurriak hartzeko aukera erantsen da; azkenik, legez babesten da etete eskaerak ez onartzeko aukera, organo eskudunek eskaeraren gainean ebazteko bermeak guztiz edo partzialki salbuetsita, baldin eta espedienteari erantsitako dokumentaziotik ondorioztatzen bada ez dituztela betetzen eskatzen dena emateko ezarritako baldintzak. Iruzur praktikak saihesteko helburu berberarekin (eteteko zenbait eskaera tramita-

tzea oso zaila dela aprobetxatuz egiten direnak), lege-maila ematen zaio administrazioaren aukera bati, alegia, bere jardunarekin segitzeko aukerari, zorra epe exekutiboan dagoen kasuetan.

Delitu fiskalaren esparruan zehazten da erantzukizunaren eta ondorengotzaren araubide orokorra aplikatuko zaiola delitu fisikaletik eratorritako zerga-zorrari, eta zehaztapen hori Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean ere sartzen da, izaera publiko ez-tributarioa duten eskubi-deak kobratzeari dagokionez. Horren bidez, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren jurisprudentzia berrienaren ildotik, zalantzak ezabatu nahi dira, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrek biltzen dituen erantzukizun-zerrenda kasu horietan aplikatzeari buruz sor litezkeenak.

Atzerrian dauden ondasun eta eskubideei buruz informatzeko betebeharrari dagokionez, beharrezkoa da betebeharraren edukia ekonomiaren munduko baldintza berriekin uztartzea. Horretarako, atzerriko diru birtualei buruzko informazioa emateko beharra sartzen da. Aldaketa hauek bat datoz 2015/849 (EB) Zuzentarauaren aldaketarekin, zeinak aktibo horiek zuzentarauaren eremu objektiboan sartu baititu.

Azkenik, 2021era arte luzatzen dira zerga-zorra geroratzeko edo zatikatzeko egin diren eskaerei aplikatu beharreko neurri berariazkoak, 2017an, 2018an, 2019an eta 2020an indarrean egon direnak.

Ekonomia-jardueren gaineko zergan epigrafe edo talde berriak sortzen dira zergaren tarifetan, hornigai orokorrak (elektrizitatea eta gasa) merkaturatzeko jarduerak berariaz sailkatzeko asmoz, gaur arte ez dutelako sailkapen berezirik eduki.

Errubrika berrietan hiru kuota-moten artean (udalerrikoa, probintziakoa edo naziokoa) hautatzeko aukerarekin, murriztu egiten dira energia elektrikoa eta gasa lurralde nazionalean merkaturatzen duten enpresentzako administrazio kargak, udalerrri guzti-guztietan udal-kuotak ordaindu behar zituztenak. Gainerako operadoreekin parekatzen dira, hau da, ekoizle, garraiolari eta banatzaileekin, eta auziak saihesten dira, gaur egun tarifetan ez dagoelako energia elektrikoa eta gasa merkaturatzeko jarduera horretarako aurreikusitako epigraferik.

Saltoki handien gaineko zergari dagokionez, koronabirusaren krisiak sortutako egoera kontuan hartuta, eta datozen hilabeteetan ostalaritzari bereziki eragingo diola aurreikusten denez, ezartzen da ezen, 2021ean zergaren zerga-oinarria zehazteko, aisialdiko eta ikuskizunetako lokalek

okupatutako azalera ez ezik, ostalaritzako lokalek okupatutako azalera ere salbuetsiko dela.

Osasuneko kontseilariaren urriaren 21eko 57/2020 Foru Aginduak, zeinaren bidez berariazko prebentzio neurri apartekoak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitaterako, COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoak izan duen bilakaeraren ondorioz, ezarri du ostalaritzako establezimenduak eta jatetxeak bi astez itxi behar direla, baita jokorako lokalak eta aretoak ere. Ziurtasunik eza denez nagusi gaur egun, eta oso litekeena denez neurri horiek denboran luzatzea, ikusi da beharrezkoa dela jokoaren gaineko tributuaren kuota (joko-makinen ustiapena) jaitea. Horren ondorioz, laugarren hiruhilekoari dagokion kuota murrizten da, aintzat hartuta hiruhileko horretan joko-makinak instalatuta dituzten establezimenduak zenbat denbora egon diren itxita COVID-19aren ondoriozko egoera epidemiologikoaren bilakaeragatik, hartutako berariazko eta aparteko prebentzio-neurriak direla eta.

Hirugarren eta laugarren xedapen gehigarriek etxebizitza alorreko neurriak biltzen dituzte, eta bigarren azken xedapenetako bigarrenak Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen du.

Xedapen indargabetzaileak indargabetzen ditu Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 23ko 29/2019 Foru Legearen apartatu batzuk.

Indargabetzen da, halaber, 1998ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 21/1997 Foru Legearen bederatzigarren xedapen gehigarria, ekonomia-jardueren gaineko zergaren kuotan jardueraren lehen hiru ekitaldietarako hobariak jasotzen zituena. Hobari horien helburua ekin-tzailatza sustatzea zen, eta 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera ez dute zentzurik; izan ere, 1.000.000 eurotik beherako negozio-zifraren zenbateko garbia duten subjektu pasiboak EJZko kuotak ordaintzetik salbuesten dira.

Azken xedapenetako hirugarrenak eta laugarrenak, hurrenez hurren, foru lege hau garatzeko eta indarrean jartzeko gaikuntza ematen diote Nafarroako Gobernuari.

**Lehen artikulua.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren manu hauek (testu bategina ekainaren 2ko 4/2008

Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen) testu hau izanen dute:

**Bat.** 7. artikulua, a) letraren bigarren eta hirugarren paragrafoak, k) letraren laugarren paragrafoa eta y) letra gehitzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Halaber, honako prestazio hauek salbuetsita egonen dira, baldin eta Gizarte Segurantzaren ezintasun iraunkor absoluturako edo baliaezintasun handirako ezarritakoen antzeko egoeretan jasotzen badira:

Lehen. Beren konturako langileen edo autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian sartuta ez dauden profesionalen onartutakoak Gizarte Segurantzako araubide bereziaren ordeko gisa jarduten duten gizarte aurreikuspeneko mutualitateak.

Bigarrena. Kooperatibetako langile bazkideek borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitateetatik jasotakoak.

Hauxe izanen da salbuetsitako kopuruaren muga: Gizarte Segurantzak dagokion kontzeptuarengatik onartzen duen gehieneko prestazioaren zenbatekoa. Hortik gorakoa lan-etekin gisa zergapetuko da, eta, Gizarte Segurantzaren prestazioak lehen aipatutako mutualitateenekin edo borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitateenekin batera gertatuz gero, lan-etekina azken horien prestazioetan gertatu dela ulertuko da”.

“Salbuetsiak egonen dira, halaber, Gizarte zerbitzuen arloan banakoentzako eta familientzako prestazioak eta laguntzak arautzen dituen ekainaren 28ko 168/1990 Foru Dekretuan ezarritako prestazio ekonomikoak, bai eta Gizarteratzeko eta errenta bermaturako eskubideak arautzen dituen Foru Legean ezarritako errenta bermatua eta maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege-dekretuan araututako bizitzeko gutxieneko errenta ere. Era berean, salbuetsiak egonen dira jaiotzagatik, adopzioagatik, seme-alabak norberaren kargura edukitzeagatik, adingabeak harreran hartzeagatik, zurtasunagatik, haur batez baino gehiagoz erditzeagatik edo beste horrenbeste adoptatzeagatik edo minbiziak edo beste edozein gaixotasun larri jotako seme-alaba adingabeak zaintzeagatik emandako gainerako prestazio publikoak, bai eta jaiotza-tasa sustatze aldera eta langileen lana eta familiako bizitza ongi uztartzeko neurri osagarri gisa kasuan kasuko deialdien bidez familiaren arloan emandako laguntzak ere”.

“y) Bekak, garraiorako, mantenturako eta alojamendurako laguntzak, eta familia eta lanprestakuntza bateratzeko laguntzak, uztailaren



3ko 694/2017 Errege Dekretua garatzen duen martxoaren 28ko TMS/368/2019 Aginduaren IV. kapituluaren ezarritakoak. Errege dekretu horren bidez garatu zen irailaren 9ko 30/2015 Legea, zeinaren bidez arautu baitzen Lan arloan enplegurako Lanbide Heziketaren sistema, administrazio eskudunen prestakuntza eskaintzari eta haren finantzazioari dagokionez, eta ezarri baitziren hura finantzatzeko dirulaguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak”.

Bi. 14.2.a)Lehena artikulua, bigarren paragrafoa. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, lanbide- edo enpresa-jardueretan aritzen direnek aldi baterako ezgaitasunagatik edo adingabeen jaiotzagatik edo zaintzagatik jasotzen dituzten prestazioak jarduera haietako etekin gisa konputatuko dira”.

Hiru. 14.2.a)Hirugarrena artikulua. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Hirugarrena. Pentsio planen onuradunek jasotako prestazioak eta Europako Parlamentuak eta Kontseiluak enpleguko pentsio funtsen jardueri eta gainbegiratzeari buruz 2016ko abenduaren 14an emandako 2016/2341 (EB) Zuzentarauan araturiko pentsio planetatik jasotakoak.

Era berean, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio Plan eta Funtsak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 8.8 artikuluan ezarritako kasuetan jasotako zenbatekoek pentsio planen prestazioek duten zerga-tratamendu bera izanen dute”.

Lau. 15. artikulua; 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“15. artikulua. Diruzkoak ez diren ordainsariak edo gauzazko ordainsariak.

1. Foru lege honen ondorioetarako, diruzkoak ez diren ordainsari edo gauzazko ordainsaritzat hartuko dira ondasunak, eskubideak edo zerbitzuak helburu partikularretarako erabiltzea, kontsumitzea edo lortzea, doan edo merkatuko ohiko salneurria baino txikiagoan, nahiz eta ematen dituenari benetako gasturik ez sortu.

Ondasunak, eskubideak edo zerbitzuak eskuratzeko, errenta-ordaintzaileak subjektu pasiboari eskudirua ematen dionean, diruzkotzat joko da errenta.

Beste batzuen artean, lan-ordainsari ez-diruzkotzat edo gauzazko lan-ordainsaritzat hartuko dira honako hauek:

- a) Etxebizitza erabiltzea.
- b) Ibilgailu automobilak erabiltzea edo entregatzea.
- c) Maileguak, baldin eta haien interes-tasa diruaren legezko interes-tasa baino apalagoa bada.
- d) Mantenu, alojamendu, turismo-bidaia eta antzeko gisa emandako prestazioak.
- e) Enpresak aseguru-kontratuaren edo horren antzekoaren ondorioz ordaindutako primak edo kuotak.
- f) Pentsio planen sustatzaileek ordaindutako kontribuzio edo ekarpenak eta, enpresek pentsioengatik beren gain hartutako konpromisoei aurre egiteko, enpresaburuek ordaindutako kopuruak, Pentsio-planak eta -funtsak arautzen dituen Legearen testu bateginaren lehen xedapen gehigarrian eta hori garatzeko araudian ezarritako dagoen moduan, enpresaren gizarte-aurreikuspeneko planak barne direla.

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak Enpleguko pentsio funtsen jardueri eta gainbegiratzeari buruz 2016ko abenduaren 14an emandako 2016/2341 (EB) Zuzentarauan araturiko enpresa sustatzaileen diru-ekarpenak ere sartuko dira letra honetan. Era berean, enpresaburuek mendekotasuneko aseguru-kontratuaren ordaindutako zenbatekoak.

g) Subjektu pasiboaren edo hari laugarren gradurainoko ahaidetasunaz lotutako beste pertsona batzuen ikasketa- eta mantenu-gastuak ordaintzeko erabilitako diru-kopuruak.

2. Inolaz ere ez dira gauzazko lan-ordainsaritzat hartuko:

a) Langileen ezagutzak eguneratzeko, gaitzeko edo birziklitzeko erabilitako zenbatekoak, langile horien jardunak edo lanpostuen ezaugarriek eskatutakoak badira.

b) Enpresak langilearen laneko istripuaren aseguru-kontratuaren edo erantzukizun zibileko aseguruaren ondorioz ordaindutako primak edo kuotak.

3. Gauzazko lan-ordainsari hauek salbuetsita daude:

a) Prezio merkatua duten produktuen entregak, enpresetako kantina edo jantokietan edo ekonomato sozialetan egindakoak. Enpresetako jantokietan prezio merkatua duten produktuen entregatza hartuko dira zerbitzua emateko zeharkako formulak, gainditzen ez bada arauz ezartzen den zenbatekoa.

b) Langileen zerbitzu sozial eta kulturaletarako ondasunak erabiltzea. Besteren artean, halakotzat hartuko dira Administrazio publiko eskudunak behar bezala homologatutako espazioak eta lokalak, enpresek edo enplegatzaileek beren langileen seme-alaben Haur Hezkuntzako lehen zikloaren zerbitzua emateko ezarritakoak, bai eta zerbitzu hori behar bezala baimendutako hirugarrenei kontratatzea ere.

c) Enpleguak bizilekutik lantokira eraman eta ekartzeko bidaiari-garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa ematen duten entitateei ordaindutako diru-kopuruak, langile bakoitzarendako urtean 1.500 euroko mugarekin. Halaber, zerbitzu publiko hori ematen duten entitateei ordaindutako zenbatekotzat hartuko dira arauz ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten zeharkako ordainketa-formulak.

d) Eritasunaren estaldurarako aseguru-entitatei ordaindutako primak edo kuotak, baldin eta baldintza hauek betetzen badira:

Lehena. Eritasunaren estalduraren barnean sartzea langilea bera eta haren ezkontidea eta ondorengo ahaideak ere barne hartzeko aukera izatea.

Bigarrena. Lehen puntuan aipatutako pertsona bakoitzeko urtean ordaindutako prima edo kuoten kopurua 500 eurotik gorakoa ez izatea, edo 1.500 eurotik gorakoa desgaitasuna duen pertsona horietako bakoitzeko. Zenbateko horretatik gorakoa gauzako ordainsaritzat hartuko da.

e) Sozietateek beren akzio edo partaidetzak, edo Merkataritza Kodearen 42. artikulua ildotik taldea osatzen duen edozein sozietateren akzio edo partaidetzak, jarduneko langileei doan edo merkatu prezio normala baino merkeago ematea, gauzako ordainsariak urtean 12.000 euro gainditzen ez badu langile bakoitzari bere osotasunean entregatutako akzio edo partaidetza multzorako, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

Lehena. Eskaintza enpresako langile guztiei baldintza berberetan egitea.

Bigarrena. Langile horiek, haien ezkontideek edo bigarren gradurainoko ahaideek ez izatea batera enpresan 100eko 5etik gorako partaidetza. Ehuneko hori gainditzen bada partaidetza horiek eskuratzeagatik, salbuespena entregatutako partaidetzei baizik ez zaie aplikatuko, 100eko 5 hori osatu arte.

Hirugarrena. Baloreak gutxienez hiru urtean mantentzea.

Hirugarren baldintzak aipatzen duen epea ez betetzeak tributu egoera erregularizatzeko betebeharrak ekarriko du, 83.4 artikulua ezartzen duen moduan.

Akzioen edo partaidetzen eskualdatzetik eratorritako ondare gehikuntzak eta gutxiagotzeak zehazteko, kontuan hartuko da, eskurapen-balioa kalkulatzeko, gauzako ordainsariaren zenbateko salbuetsia.

Letra honetan ezartzen dena ez da aplikatuko f) letran ezarritakoa aplikatu behar denean.

f) Sozietateek jarduneko beren langileei doan edo merkatuko prezio normala baino merkeago ematea beren akzio edo partaidetza berekiak edo Merkataritza Kodeko 42. artikulua zentzuan taldeko kide den edozein sozietateren akzio edo partaidetzak, langileak eta erositako akzioek edo partaidetzek betetzen dituztenean 62.11 artikuluan biltzen den kenkaria egiteko baldintzak, halako partean non gauzako lansariak ez duen gainditzen, langile bakoitzari ematen zaion akzio- edo partaidetza-multzorako, 20.000 euroko kopurua urtean.

62.11 artikulua ezarritako edozein baldintza urratzen bada, subjektu pasiboak bere tributu egoera erregularizatu beharko du, 83.4 artikulua ezartzen duenari jarraikiz.

Akzioen edo partaidetzen eskualdatzetik eratorritako ondare gehikuntzak eta gutxiagotzeak zehazteko, kontuan hartuko da, eskurapen-balioa kalkulatzeko, gauzako ordainsariaren zenbateko salbuetsia”.

Bost. 34.1. artikulua; 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“1. Enpresa- edo lanbide-jardueren etekin garbia Sozietateen gaineko Zergaren arauen arabera zehaztuko da, atal honetan jasotako arau berezietan kalterik egin gabe, eta zuzeneko zenbatespenaren arabidearen bidez gauzatuko da. Hiru modalitate onartuko dira:

- a) Arrunta
- b) Erraztua
- c) Berezia”

Sei. 35. artikulua. 1. erregelako bigarren paragrafoa aldatzea, eta 6. erregela ezabatzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Hala ere, gastu kengarritzat joko dira norbere konturako langileen edo autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian sartu gabeko profesionalen gizarte-aurreikuspeneko mutualita-

teekin sinatutako aseguru-kontratuengatik prima edo kotizazio gisa ordaindutako kopuruak, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren testu bategineko hemezortzigarren eta hemeretzigarren xedapen gehigarrietan ezarritakoaren arabera, Gizarte Segurantzak ordaintzen dituen egoerez arduratzea helburu duen zatian, urtean 4.500 euroko mugarekin”.

Zazpi. 35. artikuluari 2. apartatu bat gehitzen zaio, eta artikularen egungo edukia 1. apartaturarena izanen da aurrerantzean. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“2. Etekina zehazteko araubideen bateraezintasuna.

a) Enpresa- edo lanbide-jarduera baten etekina modalitate arruntean edo erraztuan zehazten duten subjektu pasiboek behar den modalitatean zehaztuko dute beren enpresa- edo lanbide-jarduera guztien etekin garbia.

b) Enpresa- edo lanbide-jarduera baten etekina modalitate arruntean zehazten duten subjektu pasiboek modalitate horretan berean zehaztuko dute jarduera guztien etekin garbia.

c) Subjektu pasiboa jarduera berri batean hasten bada, honako arau hauek aplikatuko dira:

Lehena) Aurretik egiten ziren jardueren etekina modalitate arruntean zehazten bada, hori bera aplikatuko zaio jarduera berriari.

Bigarrena) Aurretik egiten ziren jardueren etekina modalitate erraztuan zehazten bada, aurretik ez da aplikatuko b) letran aipatzen den bateraezintasuna.

Hirugarrena) Aurretik egiten ziren jardueren etekina modalitate berezian zehazten bada eta urtean zehar hartan sartu gabeko enpresa- edo lanbide-jardueraren bat hasten bada edo horretan modalitate horri uko egiten bazaio, a) letran aipatzen den bateraezintasunak ez du urte horretan ondorioz izanen aurretik egiten ari ziren jardueretan”.

Zortzi. 36. artikulua; 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“36. artikulua. Etekin garbia kalkulatzeko zuzeneko zenbatespen erraztuan eta zuzeneko zenbatespen berezian.

A) Zuzeneko zenbatespen erraztua.

1. Arauz ezarritako terminoetan uko egin ezean, modalitate hau aplikatuko dute enpresa- edo lanbide-jarduerak egiten dituzten subjektu pasiboek, haien negozio-zifraren zenbateko garbia ez bada aurre-aurreko urtean 600.000 euro baino

handiagoa eta etekin garbia ez badute modalitate berezian kalkulatu.

2. Etekin garbia kalkulatu da 34. eta 35. artikuluetako arauen arabera, berezitasun hauek kontuan hartuz:

a) Ibilgetu materialaren eta ondasun higiezinaren amortizazioak eginen dira soilik taula-metodoa erabiliz, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduko 26. artikuluan ezarritakoaren arabera; erregelamendu hori maiztaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

b) Ekarpinak ez dira kengarriak izanen, ez eta narriaduragatiko galerak ere.

3. A).2 apartatuan xedatutakoaren arabera kalkulatu etekin garbi positibotik haren 100eko 5 kenduko da.

B) Zuzeneko zenbatespen berezia.

1. Modalitate hau aplikatuko dute, hari uko egin ezean:

a) Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo arrantzako jarduerak egiten dituzten subjektu pasiboek, haien negozio-zifraren zenbateko garbia ez bada aurre-aurreko urtean 300.000 euro baino handiagoa izan.

b) Baliokidetasun-errekarguaren araubide berezia edo balio erantsiaren zergaren araubide berezi erraztua aplikatzen zaizkien enpresa-jarduerak egiten dituzten subjektu pasiboek, haien negozio-zifraren zenbateko garbia ez bada aurre-aurreko urtean 150.000 euro baino handiagoa izan.

c) Ezin izanen dute modalitate hau aplikatu Balio Erantsiaren gaineko Zergako nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezitik edo araubide sinplifikatutik kanpo geratzen diren edo uko egiten dioten subjektu pasiboek.

2. Negozio-zifraren zenbateko garbia konputatzearen ondorioetarako, subjektu pasiboak eginiko enpresa-jarduerari dagozkien eragiketak ez ezik, kontuan hartuko dira, halaber, ezkontideak, ondorengo ahaideek eta aurreko ahaideek egindakoei dagozkienak, aurreko horietako edozein pertsona partaide duten errenta-egozpenaren araubideko entitateek egindakoei dagozkienak, bai eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 28. artikuluan adierazita bezala subjektu pasiboarekin lotutako entitateek egindakoei dagozkienak ere, inguruabar hauek batera gertatzen badira:

a) Gauzatzen diren enpresa-jarduerak berdinak edo berdintsuak izatea. Horren ondorioetarako, berdinak edo berdintsuak direla ondorioztatuko da ekonomia jardueren gaineko zergan talde berean sailkatu badira.

b) Jarduera horien zuzendaritza bateratua izatea, baliabide materialak edo langileak partekatuz.

3. Etekin garbia kalkulatu da 34. eta 35. artikuluetako arauen arabera, berezitasun hauek kontuan hartuz:

a) Ez dira kengarriak izanen ekarpenak, narriaduragatiko galerak eta amortizazioak.

b) Ez dira kengarriak izanen garraioko elementuen edo nekazaritzako makineriaren errentamendu- edo lagapen-gastuengatik ordaindutako zenbatekoak.

4. B).3 apartatuan xedatutakoaren arabera kalkulatu da etekin garbi positibotik 100eko 5 kenduko da:

a) Oro har, etekinaren 100eko 10.

b) Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo arrantzako jarduerak badira, etekinaren 100eko 35

c) Salgaien errepide-garraioko jarduerak badira, etekinaren 100eko 45. Ondorio horietarako, salgaien errepide-garrioztat hartuko dira maiatzaren 28ko 7/1996 Foru Legearen bidez onetsi ziren ekonomia-jardueren gaineko zergaren tarifen 722. epigrafean ageri direnak.

5. Zuzeneko zenbatespen bereziari uko egin nahi bazaio eta hura errebokatu nahi bada, zuzeneko zenbatespen errazturako arauz ezarritakoa hartuko da kontuan eta hark dituen ondorioak izanen ditu.

6. Zuzeneko zenbatespeneko modalitate berezi honetan zehazten den etekina duten enpresa-jarduerak garatzen dituzten subjektu pasiboek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 61.3 artikuluen a) eta b) letretan ezarritako erregistro-liburuak eraman beharko dituzte (maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen erregelamendu hori), salbu eta kontabilitatea eramaten badute merkataritza-kodean aurreikusitakoaren arabera.

7. Errenta egozpeneko araubideko entitateak.

a) Zenbatespen zuzeneko araubideko modalitate berezia aplikatzekoa izanen da 11. artikuluko aipaturiko entitateek eginiko enpresa-jardueren etekin garbia zehazteko, baldin eta B) letra honetan ezarritako betekizunak betetzen badira eta haren bazkide, oinordeko, erkide edo partaide

guztiak zerga honen subjektu pasibo diren pertsona fisikoak badira.

b) Modalitate honi uko egiteko, B) letra honetako 5. apartatuak ezarritakoari jarraitu beharko zaio, eta bazkide, oinordeko, erkide edo partaide guztiek eginen dute.

c) Modalitate hau aplikatuko da zein ere diren bazkide, oinordeko, erkide edo partaideengan biltzen diren inguruabarrak.

Hala ere, diru-sarreraren bolumena konputatzeko, kontuan hartu beharko dira, entitateak berak egozpen-araubidean eginiko enpresa-jarduerari dagozkien eragiketetz gain, baita haren bazkideek, oinordekoek, erkideek edo partaideek egindakoei dagozkienak; ezkontideak, ondorengo ahaideek eta aurreko ahaideek egindakoei dagozkienak; aipatu pertsona horietako edozeinek parte hartzen duen errenta-egozpeneko araubideko entitateek egindakoei dagozkienak; edo pertsona horiekin Sozietateen gaineko Zergari buruzko 26/2016 Foru Legearen 28. artikuluan adierazitako moduan lotutako entitateek egindakoei dagozkienak. Betiere, haietan inguruabar hauek biltzen badira:

Lehen a) Gauzatzen diren enpresa-jarduerak berdinak edo berdintsuak izatea. Ondorio horretarako, berdintzat edo berdintsutzat joko dira ekonomia jardueren gaineko zergari begira talde berean sailkatutakoak.

Bigarrena. Jarduera horien zuzendaritza bateratua izatea, giza edo gauza baliabideak partekatuz”.

C) Negozio-zifraren zenbateko garbia honela zehaztuko da: subjektu pasiboaren ohiko jardueretan produktuak saltzetik, zerbitzuak ematek eta beste diru-sarrera batzuetatik ateratako zenbatekoei, hala behar denean, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide bereziko konpentsazioa barne dela, kenduko zaizkie salmenten gaineko hoberiak eta gainerako murriztapenak, balio erantsiaren gaineko zerga, baliokidetasun-errekarguaren araubidera bildutako subjektu pasiboen kasuan izan ezik, eta aipatutako negozio-zifrarekin zerikusi zuzena duten beste zerga batzuk. Era berean, konputatuko dira dirulaguntza arruntak eta kapitalarenak, eta jardueraren sarreretan izandako galerak konpentsatzeko jasotako kalte-ordainak. Komisio-hartzaileak izanez gero, kontuan hartuko da komisioen zenbateko osoa.

Jarduera aurre-aurreko urtean hasi bazen, negozio-zifraren zenbateko garbia urte osora proiektatuko da”.

**Bederatzi.** 39.4 artikulua, c) letraren lehen paragrafoa, c) b') letra, e) letraren lehen paragrafoa eta e) b') letra. 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“c) Enpresa baten inter vivos eskualdaketa kostu gabeko bat egiten denean, edo eskualdaketa hori denean Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 5.8.Bi artikuluan araututako salbuespena aplikatzen zaien entitateetako partaidetza guztiena edo haien zati batena. Baldintza hauek bete beharko dira:”

“b’) Eskualdatzailea enpresa edo lanbide jardueran aritua izatea eskualdaketa egiten den egunaren aurreko bost urteetan gutxienez ere, edo, letra honetan aipatzen diren entitateetako partaidetzak baldin badira, eskualdatzaileak eskualdaketa egin baino bost urte lehenago eskuratuak izatea, eta eskuratzailerak edo eskuratzailerak jarraitzea eskualdatzaileak egiten duen jarduera berean edo partaidetza horiek mantentzea gutxienez bost urtez, salbu eta epe horretan hiltzen badira edo baliaezintasun absolutua edo handia onartzen bazaie. Halaber, eskuratzailerak edo eskuratzailerak ez dute zilegi xedatze-egintzarik edo sozietate-eragiketarik egitea, baldin eta zuzenean nahiz zeharka eskurapen-balioaren gutxitze nabarmena ekar badezakete”.

“e) Enpresa bat edo Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legeko 5.8 Bi artikuluan araturiko salbuespena aplikatzekoa zaien entitateetako partaidetza guztiak edo partaidetza batzuk eskualdatzen zaizkienean enpresako langileei, honako betekizunak biltzen direnean:”

“b’) Eskualdatzailea enpresa edo lanbide jardueran aritua izatea eskualdaketa egiten den egunaren aurreko bost urteetan gutxienez ere, edo, letra honetan aipatzen diren entitateetako partaidetzak baldin badira, eskualdatzaileak eskualdaketa egin baino bost urte lehenago eskuratuak izatea, eta eskuratzailerak edo eskuratzailerak jarraitzea eskualdatzaileak egiten duen jarduera berean edo partaidetza horiek mantentzea gutxienez bost urtez, salbu eta epe horretan hiltzen badira edo baliaezintasun erabatekoa edo handia onartzen bazaie. Halaber, eskuratzailerak edo eskuratzailerak ez dute zilegi xedatze-egintzarik edo sozietate-eragiketarik egitea, baldin eta zuzenean nahiz zeharka eskurapen-balioaren gutxitze nabarmena ekar badezakete”.

**Hamar.** 43.1.a) artikulua. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“a) Sozietate edo entitateen funts berekietako partaidetzaren adierazgarri izanik Europako Parla-

mentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65 (EB) Zuzentarauan, finantzatresnen merkatuari buruzkoan, definitutako baloremerkatu arautuetakoren batean negoziatziora onartuta dauden baloreena denean, gehikuntza edo murriztapena zenbatuko da eskurapen-balioaren eta eskualdaketa-balioaren arteko aldearen arabera. Azken balio hori eskualdaketa gauzatzen den egunean merkatu horietan duten kotizazioak ezarriko du edo, kotizazioa baino handiagoa denean, hitzartutako prezioak”.

**Hamaika.** 43.1.n) artikulua. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“n) Baloreen Merkatuari buruzko Legearen testu bateginean eta hura garatzen duen araudian araututako gerokoen eta aukeren merkatuetan eta beste finantza tresna batzuetan egindako eragiketei dagokienez, lortutako zenbatekoa ondare gehikuntza edo gutxitzetaz hartuko da, baldin eta eragiketak subjektu pasiboak egindako enpresa jarduerak garatzeko itundu den beste eragiketa nagusi bat estaltzea ez badakar; izan ere, kasu horretan, kapitulu honen 3. atalean ezarritakoaren arabera ordainduko dituzte zergak”.

**Hamabi.** 51. artikulua. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“51. artikulua. Errenten egozpena nazioarteko gardentasun fiskalari buruzko araubidean.

1. Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitate batek edo establezimendu iraunkor batek lortutako errenta positiboak (2. edo 3. apartatuatan aipatzen direnak) egotziko dituzte subjektu pasiboak, inguruabar hauek betetzen direnean:

a) Zergadunak 100eko 50eko edo hortik gorako partaidetza izatea Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitatearen kapital, funts bereki, emaitza edo boto-eskubideetan, berak bakarrik edo loturiko entitateekin (Sozietateen gaineko Zergari buruzko 26/2016 Foru Legearen 28. artikuluan arabera) edo, lerro zuzenean edo albotik, lehen edo bigarren mailako odol edo ezkontza bidezko ahaidetasuna (ezkontidea barne) duten beste subjektu pasibo batzuekin batera, entitate ez-egoiliarren sozietate-ekitaldiaren itxiera egunean.

Egotzi beharreko errenta positiboaren zenbatekoa proportzionala izanen da entitatearen emaitzetan duten partaidetzarekin edo, bestela, kapitalen, funts berekietan edo boto-eskubideetan duten partaidetzarekin.

Egozpen hori derrigorrez eginen da, bai entitate ez-egoiliarrean partaidetza zuzena dagoenean, bai zeharkako partaidetza dagoenean beste enti-



tate ez-egoiliar baten edo batzuen bidez. Azken kasu horretan, egotzi beharreko errenta positiboaren zenbatekoa zeharkako partaidetzari dagokiona izanen da.

b) Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitateak sozietateen gaineko zergaren izaera berdin-berdina edo antzekoa duen karga batengatik ordaindutakoa, 2. edo 3. apartatuetan ezarritako errenta klaseetako bati egotzen ahal zaiona, aipatu zergaren arauen arabera egokituko zitzaionaren 100eko 75etik beherakoa izatea.

2. Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitateak edo establezimendu iraunkorrak lortutako errenta positibo osoa egotziko dute subjektu pasiboek, baldin eta horiek horretarako behar den baliabide materialen eta giza baliabideen antolaketa ez badute, eragiketak errepikatzen badira ere.

Apartatu hau ez da aplikatuko subjektu pasiboak egiaztatzen duenean eragiketa horiek egiten direla Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitate batean dauden baliabide materialekin eta giza baliabideekin, edo haren osaerak eta jarduerak arrazoi ekonomiko baliagarriei erantzuten dietela. Entitate horrek talde berekoa izan behar du, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, egoitza non duen eta urteko kontu kontsolidatuak egiteko betebeharra duen kontuan hartu gabe.

Artikulu honen ondorioetarako, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan azaltzen den sozietate-taldeak entitate taldeaniztunak eta elkartuak, merkataritzako legetan agindu bezala, barne hartzen dituela ulertuko da.

Apartatu honen lehenbiziko paragrafoan xedatutakoa hurrengo apartatuan ezarritakoaren gainetik dago.

3. Aurreko apartatuan ezarritakoa aplikatzen ez bada, iturri hauetako bakoitzetik datorren errenta positiboa egotziko da soilik:

a) Hiri- zein landa-ondasun higiezinaren edota horiei dagozkien eskubide errealeen titulartasuna, salbu eta jarduera ekonomiko bati lotuta badaude edo horien erabilera egoiliar ez diren entitateei lagapenean emana badago. Entitate horiek titularraren sozietate-talde berekoak izan behar dute, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, egoitza non duten eta urteko kontu kontsolidatuak egiteko betebeharra duten kontuan hartu gabe, eta horiek ere jarduera ekonomiko bati atxikita.

b) Edozein entitatek dituen funts berekietako partaidetzak izatea eta kapital berekiak hirugarre-

nei lagatzea, halakotzat hartzen badira 28. eta 29. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Ez da sartuko ondorengo finantza-aktiboetatik datorren errenta positiboa:

Lehena). Jarduera ekonomikoetan aritzearen ondorioz sortzen diren legezko eta erregelamenduzko betebeharrak betetzeko direnak.

Bigarrena). Jarduera ekonomikoak garatzean ezarritako kontratu-harremanen ondorioz sortzen diren kreditu eskubideak biltzen dituztenak.

Hirugarrena). Balore-merkatu ofizialetan artekaritza jardueretan aritzearen ondorioz dituztenak.

Laugarrena). Kreditu- eta aseguru-entitateek beraien jardueretan aritzearen ondorioz dituztenak, i) letran ezarri dena deusetan galarazi gabe.

Kapital berekiak hirugarrenei lagatzetik datorren errenta positiboa i) letran aipatuko diren kreditu- eta finantza-jarduerak gauzatzetik datorrela ulertuko da, lagatzailea eta lagapen-hartzailea sozietate-talde batekoak direnean Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan ildotik, edozein izanik ere haien egoitza eta urtero kontu kontsolidatuak egiteko beharra alde batera utzi gabe, eta lagapen-hartzailearen diru-sarrerak, 100eko 85ean gutxienez, jarduera ekonomikoetan ariztetik datozen.

c) Kapitalizazio- eta aseguru-eragiketak, entitatea bera onuradun dutenak.

d) Jabetza industrial eta intelektuala, aholkularitza teknikoa, ondasun higiezinak, irudi-eskubideak eta negozio edo meategien errentamendu edo azpierrementendua, 30.3 artikuluan ezarri bezala.

Hala ere, ez da egotziko 52. bis artikuluan xedatutakoaren arabera egotzi behar den irudi-eskubideen errenta.

e) Aurreko a), b), c) eta d) letretan aipatutako ondasun eta eskubideen eskualdaketa, betiere errentak sortzen baditu.

f) Finantza-tresna deribatuak, berariaz identifikatutako arrisku bat, jarduera ekonomikoak egitearen ondoriozkoa, estaltzeko izendatuak izan ezik.

g) Aseguru-jarduerak, kreditu-jarduerak, finantza-errentamenduko eragiketak eta bestelako finantza-jarduerak, salbu eta jarduera ekonomikoetan lortutako errentak badira, i) letran ezarritakoa galarazi gabe.

h) Lotura duten pertsona eta entitateekin egingako ondasun eta zerbitzuen gaineko eragiketak, 26/2016 Foru Legearen 28. artikuluan adierazi



bezala, zeinetan entitate ez-egoiliarrak edo establezimenduak gehitzen duen balio ekonomikoa hutsaren hurrengo edo hutsa den.

i) Espainiako lurraldeko egoiliarrak diren pertsona edo entitateekin zuzenean edo zeharka egindako kreditu jarduerak, finantza jarduerak, aseguru jarduerak eta zerbitzuak emateko jarduerak. Lotutako pertsonak edo entitateak izan behar dira, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Legearen arabera, eta jarduerak zerga ondorioetarako kengarriak diren gastuak sortu behar dituzte pertsona egoiliar horientzat.

Errenta positiboa ez da sartuko, baldin eta, entitate ez-egoiliarraren halako jardueretatik (kreditu-jarduerak, finantza-jarduerak, aseguru-jarduerak eta zerbitzuak emateko jarduerak) datozen diru-sarreraren bi heren edo gehiago 26/2016 Foru Legearen 28. artikulua arabera ez lotutako pertsona edo entitateekin egindako eragiketen ondoriozkoak direnean.

4. 3. apartatuan aipatzen diren errentak ez dira egotziko, haien zenbatekoen batura entitate ez-egoiliarrak edo establezimendu iraunkorrak lortutako errenta osoaren 100eko 15 baino txikiagoa bada.

Hori hala izanik ere, 3.i) apartatuan aipatzen diren errentak beti egotziko dira eta, orobat, kontuan hartuko dira aurreko paragrafoan aipatzen den batura hori zehaztearen ondorioetarako.

5. Egotzi beharreko errentaren zenbatekoa kalkulatzeko, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Legean eta zerga horren gaineko gainerako xedapenetan zerga-oinarria zehazteko ezartzen diren printzipio eta irizpideak erabiliko dira. Errenta osoztat hartuko da printzipio eta irizpide horiek aplikatetik ateratzen den zerga-oinarriaren zenbatekoa.

Sozietateen gaineko zergaren izaera berdindina edo antzekoa duten zergak ez dira egotziko subjektu pasiboaren zerga-oinarrian; hau da, zerga horietan sozietate ez-egoiliarrak edo establezimendu iraunkorrak sartu beharreko errenta zatiagatik benetan ordaindutakoa.

Egotzi beharreko errentaren zenbatekoa zehazteko, Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitatearen sozietate-ekitaldiaren itxieran indarrean dagoen kanbio-tasa erabiliko da.

Artikulu honetan aipatzen diren errenta positiboak zerga-oinarriaren zati orokorrean egotziko dira, 53. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Inola ere ez da egotziko entitate ez-egoiliarraren errenta osoa baino zenbateko handiagorik.

Errenta positibo bakoitza behin baino ezin da egotzi, modua eta xedeko entitatea edozein izanik ere.

6. Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitateak bere sozietate-ekitaldia bukatu duen eguna sartuta dagoen zergaldian eginen da egozpena. Ondorio hauetarako, zergaldia ez da hamabi hila-betetik gorakoa izanen.

Establezimendu iraunkorrak direnean, errentak lortzen diren zergaldian eginen da egozpena.

7. Dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak ez dira zerga-oinarrian sartuko, egotzitako errenta positiboari zerga-oinarrian dagokion zatian. Tratamendu bera aplikatuko zaie konturako dibidenduei.

Erreserben banaketa kasuetan, akordio sozialean jasotako izendapena hartuko da kontuan, eta, hala ez bada, ulertuko da erreserba horietara ordaindutako azkeneko kopuruak aplikatu direla.

8. Atzerrian egiazki ordaindutako zerga edo karga kengarria izanen da kuota likidoan, dibidenduen edo mozkinetako partaidetzaren banaketaren ondorioz, dela zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen baten arabera, dela kasuan kasuko herrialde edo lurraldearen barne-legediaren arabera; hain zuzen, zerga-oinarrian lehenago egotzitako errenta positiboari dagokion zatian.

Dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak jasotzen diren zergaldian eginen da kenkari hori, egozpenaren zergaldia eta zergari dagokion zergaldia ezberdinak izanik ere.

Lankidetzarik gabeko jurisdikziotzat hartutako herrialde edo lurraldeetan ordaindutako zergak ez dira inola ere kenkari gisa hartuko.

Kenkari hori ezin da izan zerga-oinarrian egotzitako errenta positiboagatik Espainian ordaindu beharko lukeen kuota osoa baino handiagoa.

9. Zuzeneko nahiz zeharkako partaidetza eskualdatzetik datorren errenta kalkulatzeko, eskurapen-balioari egiazki banatu ez diren onura sozialen zenbatekoa gehituko zaio. Onura sozial horiek bazkideei haien akzioen edo partaidetzen errenta gisa, eskurapenetik eskualdaketa doan aldiari, egotziko zizkioketen errentei dagozkie.

Partaidetza onura sozialak lortu ondoren eskuratzen duten bazkideen kasuan, eskurapen-balioari dibidenduen edo mozkinetako partaidetzen zenbatekoa kenduko zaio. Dibidendu edo partaidetza horiek aurretik egotzitako errentei dagozkie.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen arabera ondare entitateak diren entitateen kasuan, Ondarearen gaineko Zergan aurreikusitako moduan, zenbatu beharreko eskualdaketa-balioa izanen da, gutxienez, eskualdatutako balioei dagokien ondare garbiaren balioa, itxitako azken balantzean duena, behin aktiboen kontabilitate balioa ondarearen gaineko zergaren ondorioetarako izanen luketen balioaz edo merkatuan izanen luketen balioaz, hori txikiagoa izanez gero, ordeztu ondoren.

10. Partaidetzako entitateak egoitza baldin badu edo establezimendu iraunkorra baldin bada go lankidetzarik gabeko jurisdikziotzat hartutako herrialde edo lurralde batean, uste izanen da:

a) 1.b) apartatuan aurreikusitako inguruabarra betetzen dela.

b) Partaidetzako entitatearen errentek 3. apartatuko ezaugarriak dituztela.

c) Partaidetzako entitateak eskuratutako errenta partaidetzaren eskurapen-balioaren 100eko 15 dela.

Aurreko letretan bildutako presuntzioek kontrako proba onartuko dute.

11. Artikulu honetan ezarritakoa ez da aplikatu entitate ez-egoiliarra edo establezimendu iraunkorra Europar Batasuneko beste estatu baten egoiliarra denean edo han kokatzen denean, betiere zergadunak egiaztatzen badu jarduera ekonomikoak gauzatzen dituela, edo inbertsio kolektiboko funtsa denean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65 (EE) Zuzentarauan arautua, 52.4 artikuluan aurreikusita ez dagoena eta Europar Batasuneko estatu batean eratua eta helbidea bertan duena. Zuzentaru horren bidez, balore higigarrietako inbertsio kolektiborako erakunde batzuentzako lege, erregelamendu eta administrazio xedapenak koordinatzen dira.

12. Artikulu honetan ezarritakoa aplikatu behar zaien subjektu pasiboek Espainiako lurraldeko entitate ez-egoiliarren datu hauek aurkeztu beharko dituzte, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpenarekin batera:

a) Izena edo sozietatearen izena eta egoitza sozialaren helbidea.

b) Administrazioaren zerrenda eta haien egoitza fiskalaren helbidea.

c) Balantzea, galera eta irabazien kontua eta memoria.

d) Egotzi beharreko errenta positiboaren zenbatekoa.

e) Egotzi beharreko errenta positiboarengatik ordaindutako zergen justifikazioa.

Establezimendu iraunkorrei dagokienez, zergadunak aurkeztu beharko ditu zerga horren aitorpena, aurreko d) eta e) letretan aipatzen diren datuak, eta egindako eragiketen kontabilitate-erregistroak eta horiei atxikitako aktibo eta pasiboekin”.

Hamahiru. 55.1.Zazpigarrena artikulua, a)b') eta b)b') letrak; 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“b’) 2.000 euro urtean.

Berrogeita hamar urtez goitiko partaide edo mutualisten kasuan, zenbatekoa 5.000 eurokoa izanen da urtean”.

“b’) 5.000 euro urtean, gizarte-aurreikuspeneko sistemetara enpresek eginiko ekarpenetarako, baldin eta partaideei, aseguratuei edo mutualistei egotzitako ekarpenak badira. Zenbateko horretatik goiti egiten duten ekarpen egotziak kontuan hartuko dira aurreko a) letran aurreikusten den gehieneko muga bateratua aplikatzeko ondorioekin”.

Hamalau. 62.3. artikulua, bigarren paragrafoa indargabetzea; 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

Hamabost. 66.f) artikulua indargabetzea; 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

Hamasei. 68 quinquies artikulua, A.2 eta D.5 apartatuak. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“2. Kenkariaren zenbatekoa aurrez ordainduko da, etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuan hilabete bakoitzean ordaindutako errenta justifikatu ondoren”.

“5. Emantzipaziorako errentamenduaren kenkariaren ordainketa hileroko egingen da. Kenkarirako eta haren ordainketa aurreraturako eskubidea galduko da alokairuaren ordainketa hurrengo hilabete lehen eguna baino lehen justifikatzen ez den hilabetei dagokienez”.

Hamazazpi. 78. artikulua, 2. apartatuari paragrafo bat gehitzea eta 3. apartatuari paragrafo bat gehitzea. 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Hori hala izanik ere, nekazari gazteen lehen instalaziorako Espainiako Landa Garapenerako Esparru Nazionalen ezarritako laguntza publiko-

ak, laurdenetan egozten ahalko dira, lortzen diren zergaldian eta hurrengo hiruretan”.

“Hori hala izanik ere, nekazari gazteen lehen instalaziorako Espainiako Landa Garapenerako Esparru Nazionalen ezarritako laguntza publikoak, erabiltzen badira nekazaritzako sozietate-entresen kapitalean partaidetza bat eskuratzeko, laurdenetan egozten ahalko dira, lortzen diren zergaldian eta hurrengo hiruretan”.

Hemezortzi. 78.9. artikulua; 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak:

“9. Zergaldi bakoitzeko higigarrien kapitaleko etekin gisa egotziko da (30.1 artikuluan aipatutakoa), ondoko hau: zergaldiaren bukaeran eta hasieran polizari atxikitako aktiboen likidazio-balioen arteko aldea, hartzailleak inbertsioaren arriskua bere gain hartzen duen bizi-asegurua kontratuetan.

Egotzitako errenten zenbatekoak kontratuen zenbatekoak jasotzetik heldu diren etekina gutxituko du.

Ondoren azaltzen diren ezaugarrietakoren bat duten kontratuetan ez da aldi bateko egozpenaren arau berezi hori aplikatuko:

A. Hartzailleari polizari atxikitako inbertsioak aldatzeko ahalmena ez ematea.

B. Hornidura matematikoak ondoko hauetan inbertiturik egotea:

a) Inbertsio kolektiboko erakundeen akzioak edo partaidetzak, kontratuetan aurrez ezarriak, baldin eta:

a’) Inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legea egokitutako inbertsio kolektiboko erakundeak badira.

b’) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/EE Zuzentarauaren babespeko inbertsio kolektiboko erakundeak badira.

b) Entitate aseguratzailearen balantzean banandurik jasotako aktiboen multzoak, ondoko baldintza hauek betetzen badira:

a’) Banandutako aktibo multzo bakoitza osatzen duten aktiboak entitate aseguratzaileak zehaztuko ditu denbora guztian, eta horretarako, aktiboak aukeratzeko askatasun osoa izanen du entitateak, eta aurrez ezarritako irizpide orokor batzuk baizik ez ditu bete beharko, aktiboen multzoaren arrisku profilari edo bestelako gorabehera objektiboei buruzkoak.

b’) Aktibo multzo bakoitzeko horniduren inbertsioa azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuaren 89. artikuluan ezarritako arauak betetzen dituzten aktiboetan gauzatu beharko da. Errege dekretu hori aseguru eta berraseguru entitateen antolamenduari, gainbegiratzeari eta kaudimenari buruzkoa da. Inolaz ere ez dira izanen ondasun higiezinak edo higiezinaren gaineko eskubide errealak.

Nolanahi ere, aktiboen multzoek baldintza horiek betetzen dituztela ulertuko da, baldin eta Europar Batasuneko bigarren mailako balore-merkatu ofizial batzuen adierazgarria den burtsa edo errenta finkoko indize jakin bat errepikatzen duen inbertsio politika bat garatzen saiatzen badira.

c’) Hartzailleak zilegi izanen du soilik banandutako aktibo multzoen artean hautatzea zeinetan inbertitu behar duen aseguru-entitateak aseguruaren hornidura matematikoa, baina inoiz ez du zilegi izanen esku hartzea hornidura horiek zein aktibo zehaztetan inbertitzen diren erabakitzeko, multzo banandu bakoitzaren barrenean.

Kontratu mota horietan, aseguru-hartzailleak edo aseguratuak, polizaren zehaztapenei jarraikiz, kontratuetan berariaz izendaturiko inbertsio kolektiboko entitateetatik edo banandutako aktibo multzoen artean aukeratzeko ahalmena emateko, aseguru-hartzaille edo aseguratu bakoitzerako banakako zehaztapenik egin gabe.

Apartatu honek aipatzen dituen baldintzak kontratuaren indarraldi osoan bete beharko dira”.

Hemeretzi. 87. artikulua, f) letra gehitzea; 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“f) Kooperatibetarako, kooperatibari egindako ekarpen sozialak eskualdatzearen edo itzultzearen ondoriozko errentei dagokienez. Zerga-ekumenak dituen departamentuko titularrari gaikuntza ematen zaio, zehazteko zein den eman beharreko informazioa eta informazioa emateko betebeharrak hori nola eta zer epeetan bete”.

Hogei. Laugarren xedapen gehigarria, 8. eta 9. apartatuak gehitzea; 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“8. Espainiako lurraldean egoitza duten pertsonak eta entitateak edo atzerrian egoitza duten pertsonak edo entitateak Espainiako lurraldean dituzten establezimendu iraunkorrek hirugarrenen izenean zerbitzuak ematen badituzte pasahitz kriptografiko pribatuak gordetzeko, eta diru birtualak edukitzeko, biltegitratzeko eta eskualdatzeko, izan zerbitzu hori izaera nagusikoa edo beste jardueraren batekin lotua, beharturik egonen dira Zerga-

administrazioari zaintzen dituzten diru birtual guztien informazioa ematera. Eman beharreko informazio horretan sartzen dira diru birtual bakoitzean eta, kasua bada, legezko dirutan dauden saldoak, hala nola saldo horien titularren, baimendunen edo onuradunen identifikazio-datuak.

Zerga arloko eskumena duen departamentuko titularrak foru agindu bidez ezarriko du apartatu honetan aipatzen den aitortpena aurkezteko eredu, epea, modua eta edukia.

9. Espainian egoitza duten pertsonak eta entitateak eta atzerrian egoitza duten diren pertsonak edo entitateak Espainiako lurraldean dituzten establezimendu iraunkorrek diru birtualaren eta legezko diruaren arteko truke-zerbitzuak edo zenbait diru birtualen artekoak ematen badituzte edo horrelako eragiketetan, edozein modutan, artekari aritzen badira edo diru birtualak mantendu, biltegi-ratu eta eskualdatzeko hirugarrenen izenean pasahitz kriptografiko pribatuak gordetzeko zerbitzuak ematen badituzte, beharturik daude Zerga-administrazioari diru birtualak eskuratzeko, eskualdatzeko, trukatzeko edo transferitzeko eragiketen, hala nola diru horietan egindako kobrantzen eta ordainketen berri ematera, haietan esku hartzen badute edo artekari aritzen badira. Hartara, aurkeztu beharko dituzte zerbitzu horietan parte hartzen duten subjektuen izen-zerrenda, adierazita haien identifikazio fiskaleko helbidea eta zenbakia, diru birtual mota eta kopurua eta eragiketaren salneurria eta data.

Betebehar bera dute Espainian egoitza duten pertsonak eta entitateak eta atzerrian egoitza duten pertsonak edo entitateak Espainiako lurraldean dituzten establezimendu iraunkorrek diru birtual berrien hasierako eskaintzak egiten badituzte, beste diru birtual batzuen edo legezko diruaren truke entregatutakoei dagokienez.

Zerga arloko eskumena duen departamentuko titularrak foru agindu bidez ezarriko du apartatu honetan aipatzen den aitortpena aurkezteko eredu, epea, modua eta edukia”.

Hogeita bat. Bederatzigarren xedapen gehigarria.

“Bederatzigarren xedapen gehigarria. Etxebizitza bat alokairu-araubidean eskuratzen laguntzeko kenkari baldintzak 2021ean.

1. 2021. urtean, honako hauek egiten ahalko dute emantzipazioarako errentamenduagatik kenkaria (68 quinquies A artikuluan ezarria: Nafarroan erroldaturik gonda, eta kenkaria izateko gainera-

ko baldintzak betez, salbu eta adinari dagokiona, honako egoera hauetako batean daudenak:

a) 2021eko urtarrilaren 1ean edo hortik aurrera langabezian dagoen enplegu eskatzaile bezala inskribatuta daudenak.

b) 2021eko urtarrilaren 1ean edo hortik aurrera aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientearen (ABEEE) egoeran inskribatuta daudenak.

Kenkaria 2021eko abenduaren 31 arte emanen da.

2. 2021ean 68. quinquies artikuluan B.1.a) apartatuan jasota dagoen kenkaria aplikatzeko, ez da beharrezkoa izanen gutxienez urtebete eramatea inskribatua etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsuan, eta errentamendu kontratu ikus-onetsiari dagokionez ere ez da gutxieneko epe hori eskatuko. Hala, nahikoa izanen da etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsuan inskribaturik egotea 2020ko abenduaren 31 baino lehenagotik, errentamenduaren modalitatean edo erosteko aukera duen errentamenduaren modalitatean, edo, bestela, etxebizitza babestu baten errentari izatea, Administrazioak egun hori baino lehen ikus-onetsitako kontratu batekin”.

Hogeita bi. Berrogeita zazpigarren xedapen gehigarria indargabetzea; 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

Hogeita hiru. Hirurogeigarren xedapen gehigarria gehitzea; 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Hirurogeigarren xedapen gehigarria. Salgaien errepide-garraioaren jardueraren etekin garbiaren murrizketaren ehunekoa 2021ean.

2021erako, salgaien errepide-garraioaren jarduerari zuzeneko zenbatespen berezian aplikatu beharreko etekin garbiaren murrizketaren ehunekoa 100eko 50 izanen da, 36.B)4.c) artikuluan ezarritakoaren ordeztu”.

Hogeita lau. Hirurogeita batgarren xedapen gehigarria gehitzea; 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak

“Hirurogeita batgarren xedapen gehigarria. Ostalaritza eta jatetxe jardueraren etekin garbiaren murrizketaren ehunekoa 2021ean.

2021erako, hurrengo jarduerari zuzeneko zenbatespen berezian aplikatu beharreko etekin garbiaren murrizketaren ehunekoa 100eko 20 izanen da, 36.B)4.a) artikuluan ezarritakoaren ordeztu”.

EJZ	JARDUERA EKONOMIKOA
671.4	Bi sardexkako jatetxeak.
671.5	Sardexka bateko jatetxeak.
672.1, 2 eta 3	Kafetegiak.
673	Kafetegi eta tabernetako zerbitzuak.
675	Merkatuetan edo azoketan eta bide publikoan edo lorategietan (aire zabalean) kokaturiko kiosko, kutxa, txosna edo antzeko beste lokaletako zerbitzuak.
676	Txokolate-denda, izozki-denda eta hortxata-dendetako zerbitzuak.

Apartatu berria. Hirurogeita bigarren xedapen gehigarria gehitzea; 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak

“Hirurogeita bigarren xedapen gehigarria. Zuzeneko zenbatespen bereziko atxikipenak eta ordainketa zatikatuak.

1. Etekin garbia zuzeneko zenbatespen bereziko araubideari jarraikiz zehazten denean, honako jardueren kontraprestazio gisa ordainduriko gutzitiko diru-sarreraren gaineko ehuneko 1eko atxikipen-tasa aplikatuko da:

EJZ	JARDUERA EKONOMIKOA
722	Errepide bidez egiten den merkantzien garraioa
757	Mudantza-zerbitzuak.

2. Subjektu pasiboak ez dira behartuta egonen 1. apartatuak aipatzen dituen jarduerengatiko konaturako ordainketak egitera, apartatu horren aplikazioaren ondorioz haien diru-sarrerak atxikipenpean daudenean.

3. Xedapen gehigarri honetan ezarritakoa erregelamendu bidez aldatu ahalko da”.

Apartatu berria. Hirurogeita hirugarren xedapen gehigarria gehitzea. 2021ean izanen ditu ondorioak.

“Hirurogeita hirugarren xedapen gehigarria. Ondorengoak, aurreko ahaideak, beste ahaide batzuk eta desgaitasuna duten pertsonak zainzteagatik Gizarte Segurantzari 2021ean ordaindutako kuoten kenkaria.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuota osotik subjektu pasiboak Gizarte Segurantzarako kotizazioengatik 2021ean ordaindutako zenbatekoen 100eko 100 kendu ahal izanen da, 62.9.c) artikuluan aipatzen diren pertsonen zaintzan familia-etxean lan egiten duten pertsonekin formalizatutako kontratuen ondorioz.

2021eko ekitaldian ez da aplikatzekoa izanen 62.c) artikuluan aurreikusitako kenkaria”.

Hogeita bost. Hogeita zazpigarren xedapen iragankorra gehitzea.

“Hogeita zazpigarren xedapen iragankorra. Zuzeneko zenbatespen bereziaren araubideari uko egitea 2021ean.

Enpresa-jarduerak egiten dituzten subjektu pasiboak 2021ean zuzeneko zenbatespen bereziaren araubidearen aplikazioari uko egin nahi badiote, ukoa 2021eko martxoaren 31 arte aurkez dezakete. Uko horrek 36.B).5 artikuluan adierazitako ondorioak izanen ditu”.

Hogeita sei. Hogeita zortzigarren xedapen iragankorra gehitzea; 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Hogeita zortzigarren xedapen iragankorra. 2021 baino lehenagoko ukoen ondorioak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboko araubideari eta balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide erraztuari eta bereziari.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboko araubideari eta balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide erraztuari eta bereziari egindako ukoek, hots, 2020. urtean eta



aurrekoetan aurkeztutakoek, 2020ko abenduaren 31n indarrean dagoen araudiaren arabera ezarritako ondorioak izaten segituko dute.

2021ean ondorioak izanen dituen errebokatzea 2021eko martxoaren 31 arte aurkez daiteke”.

**Bigarren artikulua.** Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen manu hauek testu hau izanen dute:

Apartatu berria. 24.1. artikulua, hirugarren paragrafoa. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“Mozkin operatiboa zehaztuko da abiapuntu-tzat harturik ekitaldiko galera-irabazien kontuko ustiapen-emaitza, Merkataritza Kodeari eta garena egiteko gainerako kontabilitate-araudiari jarraikiz zehaztua, eliminatuz ibilgetuaren amortizazioa, ibilgetu ez-finantzarioaren dirulaguntzen eta besteren egozpena eta ibilgetuaren nariadura eta besterentzeengatik emaitza, eta gehituz ondare-tresnetako partaidetzetatiko diru-sarrera finantzarioak, baldin eta badagozkie dibidenduei edo halako entitateetako partaidetzei non partaidetza-portzentajea, zuzeneko edo zeharkakoa, gutxienez ere ehuneko 5ekoa baita, salbu eta partaidetza horiek eskuratu direnean halako zorrek zeinen gastu finantzarioak ez baitira kengarri 23.1.g) artikulua aplikazioa tarteko”.

Bat. 26.1.a) eta b) artikulua; 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“a) Ibilgetuko zati diren ondare-elementu amortizagarrien edo ondasun higiezinetakoinbertsioen kasuan, balio-bizitza osatzeko gelditzen diren zergaldietan, aipatutako diferentziari aplikatuta aipatutako elementuen kasuan erabilitako amortizazio metodoa, salbu eta balio-bizitza bukatu aurretik eskualdatzen badira; kasu horretan, eskualdaketa egin zeneko zergaldian sartuko da gelditzen den diferentzia.

b) Ibilgetuko zati diren ondare-elementu ez amortizagarrien edo ondasun higiezinetakoinbertsioen kasuan, eskualdatzen diren zergaldian”.

Bi. 27.2 artikulua; 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak, baldin eta foru lege honek indarra hartzean amaitu ez badira.

“2. Egoitza Espainiako lurraldean izanik, atzerrira eramaten duen entitate baten jabetzakoak diren ondare-elementuen merkaturako balioaren eta balio fiskalaren arteko diferentzia zerga-oinarrian

sartuko da, salbu eta ondare-elementu horiek entitateak Espainiako lurraldean duen establezimendu iraunkor bati atxikita gelditzen badira. Kasu horretan, ondare-elementu horiei aplikatu beharko zaie 120. artikuluan aurreikusitakoa.

Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu batera transferitutako ondare-elementuen kasuan, baldin eta estatu horrek Espainiarekin edo Europar Batasunarekin akordio bat badu zerga-kredituak kobratzearen arloko elkarrekiko laguntzaren arloan, eta akordio hori Kontseiluaren 2010eko martxoaren 16ko 2010/24/EB Zuzentarauan aurreikusitako elkarrekiko laguntzaren baliokidea bada (zuzentaru hori zerga, eskubide eta beste batzuei dagozkien kredituak kobratzearen arloko elkarrekiko laguntzari buruzkoa da), zergadunak aukera izanen du aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzearen ondoriozko zerga-zorren ordainketa urteko bost zati berdinetan ordaintzeko.

Aukera hori egoitza aldaketa dela eta amaitutako zergaldiari dagokion zerga-aitorpenean bakarrik gauzatuko da, eta lehen zatia zergaldi horri dagokion borondatezko aitorten-epean ordaindu beharko da.

Urteko gainerako lau zatietako bakoitzaren epemuga eta galdagarritasuna, bakoitzak sortutako berandutze-interesekin batera, elkarren segidan gertatuko da, azken zergaldiari dagokion borondatezko aitorten-epea amaitu eta urtebeterra.

Apartatu honetan jasotako berezitasunak izan ezik, zatikatze horri Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrean eta hura garatzeko araudian berandutze-interes sorrerari eta bermeak eratzeari buruz xedatutakoa aplikatuko zaio. Hala ere, bakarrik eskatzen ahalko da bermeak eratzea zorra kobratzea zapuztu edo larriki zaildu daitekeela pentsatzeko arrazoizko zantzuak daudela justifikatzen denean.

Diru-bilketako organoak arrazoizko zantzu horiek lehenengo zatia borondatez ordaintzeko epea amaitu eta hurrengo 6 hilabeteetan hautemanenez gero, zergadunari jakinaraziko zaio, dagokion errekerimenduaren bidez, jakinarazpena egin eta biharamunetik hasita 10 eguneko epean behar adina berme aurkez ditzan. Errekerimenduari kasurik egiten ez bazaio, edo, aurkezturik ere, berme nahikoekin edo behar bezala justifikaturik aurkezten ez bada, zor osoa eskatuko da, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean eta Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketarako Erregelamenduan, uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoan, ezarritako epe-



tan. Ordainketa epe horretan egiten ez bada, epe exekutiboa hasiko da, eta premiamendu-prozedura abiatu beharko da, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean aurreikusitako moduan.

Zatikatzek indarra galduko du kasu hauetan:

a) Ukitutako ondare-elementuak hirugarrenei eskualdatzen zaizkienean.

b) Ukitutako ondare-elementuak, geroago, apartatu honen bigarren paragrafoan adierazitakoez beste hirugarren estatu batera lekualdatzen direnean.

c) Zergadunak, geroago, bere zerga-egoitza apartatu honen bigarren paragrafoan adierazitakoez beste hirugarren estatu batera lekualdatzen duenean.

d) Zergaduna likidazioan dagoenean edo betearazpen kolektiboko prozedura batean sartuta dagoenean, hala nola konkurtsoan edo beste edozein prozedura baliokidetan.

e) Zergadunak zatikapenean aurreikusitako epean diru-sarrera egiten ez duenean.

a) eta b) letretan aipatzen diren eskualdatze edo lekualdatze kasuetan, ondare-elementuen eskualdatze edo lekualdatze partziala denean, zatikapenak indarra galduko du soilik elementu horien merkatuko balioaren eta balio fiskalaren arteko diferentzia positiboari dagokion zergazorraren zati proportzionalari dagokionez, zergadunak frogatzen duenean eskualdatze edo lekualdatze horrek soilik ondare-elementuren bati edo batzuei eragiten diela.

a), b) eta c) letretan jaso bezala, zatikapenak indarra galtzen duenean, indarra galtzek eragiten dien zenbatekoak hilabeteko epean ordaindu beharko dira, zatikapenak indarra galtzen duenetik kontatzen hasita. Hilabeteko epean ordaintzen ez bada, zatikapenak indarra galtzek eragiten dien zenbatekoei dagokionez soilik, premiamendu-prozedura hasiko da, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera. Ordaintzen den zenbatekoa zatikapenaren azken zati mugaguneratuei aplikatuko zaie. Eskatutako zenbatekoak epe horietan ordaintzen ez badira, zatikatutako gainerako zorra mugaguneratutzat joko da, eta premiamendu-prozedura hasi beharko da.

d) letretan aipatzen den kasuan, zatikapenak indarra galduz gero, ordaindu gabeko zor osoaren mugaguneratzea eta galdagarritasuna hilabeteko epean ezarriko dira, gertatzen denetik zenbatzen hasita. Epe horretan ordaintzen ez bada, epe exekutiboa hasiko da, eta premiamendu-prozedura

Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean aurreikusitako moduan hasi beharko da.

e) letretan aipatzen den kasuan, zatikapenak indarra galtzen badu, premiamendu-prozedura hasiko da soilik bete ez den zati horri dagokionez. Honako hauek eskatuko dira: zati horren zenbatekoa, borondatezko aldi ordaintzeko epearen mugagunaren biharamunetik emandako epearen mugagunera arte sortutako berandutze-interesak, eta epe exekutiboaren errekargua bi kontzeptuen baturaren gainean.

Aurreko paragrafoaren arabera eskatutako zenbatekoak ordaintzen ez badira, mugaguneratutzat joko dira ordaintzeke dauden gainerako zatiak, eta premiamendu-prozedura hasi beharko da zor guztiei dagokionez. Borondatezko aldi ordaintzeko epea amaitzen den egunaren biharamunetik ordaindu gabeko zatia ordaintzeko mugagunera arte sortutako berandutze-interesak eskatuko dira.

Egoitza aldatzen denean edo ondare-elementuak edo jarduerak Espainiara transferitzen direnean, baldin eta, barne-merkatuaren funtzionamenduan zuzenean eragiten duten zerga-saihestearen praktiken aurkako arauak ezartzen dituen Kontseiluaren 2016ko uztailaren 12ko 2016/1164 (EB) Zuzentarauaren 5. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Europar Batasuneko estatu batean irteera zerga jaso badu, irteerako estatuak zehaztutako balioa balio fiskaltzat hartuko da Espainian, merkatuko balioa islatzen ez duenean izan ezik.

Apartatu honetan xedatutakoa ez da aplikatuko, eta, beraz, transferitutako ondare-elementuen merkatuko balioaren eta balio fiskalaren arteko diferentzia ez da zerga-oinarrian txertatuko, baldin eta elementu horiek lotuta badaude finantzaketarekin edo bermeak ematearekin, kapitalaren zuzentze baldintzak betetzeko edo likidezia kudeatzeko, baldin eta aurreikusten denean Espainiako lurraldera itzuli behar dutela gehienez ere urtebeteko epean Espainian kokatutako establezimendu iraunkor bati atxikitzeko”.

Apartatu berria. 35. artikulua, 1.a) apartatuaren lehen paragrafoa eta 6.a) apartatua aldatzea eta 11. eta 12. apartatuak gehitzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“a) Entitatearen kapitaleko edo funts berekieta-kopartaidetza, zuzeneko edo zeharkakoa, ehuneko 5ekoa izatea, gutxienez”.

“a) 4. apartatuan ezarritako baldintzak betetzea. Dena den, partaidetza-ehunekoari buruzko

baldintza bete dela ulertuko da ehuneko hori iritsi baldin bada eskualdaketa gertatzen den egunaren aurreko urteko uneren batean”.

“11. Artikulu honetan jasotako salbuespena aplikatzekoa zaien dibidenduen edo entitateen mozkinetako partaidetzen zenbatekoa, bai eta entitate bateko partaidetzaren eskualdaketa eta 4. apartatuak aipaturiko gainerako kasuetan lorturiko errenta positiboaren zenbatekoa ere, ehuneko 5 murriztuko da salbuespen hori aplikatzearen ondorioetarako, partaidetza horiekin loturiko kudeaketa-gastu kontzeptuan.

12. Aurreko apartatuak aipaturiko entitateen dibidenduei edo mozkinetako partaidetzei aplikatzekoa den murrizketa ez da aplikatuko honako inguruabar hauek biltzen direnean:

a) Entitate dibidendu-hartzailea:

1. aurre-aurreko zergaldian izan duen negozio zifraren zenbateko garbia 40 milioi euro baino gutxiagokoa izatea.

Negozio zifraren zenbateko garbia zehazte aldera, aplikatzekoa izanen da 12.1.a) artikuluko bigarren eta hirugarren paragrafoek xedaturikoa.

2. Ez da ondare-entitatetzat hartua izan behar, 8.2 artikulua ezarritako moduan.

3. Ez du partaide izan behar, b) letrak aipaturiko entitatea eratu aurretik, Merkataritza Kodeko 42. artikulua araberako sozietate-talde batean, zein ere diren egoitza eta uirteko kontu bateginak aurkezteko betebeharra.

4. Ez du zuzeneko edo zeharkako partaidetza-erantzule izan behar, b) letrak aipaturiko entitatea eratu aurretik, beste entitate baten kapitalean edo funts berekietan, ehuneko 5ekoa edo handiagoa denik.

b) Dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak etortzea 2021eko urtarrilaren 1aren ondoren eraturiko entitate batetik, zeinetan, zuzenean eta eratu zenetik, kapitalaren edo funts berekien osotasuna edukitzen baitira.

c) Dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak jasotzea horiek banatzen dituen entitatea eratu zen urtearen aurre-aurreko eta ondo-ondorengo hiru urteetan amaitzen diren zergaldietan”.

Hiru. 37.2 artikulua, bigarren paragrafoa; 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“Foru lege honen ondorioetarako, elementu bat berritatzat joko da aldez aurretik beste pertsona edo entitate batek erabili ez badu. Elementua erabili dela ulertuko da pertsona edo entitate horren ibil-

getuari edo ondasun higiezinetako inbertsioei gehitu zaionean edo gehitu behar zitzaionean, Kontabilitate Plan Orokorraren arabera, martxan jarri ez bada ere”.

Lau. 53.2. Bigarrena eta Hirugarrena.c) artikulua. 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“Bigarrena. Lortutako zenbatekoaren gainean ehuneko hauek aplikatuko dira:

a) 51.1.a) artikuluan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen duten zergadunen kasuan, %18.

b) 51.1.b) artikuluko lehen paragrafoan edo 51.2 artikuluan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen duten zergadunen kasuan, %16.

51.1.b) artikuluko bigarren paragrafoan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen duten zergadunen kasuan, %13.”

“c) 61. eta 62. artikuluetan araututako ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatik edo berorietan parte hartzeagatik kenkarien %50. Zergadunek 51.1.b) edo 51.2 artikuluan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen badute, aipatu ehunekoa %100 izanen da”.

Apartatu berria. 57. artikulua, 1.a) apartatua eta 4. apartatuko lehen paragrafoa. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“a) Egoiliar ez den entitatearen kapitaleko zuzeneko edo zeharkako partaidetza gutxienez 100eko 5ekoa izatea”.

“4. Kenkari honek, dibidenduei edo mozkinetako partaidetzei dagokienez 56. artikuluan ezarritakoarekin batera, ezin izanen du gainditu Espainian errenta horiengatik ordaindu beharko litzatekeen kuota osoa, errenta horiek espainiar lurraldean lortu izanez gero. Kuota oso hori kalkulatzeko, dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak ehuneko 5 murriztuko dira, partaidetza horiei loturiko kudeaketa-gastu kontzeptuan. Murrizketa hori ez da eginen 35.12 artikuluan ezarritako inguruabarrak dituzten dibidenduen edo mozkinetako partaidetzen kasuan”.

Bost. 65. artikulua, 1. apartatua, 2. apartatuko seigarren paragrafoa eta 6. apartatuko c) letra; 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren produkzioetan izanen ditu ondorioak.

“1.a) Espainiako film luze zinematografikoen eta ikus-entzunezko serieen (fikziokoak, animazio-koak edo dokumentalak) ekoizpenetan egindako inbertsioek, seriean egiteko ekoizpen industrial-

ren aurretik euskarri fisiko bat egitea ahalbidetzen dutenek, kuota likidoan ehuneko 35eko kenkaria egiteko eskubidea emanen diote ekoizleari.

Kenkariaren oinarria, zeina kultura alorrean eskudun den Nafarroako Gobernuaren organoaren ebazpen bidez zehaztuko baita, ekoizlearen inbertsioak osatuko du, baldin eta nafar lurraldean eginiko gastuak inbertsioaren ehuneko 40ra iristen badira. Bestelakoan, kenkari-oinarria izanen da nafar lurraldean eginiko gastuak 0,4rekin zatitzearen emaitza.

Tributuen arloan eskumena duen departamentuko titularraren foru agindu bidez zehaztuko dira kenkariaren oinarriaren parte izan daitezkeen gastuak, bai eta gastuak nafar lurraldean egintzat hartzeko irizpideak ere.

a) letra honen lehen paragrafoan ezarritako kenkari-portzentajea ehuneko 40koa izanen da kenkari-oinarriko lehen milioiarentzat, honako hauen kasuan:

1. Jatorrizko bertsio bakarria euskarazkoa duten ekoizpenak.

2. Emakumezko zuzendariek baizik eginak ez diren ekoizpenak.

3. Ekoizpen dokumentalak

4. Animazio-ekoizpenak 5. Inolako film luze zinematografikorik edo fikzio-, animazio- edo dokumental-alorrekoa den ikus-entzunezko serie-rik zuzendu edo kozuzendu ez duen pertsona baten zuzendaritzapeko ekoizpenak

Apartatu honetan araututako kenkariaren zenbatekoa ez da 5 milioi euro baino gehiagokoa izanen.

Koprodukzioen kasuan, apartatu honetan adierazitako zenbatekoak koprodukzioan parte hartzen duen bakoitzaren partaidetza-ehunekoaren arabera finkatuko dira.

b) Kenkaria obraren ekoizpena bukatzen den zergaldian sortu dela ulertuko da. Hala eta guztiz ere, ekoizpenak hamabi hilabete baino gehiagoko epea duenean edo entitatearen zergaldi batean baino gehiagotan eragiten duenean, entitateak zilegi izanen du kenkaria aplikatzea ordainketak egiten diren neurrian eta ordainketa horien zenbatekoan, kenkaria hasteko datan kenkarietarako indarrean dagoen araudia aplikatuta. Kasu horretan, kenkaria ordainketak egiten diren aldietan sortu dela ulertuko da.

c) Kenkari horri heldu nahi dioten zergadunek proiektuaren azalpen-memoria bat aurkeztu beharko dute Nafarroako Gobernuak kultura arlo-

ko zuzendaritza nagusi eskudunean, eta hark txosten bat emanen du proiektu horrek kenkariaren betekizunak eta baldintzak betetzen dituen argitzeko.

Txosten hori eskatzeko edukia eta prozedura zerga arloan eskumena duen departamentuko titularrak zehaztuko ditu.

Txostena eskatu ondoren, zergadunak sortutako kenkaria kontsignatzen ahalko du bere aitortpen-likidazioan.

d) Kenkari hau aplikatzeko nahitaezkoa izanen da produkzioak dagokion naziotasun-ziurtagiria eskuratzea eta, halaber, edukiaren izaera kulturala dela, errealitate kulturalarekiko lotura duela edo Espainian aurkezten diren lan zinematografikoen aniztasun kulturalari egindako ekarpena dela egiaztatzen duen ziurtagiria, Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuak emana.

e) Naziotasun-ziurtagiria eskatu eta sei hilabete epean, zergadunak ekoizlearen inbertsioaren justifikazioa aurkeztu beharko dio kulturaren arloko eskumena duen Nafarroako Gobernuaren zuzendaritza nagusiari, bai eta kenkaria egiaztatzeko ezarritako gainerako betekizunak betetzearen justifikazioa ere, zerga arloan eskumena duen departamentuko titularrak zehazten dituen baldintzetan.

Aurreko paragrafoan adierazitako epea betetzen ez bada, aplikatutako kenkaria galduko da, eta 76.3 artikuluan ezarritakoaren arabera erregulartzatuko da.

Kulturaren arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiak, kenkaria justifikatzen duen dokumentazioa aurkezten denetik 6 hilabeteko epean, ebazpena eman eta jakinaraziko du. Ebazpen horretan, kenkariaren oinarria zehaztuko du, kon-tuan hartuta ekoizlearen inbertsioa eta nafar lurraldean eginiko gastuak.

Ebazpen horretan aitortutako kenkari-oinarria aitortutako kenkari-oinarria baino txikiagoa bada, zergadunak ordaindu beharko ditu, ebazpena jakinarazi den zergaldiko kuotarekin batera, bidegabeki aplikatutako kenkariari dagokion kuota osoa gehi berandutze-interesak.

Kenkari horren zenbatekoa ez da bost milioi euro baino gehiagokoa izanen".

"c) Produkzio edo koprodukzio nazionalen kasuan, ekoizleak produkzioaren kopia bat Nafarroako Filmotekari eman beharko dio, obra bukatu eta hiru hilabeteko epean".

Sei. 66.6. artikulua; 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“6. Aurreko apartatuetao kenkariak bateraezina dira elkarren artean”.

Zazpi. 69.2. artikulua, indargabetzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan izanen ditu ondorioak.

Zortzi. 82.1, .2 eta .3 artikulua; 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak, baldin eta foru lege honek indarra hartzean amaitu ez badira.

“1. Nazioarteko gardentasun fiskala da 83. artikuluan aurreikusitako errenta positiboak, Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitate batek zein establezimendu iraunkor batek lortutakoak, zergadunari egozte, baldintza hauek betetzen direnean:

a) Zergadunak, berak bakarrik edo loturiko pertsona edo entitateekin batera, 28. artikulua dioen moduan, zergadunak 100eko 50eko edo hortik gorako partaidetza izatea Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitatearen kapital, funts bereki, emaitza edo boto-eskubideetan, entitatearen sozietate-ekitaldiaren itxiera egunean.

Egotzi beharreko errenta positiboaren zenbatekoa proportzionala izanen da entitatearen emaitzetan duten partaidetzarekin edo, bestela, kapitalean, funts berekietan edo boto-eskubideetan duten partaidetzarekin.

Egozpen hori derrigorrez eginen da, bai entitate ez-egoiliarrean partaidetza zuzena dagoenean, bai zeharkako partaidetza dagoenean beste entitate ez-egoiliar baten edo batzuen bidez. Azken kasu horretan, egotzi beharreko errenta positiboaren zenbatekoa zeharkako partaidetzari dagokiona izanen da.

b) Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitateak zerga honen izaera berdina edo antzekoa duen karga batengatik ordaindutakoa, 83.1 eta 2. artikuluan ezarritako errenta klaseetako bati egozten ahal zaiona, aipatu zergaren arauen arabera egokituko zitzaionaren 100eko 75etik beherrakoa izatea.

Egozpen hori bidezkoa izanen da, halaber, errenta horiek establezimendu iraunkor baten bidez lortzen direnean, aurreko b) letran aurreikusitako inguruabarra gertatzen bada; kasu horretan, ez da aplikatuko 36. artikuluan aurreikusitako salbuespena.

2. Kapitulu honetan aurreikusitakoa ez da aplikatuko entitate ez-egoiliarra edo establezimendu

iraunkorra Europar Batasuneko beste estatu batean egoiliarra denean edo han kokatzen denean, baldin eta zergadunak egiaztatzen badu jarduera ekonomikoak egiten dituela edo Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/EE Zuzentarauan araututako inbertsio kolektiboko erakunde bat dela (zuzentaru horren bidez, balore higigarrietako inbertsio kolektiboko erakunde jakin batzuei buruzko lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapenak koordinatzen dira), foru lege honen 97. artikuluan aurreikusitakoez bestelakoa, Europar Batasuneko estaturen batean eratuta eta helbidea bertan duena.

3. Partaidetzako entitateak egoitza baldin badu edo establezimendu iraunkorra baldin badago lankidetzarik gabeko jurisdikziotzat hartutako herrialde edo lurralde batean, uste izanen da:

a) 1.b) apartatuan aurreikusitako inguruabarra betetzen dela.

b) Partaidetzako entitatearen edo establezimendu iraunkorraren errentek 83.2 artikuluko ezaugarriak dituztela.

c) Partaidetzako entitateak eskuratutako errenta partaidetzaren eskurapen-balioaren 100eko 15 dela.

Aurreko letratan bildutako presuntzioek kontrako proba onartuko dute”.

Bederatzi. 83 artikulua; 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak, baldin eta foru lege honek indarra hartzean amaitu ez badira.

“83. artikulua. Egotz daitezkeen errentak

1. Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitateak edo establezimendu iraunkorrak lortutako errenta positibo osoa egotziko dute zergadunek, baldin eta horiek ez badute horretarako behar den baliabide materialen eta giza baliabideen antolaketa, eragiketak errepikatzen badira ere.

Apartatu hau ez da aplikatuko zergadunak egiaztatzen duenean eragiketa horiek egiten direla Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitate batean dauden baliabide materialekin eta giza baliabideekin, edo haren osaerak eta jarduerak arrazoi ekonomiko baliagarri erantzuten dietela. Entitate horrek talde berekoa izan behar du, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, egoitza non duen eta urteko kontu kontsolidatuak egiteko betebeharra duen kontuan hartu gabe.

Apartatu honen lehenbiziko paragrafoan xedatutakoa hurrengo apartatuan ezarritakoaren gainetik dago.

2. 1. apartatuan ezarritakoa aplikatzen ez bada, iturri hauetatik datorren errenta positiboa egotziko da soilik:

a) Hiri- zein landa-ondasun higiezinaren edota horiei dagozkien eskubide errealeen titulartasuna, salbu eta jarduera ekonomiko bati lotuta badaude edo horien erabilera egoiliar ez diren entitateei lagapenean emana badago. Entitate horiek titularraren sozietate-talde berekoak izan behar dute, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, egoitza non duten eta urteko kontu kontsolidatuak egiteko betebeharrak duten kontuan hartu gabe, eta horiek ere jarduera ekonomiko bati atxikita.

b) Edozein entitatek dituen funts berekietan partaidetza izatea eta kapital berekiak hirugarrenei lagatzea, halakotzat hartzen badira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen Testu Bategineko 28. eta 29. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Ez da sartuko ondorengo finantza-aktiboetatik datorren errenta positiboa:

Lehena. Jarduera ekonomikoetan aritzearen ondorioz sortzen diren legezko eta erregelamenduzko betebeharrak betetzeko direnak.

Bigarrena. Jarduera ekonomikoak garatzean ezarritako kontratu-harremanen ondorioz sortzen diren kreditu eskubideak biltzen dituztenak.

Hirugarrena. Balore-merkatu ofizialetan artekaritza jardueretan aritzearen ondorioz dituztenak.

Laugarrena. Kreditu- eta aseguru-entitateekin beraien jardueretan aritzearen ondorioz dituztenak, i) letran ezarri dena deusetan galarazi gabe.

Kapital berekiak hirugarrenei lagatzen dituzten errenta positiboa i) letran aipatuko diren kreditu- eta finantza-jarduerak buruzetik datorrela ulertuko da, lagatzailea eta lagapen-hartzailea sozietate-talde batekoak direnean Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan ildotik eta lagapen-hartzailearen diru-sarrerak, 100eko 85ean gutxienez, jarduera ekonomikoetan aritzeagatik datorrenean.

c) Kapitalizazio eta aseguru eragiketak, entitatea bera onuradun dutenak.

d) Jabetza industrial eta intelektuala, aholkularitza teknikoa, ondasun higariak, irudieskubideak eta negozio edo meategien errentamendu edo azpierreantamendua, halakotzat hartzen badira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko

Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen Testu Bategineko 30.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

e) Aurreko a), b), c) eta d) letretan aipatutako ondasun eta eskubideen eskualdaketa, betiere errentak sortzen baditu.

f) Finantza-tresna deribatuak, berariaz identifikatutako arrisku bat, jarduera ekonomikoak egitearen ondoriozkoa, estaltzeko izendatuak izan ezik.

g) Aseguru-jarduerak, kreditu-jarduerak, finantza-errentamenduko eragiketak eta bestelako finantza-jarduerak, salbu eta jarduera ekonomikoetan lortutako errentak badira, i) letran ezarritakoa galarazi gabe.

h) Lotura duten pertsona eta entitateekin egindako ondasun eta zerbitzuen gaineko eragiketak, 28. artikuluan adierazi bezala, zeinetan entitate ez-egoiliarak edo establezimenduak gehitzen duen balio ekonomikoa hutsaren hurrengoa edo hutsa den.

i) Espainiako lurraldeko egoiliarak diren pertsona edo entitateekin zuzenean edo zeharka egindako kreditu- jarduerak, finantza- jarduerak, aseguru- jarduerak eta zerbitzuak emateko jarduerak. 28. artikuluan zentzuan lotutako pertsonak edo entitateak izan behar dira, eta jarduerak zerga ondorioetarako kengarriak diren gastuak sortu behar dituzte entitate egoiliar horientzat.

Letra honetan aipatzen den errenta positiboa ez da sartuko, baldin eta, halako jardueretatik (kreditu-jarduerak, finantza-jarduerak, aseguru-jarduerak eta zerbitzuak emateko jarduerak) datozen diru-sarreraren bi heren edo gehiago 28. artikuluan arabera ez lotutako pertsona edo entitateekin egindako eragiketen ondoriozkoak direnean.

3. 2. apartatuan aurreikusitako errentak ez dira egotziko honako kasu hauetan:

a) haien zenbatekoen batura entitate ez-egoiliarak edo establezimendu iraunkorrak lortutako errenta osoaren 100eko 15 baino txikiagoa bada.

Hori hala izanik ere, 2.i) apartatuan aipatzen diren errentak beti egotziko dira eta, orobat, kontuan hartuko dira aurreko paragrafoan aipatzen den batura hori zehaztearen ondorioetarako.

b) Espainiako lurraldean egoitza duten entitateentzat zerga ondorioetarako kengarriak ez diren gastuekin bat datozenean.

4. Egotzi beharreko errenten zenbatekoa kalkulatzeko, foru lege honetan eta zerga honen gaineko gainerako xedapenetan zerga-oinarria zehazteko ezartzen diren printzipio eta irizpideak



erabiliko dira. Errenta osotzat hartuko da printzipio eta irizpide horiek aplikatuz ateratzen den zerga-oinarri positiboaren zenbatekoa.

Ondorio horietarako, Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitatearen sozietate-ekitaldiaren itxieran indarrean dagoen kanbio-tasa erabiliko da.

Inola ere ez da egotziko entitate ez-egoiliarren errenta osoa edo establezimendu iraunkorren bidez lortutakoa baino zenbateko handiagorik.

Errenta positibo bakoitza behin baino ezin da egotzi, modua eta xedeko entitatea edozein izanik ere.

5. Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitateak bere sozietate-ekitaldia bukatu duen eguna sartuta dagoen zergaldian eginen da egozpena. Ondorio hauetarako, zergaldia ez da hamabi hila-betik gorakoa izanen.

Establezimendu iraunkorrak direnean, errentak lortzen diren zergaldian eginen da egozpena.

6. Dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak ez dira zerga-oinarri sartuko, zerga-oinarri sartua izan den errenta positiboari dagokion zatian. Horri dagokionez, dibidenduen edo mozkinetako partaidetzen zenbatekoa ehuneko 5 murriztuko da, partaidetza horiei loturiko kudeaketa-gastuen kontzeptuan, salbu eta 35.12 artikuluan ezarritako inguruabarrak gertatzen direnean. Tratamendu bera aplikatuko zaie konturako dibidenduei.

Erreserben banaketa kasuetan, akordio sozialean jasotako izendapena hartuko da kontuan, eta, hala ez bada, ulertuko da erreserba horietara ordaindutako azkeneko kopuruak aplikatu direla”.

Hamar. 84.2 artikulua, bigarren paragrafoa; 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak, baldin eta foru lege honek indarra hartzean amaitu ez badira.

“Lankidetzarik gabeko jurisdikziotzat hartutako herrialde edo lurraldeetan ordaindutako zergak ez dira inola ere kenkari gisa hartuko”.

Apartatu berria. 85. artikulua, lehenengo lerrokada. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“Zuzeneko nahiz zeharkako partaidetza eskualdatzetik datorren errenta kalkulatzeko, eskurapen-balioari egiazki banatu ez diren onura sozialen zenbatekoa gehituko zaio. Onura sozial horiek bazkideei haien akzioen edo partaidetzen errenta gisa, eskurapenetik eskualdaketa doan aldi, egotziko zizkioketen errentei dagozkie. Ildo

horretan, paragrafo honek aipagai dituen onura sozialen zenbatekoa ehuneko 5 murriztuko da, partaidetza horiekin loturiko kudeaketa-gastu kontzeptuan”.

Hamaika. 86. artikulua, azken paragrafo bat gehitzea; 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak, baldin eta foru lege honek indarra hartzean amaitu ez badira.

“Establezimendu iraunkorrei dagokienez, zergadunak aurkeztu beharko ditu zerga horren aitortzen, aurreko d) eta e) letretan aipatzen diren datuak, eta egindako eragiketen kontabilitate-erregistroak eta horiei atxikitako aktibo eta pasiboak”.

Apartatu berria. 104.2 artikuluarik paragrafo bat gehitzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“35.11 artikulua ezarritakoa aplikatzeagatik banakako zerga-oinarrietan sartuak izan behar diren zenbatekoak ez dira eliminatuko”.

Hamabi. 111.1 artikulua, lehen paragrafoa; 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“1. Talde fiskalaren kuota osoari VI. tituluko II., III. eta IV. kapituluetan aurreikusitako kenkariak eta hobarien zenbatekoa kenduko zaio, bai eta aplikatzea izan daitekeen beste edozein kenkari ere”.

Hamahiru. 132.bis artikulua gehitzea VIII. tituluko IX. kapituluaren lehenengo atalari, ondorioak izan ditzan 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan.

“132. bis artikulua. Kuotaren kenkariak.

Kuotaren kenkariak VI. tituluan aurreikusitako arauak aplikatuz zehaztuko dira. Hala ere, salbuetsitako jardueri soilik egotz dakizkiekeen gastu eta inbertsioek ez dute kenkarirako eskubiderik emanen. Salbuetsi gabeko jardueri partzialki egotz dakizkiekeen gastuek eta inbertsioek kenkarirako eskubidea emanen dute, salbuetsi gabeko errentak dituzten jarduera ekonomikoetan eta gainerako jardueretan ekitaldian lortutako diru-sarrerak entitatearen guztizko diru-sarreretan egiten duten ehunekoan”.

Hamalau. Hogeigarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Hogeigarren xedapen gehigarria. Enplegua sortzeagatik kenkaria, 2019an sortua.

Enplegua sortzeagatik kenkariari dagokionez, zeina arautua baitago 66. artikuluan, kenkaria

2019ko zergaldian sortu bada, ez da bete beharko kenkaria egiteko eskubidea eman zuten batez besteko plantillak mantentzeko baldintza. Nolanahi ere, esandakoa aplikatuko da kenkaria sortu zen zergaldia bukatu eta ondoko hamabi hilabete-ko bigarren epean, eta, bakar-bakarrik, batez besteko plantillak ez mantentzeko arrazoia izan baldin bada COVID-19ak eragindako osasun krisiaren egoera”.

Hamabost. Hogeita batgarren xedapen gehigarria gehitzea; 2020an eta 2021ean hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“Hogeita batgarren xedapen gehigarria. Kenkaria, automobilgintzaren industriaren balio-kateko ekoizpen-prozesuen berrikuntza teknologikoko jarduerengatik.

1. 2020. eta 2021. urteetan hasten diren zergaldietarako efektuekin, 61.3 artikuluan aipatzen den kenkariaren ehuneko 10 portzentaje-puntu gehituko da berrikuntza teknologikoko jardueretan egindako gastuetarako, baldin eta horien emaitza bada aurrerapen teknologikoa egitea automobilgintza- industriaren balio-kateko ekoizpen-prozesu berrien lorpenean, edo lehendik dauden prozesuetan funtsezko hobekuntzak egitea.

2. Zilegi izanen dute gehikuntza hori aplikatzea enpresa txiki eta ertaintzat hartuak diren zergadunek, xedapen honi heldurik: I. eranskina, Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 zenbakiko Erregelamenduarena(EB), zeinaren bidez zenbait laguntza-mota barne-merkatuarekin bateragarritzat deklaritzen baitira, Tratatu 107. eta 108. artikulua aplikatuz.

3. Artikulu honetan aurreikusitako gehikuntzari dagokion kenkari-zenbatekoa ezin izanen da 7,5 milioi euro baino handiagoa izan zergadunak garatutako proiektu bakoitzarengatik. Horrez gain, aipatu kenkariaren zenbatekoak, zergadunak jasotako gainontzeko laguntzekin batera, ezin izanen du gainditu diruz lagundu den proiektuaren kostuaren ehuneko 50.

4. Artikulu honetan jasotako gehikuntza aplikatzeko, 61.6 artikuluari jarraikiz eskatutako txostenak zehaztu beharko du berrikuntza teknologikoko jarduerak emaitza gisa duela aurrerapen teknologikoa egitea automobilgintza-industriaren balio-kateko ekoizpen-prozesu berrien lorpenean, edo lehendik dauden prozesuetan funtsezko hobekuntzak egitea”.

Apartatu berria. Hogeita bigarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Hogeita bigarren xedapen gehigarria. Enpresen eraldaketa digitalerako kenkaria.

1. Sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunak, Establezimendu iraunkor baten bidez jarduten dutenak, baldin eta enpresa txikitat hartzen badira Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek, jarduera ekonomikoak egiten badituzte eta beren jardueraren etekin garbia zuzeneko zenbatespenean zehazten badute, kuota osoari 100eko 30eko kenkaria aplikatu ahal izanen diote 2020an eta 2021ean enpresaren eraldaketa digitalerako eta merkataritza elektronikoa ezartzeko egindako gastu eta inbertsioengatik.

2. Hauek dira kenkariaren xede diren gastu eta inbertsioak:

a) Salmentetako, fakturazioko edo kontabilitateko administrazio-prozesuak digitalizatzea ahalbidetuko duen softwarea eskuratzea, harpidetzea, eguneratzea edo berritzea, baita hodeiko zerbitzuetarako sarbideak ere, edo web-orriak sortzea, horiek instalatzeko eta ezartzeko gastuak barne.

b) Softwarea eskuratzea, harpidetzea, eguneratzea edo berritzea, merkaturatze eta salmenta elektronikoa eta internet bidezko ordaintzeko sistemak ahalbidetze aldera, softwarea instalatzeko eta ezartzeko gastuak barne.

3. Kenkariaren oinarria egindako gastu eta inbertsioen zenbatekoak osatuko du, 5.000 euroko mugarekin, eta muga hori inbertsioak hartzen dituen zergaldi guztiei aplikatuko zaie, kasua bada.

4. Xedapen honetan ezarritako kenkaria Sozietateen gaineko Zergari buruzko foru-araudian xedatutakoaren arabera aplikatuko da, eta ez zaio aplikatuko 67.4 artikuluan araututako kuota likidoaren 100eko 25eko muga”.

Apartatu berria. Hogeita bederatzigarren xedapen iragankorra gehitzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“Hogeita bederatzigarren xedapen iragankorra. 20 milioi euro baino gehiagoko eskuratze-balioa duten partaidetzen zergapetze-araubidea.

2021eko urtarrilaren 1a baino lehenago hasitako zergaldietan eskuratutako partaidetzek, 20 milioi euro baino gehiagoko eskuratze-balioa baldin badute, baina 35.1.a) artikuluko lehen paragrafoan edo 57.1.a) artikuluan ezarritako portzentajera iritsi gabe, 35. edo 57. artikuluan ezarritako araubide fiskala aplikatuko dute, kasua arabera, baldin eta haietan aurreikusitako gai-

nerako betekizunak betetzen badituzte 2021, 2022, 2023, 2024 eta 2025. urteen barrenean has- ten diren zergaldietan zehar”.

**Hirugarren artikulua.** Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra.

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren manu hauek honako testu hau izanen dute:

Bat. 3.1. artikulua.

“1. Tributu-sistemaren antolamendua tributua ordaintzera behartuta dauden pertsonen gaitasun ekonomikoan eta printzipio hauetan oinarritzen da: justizia, orokortasuna, berdintasuna, progresibitate, tributu-kargaren banaketa ekitatiboa eta konfiskatoriotasunik eza.

Ondorio horietarako, debekatuta dago zerga-erregularizazioko ezohiko edozein tresna ezar- tzea, baldin eta indarrean dagoen araudiaren ara- bera sortutako zerga-zorra murriztea badakar”.

Bi. 27.5 artikulua, i) letra gehitzea. Foru lege honek indarra hartu eta 3 hilabetera izanen ditu ondorioak.

“i) Ekoizleek, merkaturatzaileek eta erabil- tzaileek betebeharrak hau dute: jarduera ekonomiko- ak egiten dituzten kontabilitate-, fakturazio- edo kudeaketa-prozesuen euskarri diren sistema eta programa informatikoen eta elektronikoen erregis- troen osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzea, sistemetan behar bezala jasota geratzen ez diren interpolazio, omi- sio edo aldaketarik gabe. Erregelamendu bidez ezartzen ahalko dira sistema eta programa horiek bildu behar dituzten espezifikazio teknikoak, bai eta horiek behar bezala ziurtatuta egoteko eta irakurtzeko formatu estandarrak erabiltzeko bete- beharra ere”.

Hiru. 38. artikulua.

“Salbuespenezko kasuetan, eta kasu bakoit- zean behar bezala justifikatuta, Zerga-administra- zioak ordezkari bat izendatzeko eskatzen ahalko die zerga-egoitza Nafarroatik kanpo duten subjek- tu pasiboiei, harekin dituzten harremanetarako.

Aurreko paragrafoan xedatutakoak ez du uka- tzen Espainiako lurraldeko egoiliarren ez direnen- tzat araubide erkideko legerian ezarritakoa”.

Lau. 66.3. artikulua. f) letra gehitzea.

“f) Erakunde nagusia BEZaren entitate taldea- ren araubide berezian”.

Bost. 68 artikulua, g) eta h) letrak gehitzea; foru lege honek indarra hartu eta 3 hilabetera izan- nen ditu ondorioak.

“g) Jarduera ekonomikoak garatzen dituzten pertsonen edo entitateen kontabilitate-, fakturazio- edo kudeaketa-prozesuen euskarri diren sistema eta programa informatiko edo elektronikoen fabrikatzea, ekoiztea eta merkaturatzea, honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean:

a) jarduera eta ekitaldi ekonomiko berari buruzko kontabilitate desberdinak eraman ahal izatea, zergapekoaren benetako egoera ezagu- tzea zailtzen dutenak.

b) egindako transakzioen idatz-oharrak, osorik edo zati batean, ez jasotzea ahalbidetzen dute- nak.

c) itxurazko transakzioen erregistroa ahalbide- tzea.

d) dagoeneko erregistratuta dauden transak- zioak aldatu ahal izatea, aplikatu beharreko arau- dia bete gabe.

e) ez betetzea erregistroen osotasuna, kon- tserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna zein Zerga-administratioko organo eskudunen aldetik irakurgarritasuna bermatzen duten espezi- fikazio teknikoak, 27.5.i) artikuluen arabera.

f) fabrikatutako, ekoiztutako edo merkaturatuta- ko sistemak ez egiaztatzea, arauzko xedapen batek horretara behartzen badu ere.

h) 27.5.i) artikuluan ezarritakoarekin bat ez datozen sistema edo programa informatiko edo elektronikoen edukitzea, horiek behar bezala egiaztatuta ez daudenean eta arauzko xedapen baten bidez egiaztatu behar direnean, edo gailu ziurtatuak aldatu direnean.

Letra honetan xedatutakoaren bidez ezin izan- nen da zehatu g) letraren bidez zehatutako per- tsona edo entitate bera”.

Sei. 77 artikulua, 5. apartatua gehitzea; foru lege honek indarra hartu eta 3 hilabetera izanen ditu ondorioak.

“5.a) 68.g) artikuluan adierazitako arau-haus- tea 150.000 euroko diruzko isun finkoarekin zeha- tuko da, salmentak egin diren ekitaldi ekonomiko bakoitzeko eta arau-haustearen xede den sistema edo programa informatiko edo elektronikoa ez den mota bakoitzeko. Hala ere, 68.g)f) artikuluko arau- haustea 1.000 euroko diruzko isun finkoarekin zehatuko dira, ziurtagiria falta duen merkaturatuta- ko sistema edo programa bakoitzeko.

b) 68.h) artikuluan adierazitako arau-haustea ekitaldi bakoitzeko 50.000 euroko diruzko isun finkoarekin zehatuko da, behar bezala ziurtatuta ez dauden sistema edo programa informatiko edo elektronikoak edukitzeagatik egindako arau-haustea denean, arauzko xedapen baten bidez egiaztatuta egon behar denean, edo egiaztatutako gai-luak aldatu direnean”.

Zazpi. 87.2 artikulua, lehenbiziko paragrafoa.

“2. Ebazpena emateko epearen kontaktetan ez dira sartuko honako hauek: zerga-administrazioari egotzi ezin zaion kausagatik prozeduran izandako luzapenak, justifikatutako etenaldiak eta foru lege honetan eta berau garatzeko arauetan aurreikusitakoaren arabera gertatzen diren geraldia”.

Zortzi. 87.8.a) artikulua.

“a) Ofizioz hasitako prozeduretan, prozedura hasteko erabakia jakinarazten den egunetik aurrera”.

Bederatzi. 95. artikulua.

“95. artikulua. Tributuak kudeatzeko prozeduraren hasiera.

1. Tributuak kudeatzeko prozedura ofizioz edo zergapekoak eskatuta hasten ahalko da, autolikidazioaren, aitortenaren, komunikazioaren, eskaeraren edo zerga-araudian aurreikusitako beste edozein bitartekoren bidez.

2. Tributuak kudeatzeko prozedura hasteko dokumentuek, betiere, zergapekoaren eta, hala badagokio, hura ordezkatzeko duen pertsonaren izen-deiturak edo sozietate-izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia jaso beharko dituzte.

3. Zerga-administrazioak autolikidazioen, aitortenaren, komunikazioen, eskaeren eredu eta sistema normalizatuak onartzen ahalko ditu, bai eta zerga-arloko jarduketak eta prozedurak masiboki izapidetzen diren kasuetarako nahitaez erabili beharreko zerga-araudian aurreikusitako beste edozein bitarteko ere.

4. Zerga arloko eskumena duen departamentuko titularren foru agindu bidez, zergapekoek beren aitortenak, autolikidazioak, komunikazioak, eskabideak eta zerga arloan garrantzia duen beste edozein dokumentu baliabide telematikoen bidez aurkeztu beharko dituzten kasuak eta baldintzak zehazten ahalko dira”.

Hamar. 116.4. artikulua.

“4. Borondatezko epean ordainketa geroratu, zatikatu edo konpentsatzeko eskaera aurkeztuz gero, espediente horiek tramitatu bitartean ezin izanen da epe exekutiboa hasi.

Aipatutakoa gorabehera, aurreko paragrafoan adierazitako eskaerek eta eteteko eta gauzatan ordaintzeko eskaerek ez dute eragotziko epe exekutiboa hastea, baldin eta aldeztu aurretik ukatu bada, zerga-zor berari dagokionez, borondatezko aldi geroratzeko, zatikatzeko, konpentsatzeko, eteteko edo gauzatan ordaintzeko beste eskaera bat, eta ordainketa egiteko beste epe bat ireki bada halakorik egin gabe.

Isun baten kontra errekurtsio edo erreklamazioa behar den moduan eta epean aurkeztuz gero, epe exekutiboan ezin izanen da hasi harik eta zehapena administrazio bidean irimo bilakatu eta borondatez ordaintzeko epea bukatu arte.

“Konkurtsio-deklarazioak ez du etenik eraginen maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuz onetsitako Konkurtsio Legearen testu bateginaren arabera konkurtsio-kalifikazioa duten zorrak ordaintzeko borondatezko epean, horrek ezertan galarazi gabe epe exekutiboko jarduketak testu bategin horretan xedatutakoari jarraitzea”.

Apartatu berria. 117.1 artikulua, hirugarren paragrafoa, eta 2, 3 eta 4. apartatuak, 2021eko martxoaren 1etik aurrera ordaintzen diren zorretarako efektuekin.

“Errekargu horiek elkarrekin bateraezinak dira, eta borondatezko epean ordaindu ez den zorraren osotasunaren gainean kalkulatu dira.

2. Errekargu exekutiboa 100eko 5ekoa izanen da, eta aplikatuko da borondatezko epean ordaindu gabeko zor guztia premiamendu-probidentzia jakinarazi aurretik ordaintzen denean.

3. Premiamendu-errekargu murriztua 100eko 10ekoa izanen da, eta aplikatuko da noiz eta borondatezko epean ordaindu gabeko zor guztia eta errekargua bera ordaintzen direnean premiamendu-prozedura abiarazi duten zorren ordaintzari begira erregelamenduz ezarritako epea amaitu aurretik.

4. Premiamendu-errekargu arrunta 100eko 20koa izanen da, eta aplikatuko da artikuluko 2. eta 3. apartatuetan adierazitako inguruabarrak gertatzen ez direnean”.

Hamaika. 118. artikulua, 5. apartatua aldatzea eta 8. apartatua gehitzea. Horren ondorioz, gaur egun 5., 6. eta 7. apartatuen edukia dena, aurrerantzean, 6., 7. eta 8. apartatuena izanen da.

“5. Etendura automatikoa lortzeko beharrezkoak ez diren beste berme batzuk dituen etendura-eskaera bat izapidetzean, edo bermeak guztiz edo partzialki salbuetsita, edo akats aritmetiko, material edo egitatezkoan oinarrituta, ikusten bada epe

exekutiboaren etete eskaeraren xede diren zorrak kobratzea zapuztu edo larriki zaildu daitekeela, kautelazko neurriak hartzen ahalko dira zor horiek kobratuko direla ziurtatzeko.

Neurri horiek kendu eginen dira hurrengo apartatuan xedatutakoaren arabera, edo eteteko eskaera ebazteko organo eskudunak hala erabakitzen duenean”.

Hamabi. 143. artikulua, 6. eta 7. apartatuak aldatzea eta 16. eta 17. apartatuak gehitzea. Horren ondorioz, gaur egun 6., 7., 8., 9., 10., 11., 12., 13., 14. eta 15. apartatuen edukia dena, aurrerantzean, 8., 9., 10., 11., 12., 13., 14., 15., 16. eta 17. apartatuena izanen da, hurrenez hurren.

“6. Organo eskudunak erabakiko du etete-eskaera izapidetzeko onartu ala ez artikulua honen 5. eta 9. apartatuetan aipatzen diren kasuetan, eta ez du onartuko, baldin eta ezin bada ondorioztatu etete-eskaeran aurkeztutako dokumentazioetik edo administrazio-espeditentean dagoen dokumentazioetik, konpontzen zailak edo ezinezkoak diren kalteen zantzurik dagoen edo akats aritmetiko, material edo egitatezkoak dagoen.

7. Zorra epe exekutiboan badago, etendura automatikoa lortzeko beharrezkoak ez diren beste berme batzuekin, edo bermeen erabateko edo zati bateko lekapenarekin, edo akats aritmetiko, material edo egitatezkoan oinarrituta, etete-eskaera aurkezteak ez du eragotziko Administrazioaren jarduketekin jarraitzea, hargatik eragotzi gabe eskaeraren dataren ondoren egindakoak deuseztatzea, etetea onartzen bada”.

Hamahiru. 168.2. artikulua.

“2. 160.2 artikuluan aipatzen diren likidazioei dagokienez, III. tituluko III. kapituluko 2. eta 3. ataletan araututako erantzukizun- eta ondorengotzaraubidea ere aplikatuko zaie, hurrenez hurren”.

Hamalau. Hemezortzigarren xedapen gehigarria, 1. apartatua, d) letra gehitzea eta azken paragrafoa aldatzea:

“d) Atzerrian kokatuta dauden diru birtualei buruzko informazioa, baldin eta horien titularrak bada, edo onuradun edo baimendu izaera badu, edo bestela erabiltzeko ahalordea badu, eta pertsona edo erakunde batzuek zaintzen badituzte, hirugarrenen izenean pasahitz kriptografiko pribatuak gordetzeko zerbitzuak ematen dituztenak, diru birtualak mantentzeko, biltegitratzeko eta transferitzeko.

Apartatu honetan aurreikusitako betebeharrak benetako titularrak direnentzat ere izanen dira,

Kapital Zuriketari eta Terrorismoaren Finantzetakari Aurrea Hartzeko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4.2. artikuluan aurreikusitakoaren arabera”.

Hamabost. Hamazortzigarren xedapen gehigarria, 2. apartatua, d) letra gehitzea:

“d) Atzerrian kokatutako diru birtualei buruzko informazioa emateko betebeharra betetzen ez den kasuan, zehapena 5.000 euroko diruzko isun finkoa izanen da aitorpenean agertu beharreko diru birtual bakoitzari buruzko datu edo datu-multzo bakoitzeko, diru horiek banaka hartuta haien motaren arabera, baita modu ez osoan, zehaztu gabe edo faltsututa agertuta ere; gutxienez, 10.000 euro izanen dira.

Zehapena 100 eurokoa izanen da diru birtual bakoitzari buruzko datu edo datu-multzo bakoitzeko, diru horiek banaka hartuta haien motaren arabera, eta gutxienez ere 1.500 eurokoa, aitortzena epetik kanpo aurkeztu bada Zerga-administrazioak errekerimendurik egin gabe. Modu berean, aitortzena baliabide elektronikoko, informatiko eta telematikoez bestelako moduz aurkeztea zehatu da, baliabide horien bitartez egiteko betebeharra dagoenean.”

Hamasei. Hogeita hamabosgarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Hogeita hamabosgarren xedapen gehigarria. Tributu-zorra geroratzeko edo zatikatze 2021ean egiten diren eskaerei aplikatu beharreko neurri berariazkoak.

Tributu-zorra geroratzeko edo zatikatze 2021ean egiten diren eskaerei, baldin eta horren diru-bilketa kudeatzeko lana tributuen arloan eskumena duen departamentuari badagokio, honako xedapen berariazko hauek aplikatuko zaizkie:

Lehen. Geroratzeetan ez da bermerik eskatu baldin eta zorraren zenbatekoa, guztira, uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketaren Erregelamenduaren 51.1.b) artikuluan ezarritakoa baino txikiagoa bada, betiere zerga edo geroratu beharreko zorrari dagokion kontzeptua ez badago aipatutako Erregelamenduaren 48.3 artikuluan adierazitako salbuespenen artean, maiztasuna hilerokoa bada, epea ez bada bi urte baino handiagoa, eta eskatzaileak geroratzea eskatutako zorraren 100eko 30 ordaintzen badu tramitatu aurretik.

Bigarrena. Bai borondatezko epean bai ordainarazpenaldian egindako geroratze edo zatikatze eskaeretan, betiere geroratu edo zatikatu beharreko zenbatekoa 6.000 eurotik beherakoa bada,



geroratze edo zatikatze epea hamabi hilekoa gehienez, eta maiztasuna hilerokoa, ez da bermerik eskatuko, ez eta ordainketa tramitazioaren aurretik egin beharra ere.

Hirugarrena. Premiamendu bidez geroratu edo zatikatu beharreko zorren artean baldin badaude bide horretan berean lehenago geroratu edo zatikatutako zorrak, kitatuta daudenak, zor horien saldoaren 100eko 30, arestian aipatutako lehen xedapenean aipatzen dena, ordaintzeko eskatuko da, bai eta bete gabeko geroratze edo zatikatzean kontuan hartu ziren zorrei dagozkien ordainarazpen aldiko errekaruak eta interesak ere, osorik, horiek ordaintzeko beharra atzeratu egin baitzen geroratzea onartu zenean, 117.3 artikuluan xedatutakoarekin bat.

Zenbateko horiek exijituko dira, halaber, bermea eratzeko beharra dakarten geroratze edo zatikatzeetan, Diru-bilketaren Erregelamenduaren 50. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Geroratu edo zatikatze eskaeran sartutako gainerako zorretarako, baldin badago, aurreko lehen eta bigarren xedapenetan ezarritakoa aplikatuko da.

Laugarrena. Borondatezko epeko zorren kasuan, geroratze edo zatikatze eskaera automatikoki ezetsiko da baldin eta osotara kitatu gabe badaude tributu-zorren lau geroratze edo gehiago, edo Nafarroako Ogasun Publikoaren beste eskubide ekonomiko batzuen ordainketaren lau geroratze edo gehiago, salbu eta geroratze eskatutako zorrak bermatzen badira edo aurrekoak bermaturik badaude aipatutako Diru-bilketaren Erregelamenduaren 50.1 eta 50.2.a) artikuluetan adierazitako berme motekin soil-soilik”.

**Laugarren artikulua.** Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen Foru Legea.

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan ondorioak izateko, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen manu batzuek, ondotik heldu direnek, honako testu hau izanen dute:

Bat. 25.1. artikulua.

“1. Kuota likidoa lortzen da kuota osoari sozietateen gaineko zergari ezarritako kenkari eta hobarien zenbatekoa kenduz. Hala ere, salbuetsitako jardueri egotz dakizkiekeen gastu eta inbertsioek ez dute kenkarirako eskubiderik emanen”.

Bj. 31. artikulua.

“31. artikulua. Ekonomia-jardueren gaineko zerga.

Fundazioak salbuetsita daude haien helburu sozial edo berariazko xede diren jardueretan, baldin eta haien negozio-zifra 1.000.000 eurokoa edo gehiagokoa bada, arauz ezartzen diren terminoetan.

Negozio-zifraren zenbateko garbia zehaztuko da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 150.1.g) artikuluan ezarritakoaren arabera”.

**Bosgarren artikulua.** Nafarroako Kooperatiben Zerga Araubidea arautzen duen Foru Legea.

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan ondorioak izateko, Nafarroako Kooperatiben Zerga Araubidea arautzen duen ekainaren 21hauek testu hau izanen dute:

Bat. 27.3.a) artikulua.

“a) Kooperatiba babestuei dagokien ekonomia-jardueren gaineko zerga edo lizentzia fiskala, kooperatiba horien negozio-zifra 1.000.000 eurokoa edo gehiagokoa bada.

Negozio-zifraren zenbateko garbia zehaztuko da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 150.1.g) artikuluan ezarritakoaren arabera”.

Bj. 30.c) artikulua.

“c) Tokiko tributuak.

Kooperatiben batasunei, federazioei eta konfederazioei dagokien ekonomia-jardueren gaineko zerga edo lizentzia fiskalaren kuotaren 100eko 95eko hobaria, kooperatiba horien negozio-zifra 1.000.000 eurokoa edo gehiagokoa bada.

Negozio-zifraren zenbateko garbia zehaztuko da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 150.1.g) artikuluan ezarritakoaren arabera”.

Hiru. Bigarren xedapen gehigarria, b) letraren bigarren paragrafoa.

“Eraldaketarako nekazaritza-sozietateei dagokien kuotaren 100eko 95eko hobaria, sozietate horien negozio-zifra 1.000.000 eurokoa edo gehiagokoa bada.

Negozio-zifraren zenbateko garbia zehaztuko da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 150.1.g) artikuluan ezarritakoaren arabera”.

**Seigarren artikulua.** Ekonomia-jardueren gaineko zergaren edo lizentzia fiskalaren tarifak eta jarraibidea onesten dituen Foru Legea.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera hasten diren zergaldietan ondorioak izateko, maiatzaren 28ko 7/1996 Foru Legearen lehen ataleko 15. multzoan aldaketa hauek egin dira (Ekonomia-jardueren gaineko zergaren edo lizentzia fiskalaren tarifak eta jarraibidea onetsi zituen 7/1996 Foru Legeak):

**Bat.** 15. multzoaren izenburua aldatzen da:

“15. multzoa. Energia elektrikoa, gasa, lurruna eta ur beroa ekoitzi, garraiatu, banatu eta merkaturatzea”.

**Bj.** 151. multzoko izenburua aldatzen da:

“151. multzoa. Energia elektrikoa ekoitzi, garraiatu, banatu eta merkaturatzea”.

**Hiru.** 151. multzoaren barnean epigrafe berri bat sortzen da:

“151.6 epigrafea. Energia elektrikoa merkaturatzea.

Gutxienerako udal kuota:

1.000 bazkideko edo gelditzen den zatikiko: 62,20 euro.

Probintziako kuota:

1.000 bazkideko edo gelditzen den zatikiko: 137,48 euro.

Kuota nazionala:

1.000 bazkideko edo gelditzen den zatikiko: 137,48 euro”.

**Lau.** 152. multzoa aldatzen da:

“152. multzoa. Gasa fabrikatu, banatu eta merkaturatzea.

152.1 epigrafea. Gasaren fabrikazioa eta banaketa.

Kuota:

kW bakoitzeko: 15,86 euro.

152.2 epigrafea. Gasa merkaturatzea.

Gutxienerako udal kuota:

1.000 bazkideko edo gelditzen den zatikiko: 62,20 euro.

Probintziako kuota:

1.000 bazkideko edo gelditzen den zatikiko: 137,48 euro.

Kuota nazionala:

1.000 bazkideko edo gelditzen den zatikiko: 137,48 euro.

Oharra: multzo honen barnean sartuta dago gasa banatzeko sareen instalazioa”.

**Artikulu berria.** Saltoki Handien gaineko Zerga.

Abenduaren 27ko 30/2018 Foru Legeko hamaikagarren artikuluko zazpi b) apartatuaren azken paragrafoak honako testu hau izanen du:

“Kontzeptu hori murriztuta kontatuko da, 2.000 metroko azaleraren eta produktuak saldu eta erakusteko azalera erabilgarriaren artean dagoen aldearen proportzioan. Azkenik, 0,9rekin biderkatuko da”.

**Lehenengo xedapen gehigarria.** Saltoki handien gaineko zerga.

2021eko zergaldian, produktuak saldu eta erakusteko azalera erabilgarriaren konputuaren ondorioetarako, ez da konputatuko aisialdiko, ostalari-tzako eta ikuskizunetarako enpresek okupatutako azalera. Konputu hori abenduaren 27ko 30/2018 Foru Legearen hamaikagarren artikuluko zazpigarren apartatuko a) letran ageri dena da.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Jokoaren gaineko tributuak.

Nafarroako Foru Komunitatean Jokoaren gaineko Tributuak arautzen dituen abenduaren 28ko 27/216 Foru Legearen 9.2 artikulua arabera B motakoak diren makinak (saria duten joko-makinak) ustiatze kasuetan, 2020ko laugarren hiruhilekoari dagokion kuota behar den ehunekoan murriztuko da, eta horretarako aintzat hartuko da hiruhileko horretan zenbat denbora egon diren itxita makinak instalatuta dituzten establezimenduak COVID-19aren ondoriozko egoera epidemiologikoaren bilakaeratik hartutako berariazko eta aparteko prebentzio-neurriak direla eta.

**Hirugarren xedapen gehigarria.** Etxebizitza babestuen gehieneko salmenta-prezioak 2021ean.

1. Etxebizitza babestuak eta haien eranskinak 2021ean saltzeko gehieneko salneurria zehazteko, ez da aplikatuko Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 10.1.a) eta 10.1.d) artikuluan xedatutakoa.

2. Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2021ean aplikatuko zaien modulu ponderatua 1.266,06 eurokoa izanen da metro karratu erabilgarri bakoitzeko.

3. Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriari 2021ean aplikatuko zaien modulu ponderatu gabea 1.215,42 eurokoa izanen da metro karratu erabilgarri bakoitzeko.

**Laugarren xedapen gehigarria.** Araubide oro-korreko babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko errenta 2021ean.

2021ean, errentamendu araubidearen behin betiko kalifikazioa eskuratu duten babes ofizialeko etxebizitzaren urteko gehieneko errenta, baldin eta behin-behineko kalifikazioa Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea indarrean sartu aurretik eskatu bazen, errentamendu-kontratua sinatzen den unean bigarren eskualdaketako etxebizitzek eta lotutako eranskinek duten gehieneko salmenta prezioaren 100eko 6 adinakoa izanen da.

**Xedapen gehigarri berria.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan eta Sozietateen gaineko Zergan salbuestea COVID-19aren ondorioz emandako ezohiko laguntza jakin batzuk.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan salbuetsita egonen dira COVID-19aren ondorioz emandako honako ezohiko laguntza hauek:

a) Langile autonomoentzako laguntzak, Koronabirusaren (COVID-19) osasun-krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko premiazko neurriak onesten dituen apirilaren 15eko 3/2020 Foru Lege Dekretuaren lehenengo tituluan araututakoak.

b) Honako honetan ezarritakoaren arabera emandako laguntzak: Herritarrekiko Harremanetako kontseilariaren 6/2020 Foru Agindua, ekainaren 2koa, 2020rako dirulaguntza deialdi hau onesten duena: “Laguntzak emigrante nafarrei eta haien familiei, behin betiko itzul daitezten, itzuleraren arrazoia denean zailtasun ekonomikoak dituztela edo COVID-19ak eragin duen osasun krisiaren ondorioz lana galdu dutela”.

c) Honako honetan ezarritakoaren arabera emandako laguntzak: Nekazaritzako eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiaren uztailaren 21eko 625/2020 Ebazpena, zezenketetarako azientarendako laguntzak emateko oinarri arautzaileak xedatzen dituena, egungo COVID-19 agerraldiaren testuinguruan ekonomia babesteko estatu mailako laguntza neurriari buruzko denbora esparruaren baitan, eta 2020ko laguntzen deialdia onesten duena.

d) Honako honetan ezarritakoaren arabera emandako laguntzak: Eskubide Sozialetako kontseilariaren urriaren 22ko 358/2020 Foru Agindua, dirulaguntzen deialdi bat onesten duena aparteko

laguntzak emateko COVID-19aren ondorioz aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden langileei.

e) Honako honetan ezarritakoaren arabera emandako laguntzak: Turismo, Merkataritza eta Kontsumo zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 70/2020 Ebazpena, zeinaren bidez turismo eta ostalaritza sektoreetarako laguntzen deialdia onesten baita, COVID-19ak eragindako gorabehera ekonomikoak konpentsatzeko.

**Xedapen indargabetzailea.** Arauak indargabetzea.

1. Indarrik gabe uzten dira 2020ko urtarrilaren 1etik hasita Zenbait zerga aldatu eta beste tributuen neurri batzuk hartzei buruzko abenduaren 23ko 29/2019 Foru Legearen lehenengo artikuluko sei garren apartatua, bosgarren artikuluko lehen apartatua eta bederatzigarren artikulua.

2. Indarrik gabe uzten da 2021eko urtarrilaren 1etik hasita 1998ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1997 Foru Legearen bederatzigarren xedapen gehigarria.

**Azken xedapenetako lehenbizikoa.** Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea aldatzea.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 11. artikuluari bigarren paragrafo bat gehitzen zaio:

“Bereziki, izaera publikoko eskubideetatik eratorritako ordainketa-betebeharrei erantzukizun-eta ondorengotza-araubidea aplikatuko zaie, hurrenez hurren, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Legearen III. tituluko III. kapitulu-ko 2. eta 3. ataletan araututakoak”.

**Azken xedapenetako bigarrena.** 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua aldatzea, uztailaren 26koa, zeinaren bidez onesten baita Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina.

Bat. 231.2. artikulua:

“2. Udalen lurzoru-ondarea osatzen duten ondasunak honela eskualda daitezke:

a) Lehiaketa edo enkante bidez besterenduz. Besterentzeko prozedura arruntak lehiaketa edo enkantea izanen dira. Hala ere, ondasunen erabilera merkataritza-jarduera edo etxebizitza libreak eraikitzea denean, besterentzea enkante publikoaren bidez eginen da. Ahal dela, enkante publikoaren prozedura aplikatuko da, orobat, ondasunei industria-erabilera ematen zaienean.

Enkante publikoaren bidezko besterentzeetan, hasierako prezioa gutxienez hirigintza-balioa izanen da, eta horri gehituko zaizkio planeamendua- ren, urbanizazioaren eta kudeaketaren ondoriozko kostu proportzionalak eta egokitzeko beharrezko- ak diren jarduketa administratibo eta materialetatik eratortzen diren guztiak, eraiki zen urtetik iragan- dako urteen arabera dagokion balio-galera kendu- ta; teknikari aditu baten balorazioaren bitartez ere egiten ahalko da.

Enkante horretan ondasuna esleitzen ez bada edo lehiaketa hutsik gelditzen bada, salbuespe- nez, zuzenean besterentzen ahalko da, baldintza berdinetan egiten bada eta prezioa ez baldin bada lizitazioan ezarritakoa baino txikiagoa.

b) Irabazi-asmorik gabeko laguntza- edo gizar- te-entitateei nahiz sindikatuei zuzenean besteren- duz, lurren balioa baino txikiagokoa ez den pre- zioan, baldin eta babes publikoko araubideren bati loturiko etxebizitzak sustatzen badituzte eta susta- pen a bideragarria dela bermatzeko moduko eskar- mentua eta bitartekoak dituztela frogatzen badute.

c) Beste administrazio publiko, erakunde publi- ko, ente instrumental edo sozietate publiko ba- tzuei lagapenean emanez, eta are dohainik ere, babestutako etxebizitzak egiteko, ekipamendu komunitarioa edo erabilera publikoko nahiz gizarte intereseko instalazioak eraikitzeke”.

Bj. 237. artikulua:

“1. Lurzoru Publikoaren Foru Bankua osatzen duten funtsak:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administra- zioaren mendeko erakunde edo ente instrumenta-

lei edo sozietate publikoei atxikitzen ahal zaizkie, beren xedea betetzeko kudeatuak izan daitezten.

b) Besterendu daitezke lehiaketaz edo enkan- tean edo zuzeneko besterentzeaz, 231. artikuluan ezarritakoaren arabera.

c) Laga daitezke beste administrazio publiko, erakunde publiko, ente instrumental edo sozietate publiko batzuei, 231. artikuluan xedatutakoaren arabera.

d) Kudea daitezke 239. artikuluan ezarritako azalera-eskubidearen formula erabiliz”.

Hiru. 239.1. artikulua:

“1. Nafarroako Foru Komunitateko Administra- zioak, toki entitateek, erakunde publikoek, ente instrumentalek eta sozietate publikoek azalera- eskubidea eratzen ahal dute beren jabetzakoak diren lurretan edo lurzoruaren ondare publikoa osatzen dutenetan, babes publikoko araubideren bati loturiko etxebizitzak eraikitzeke edo gizarte intereseko beste erabilera batzuetarako. Eskubide hori azalera-hartzailearena izanen da”.

**Azken xedapenetako hirugarrena.** Arauak emateko gaikuntza.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emane- n ditu.

**Azken xedapenetako laugarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofiziale- an argitaratu eta biharamunean hartuko du inda- rra, legean berean aurreikusitako ondorioekin.





## Foru Legea, ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituenak.

### AKATS ZUZENKETA

Zenbait akats aurkitu da Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen Foru Legea argitaratzean, zeina 2020ko abenduaren 15eko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen. Horrenbestez, ondoko zuzenketa hauek egin dira:

**1.** 52. artikulua azken paragrafoan, honako hau dioen tokian:

– “...urtarrilaren 26ko 9/2005 Errege Dekretuan...”

Honako hau esan behar du:

– “...urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan...”

**2.** 71. artikulua 2. puntuan, honako hau dioen tokian:

– “Epe hori ez da sei hilabetekoa izanen da gehienez,”

Honako hau esan behar du:

– “Epe hori sei hilabetekoa izanen da gehienez,”

**3.** Seigarren xedapen gehigarriaren 4. puntuan, honako hau dioen tokian:

– “Lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloko departamentu eskuduna eskudunak,”

Honako hau esan behar du:

– “Lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloko departamentu eskudunak,

Iruñean, 2020ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Legea, enpresen sustraitzearen aldeko eta enpresen deslokalizazioaren aurkako neurriei buruzkoa.**

### **AKATS ZUZENKETA**

Enpresen sustraitzearen aldeko eta enpresen deslokalizazioaren aurkako neurriei buruzko Foru Legean akats bat atzeman da. Foru Legea 2020ko abenduaren 15eko 141. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Horrenbestez, ondoko zuzenketa hau egin da:

Honako hau dioen tokian:

“6. artikulua. Enpresa-deslokalizazioaren deklarazioa.

1. Enpresa-deslokalizazioaren deklarazioa Nafarroako Gobernuaren erabaki baten bidez eginen da, garapen ekonomiko eta enpresarialaren arloan eskumena duen departamentuak proposatuta.

2. Deslokalizazio deklarazioa foru lege honetako 4. artikuluan aipatutako inguruabarrak gertatu ondoko lau urteen epean abiarazi ahalko da.

3. Artikulu honetako 1. apartatuan adierazitako departamentu eskudunaren txosten baten bidez hasiko da prozedura. Txostenean justifikatuko da bete egiten direla 4. artikuluan ezarritako inguruabarrak. Lehen instantzian eginiko txostena interesdunari jakinaraziko zaio, eta horrek hogeita hamar eguneko epea izanen du txostenak dioenaren aurrean bere alegazioak adierazi eta bere eskubideen defentsa egiteko.

5. Epe hori amaitzen denean, eskudun den departamentuaren titularrak proposamena aurkeztuko dio Gobernuari, kasua bada entitatearen enpresa-deslokalizazioko deklarazioa egiteko.

6. Prozedurari amaiera emateko, Nafarroako Gobernuak bi aukera izanen ditu, jasotako txosten eta informazioa aztertu ondoren:

a) Enpresaren deslokalizazioa deklaratzeko erabakia hartzea.

b) Enpresaren deslokalizazioa deklaratzeko erabakia bertan behera uztea.

Bi kasuetan, ebazpena interesdunari jakinaraziko zaio.

7. Nafarroako Gobernuaren azken ebazpenean enpresaren deslokalizazioa zein egunetan gertatu den zehaztuko da. Data hori foru lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako kontuan hartuko da.

Honako hau esan behar du:

“6. artikulua. Enpresa-deslokalizazioaren deklarazioa.

1. Enpresa-deslokalizazioaren deklarazioa Nafarroako Gobernuaren erabaki baten bidez eginen da, garapen ekonomiko eta enpresarialaren arloan eskumena duen departamentuak proposatuta.

2. Deslokalizazio deklarazioa foru lege honetako 4. artikuluan aipatutako inguruabarrak gertatu ondoko lau urteen epean abiarazi ahalko da.

3. Artikulu honetako 1. apartatuan adierazitako departamentu eskudunaren txosten baten bidez hasiko da prozedura. Txostenean justifikatuko da bete egiten direla 4. artikuluan ezarritako inguruabarrak. Lehen instantzian eginiko txostena interesdunari jakinaraziko zaio, eta horrek hogeita hamar eguneko epea izanen du txostenak dioenaren aurrean bere alegazioak adierazi eta bere eskubideen defentsa egiteko.

4. Epe hori amaitzen denean, eskudun den departamentuaren titularrak proposamena aurkeztuko dio Gobernuari, kasua bada entitatearen enpresa-deslokalizazioko deklarazioa egiteko.

5. Prozedurari amaiera emateko, Nafarroako Gobernuak bi aukera izanen ditu, jasotako txosten eta informazioa aztertu ondoren:

a) Enpresaren deslokalizazioa deklaratzeko erabakia hartzea.

b) Enpresaren deslokalizazioa deklaratzeko erabakia bertan behera uztea.

Bi kasuetan, ebazpena interesdunari jakinaraziko zaio.

6. Nafarroako Gobernuaren azken ebazpenean enpresaren deslokalizazioa zein egunetan gertatu

den zehaztuko da. Data hori foru lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako kontuan hartuko da”.

Iruñean, 2020ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, “Foru zubia” deitutakoan elurra dela-eta izan diren arazoei buruzkoa.***ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, “Foru zubia” deitutakoan elurra dela-eta izan diren arazoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lurralde Kohesirako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hau aurkeztu dio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu dezan eta Batzordean ahoz erantzun dakion:

Zein da Nafarroako Gobernuaren balorazioa iragan “foru zubian” elurra dela-eta egon den planifikazio-ezari buruz eta gertatu diren gorabeherei buruz, bai eta halakoak berriro gerta ez daitezen hartu beharreko neurriei buruz ere?

Iruñean, 2020ko abenduaren 15ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

**Galdera, SET948 proiektuari buruzkoa.***CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztutako galdera, SET948 proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura eta Kiroleko kontseilariak batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak SET948 proiektu pilotua aurkeztu du; ikus-entzunezko edukiak ditu, kulturaren, kirolaren eta zientziaren arloko diziplinei buruzkoak, Nafarroako telebistan emanen direnak.

Kulturak eta kirolak, pandemiaren ondorioz, ekitaldiak geldiaraztea eta edukierak murriztea pairatu dute.

Azaldu ahalko zenuke zein den SET948 proiektuaren helburua eta kulturaren eta kirolaren arloan zein sektore ukitzen dituen?

Iruñean, 2020ko abenduaren 16an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

---

## **Galdera, 2020ko abenduaren 5eko elurtearen ondorioei buruzkoa.**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, 2020ko abenduaren 5eko elurtearen ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Batzordean ahoz erantzun diezaion:

Zein ondorio sortu zituen elurak Nafarroako zenbait zonaldetan, aurreikuspen ezagatik eta, batez ere, joan den abenduaren 5ean izandako lehen elurteetan errepide-sarea ez garbitzeagatik?

Iruñean, 2020ko abenduaren 16an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez



## **Galdera, industrialdeetako hondakin-bilketari buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, industrialdeetako hondakin-bilketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera idatzi hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan:

Joan den urrian Landa Garapeneko eta Ingu-rumeneko Departamentuko Ekonomia Zirkularren eta Klima Aldaketaren Zerbitzutik "Dokumentazioa hobetzeko errekerimendu" bat igorri zitzaizen toki-entitate batzuei, industrialdeetako hondakin-bilketari buruzkoa, berez etxeko hondakin edo gisakotzat jotzen diren etatik harago iritsiko litzatekeena.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakien:

1.- Zein entitateri igorri zaie "Dokumentazioa hobetzeko errekerimendu" hori?

2.- Zein erantzun eman dute errekeritutako entitateek?

3.- Entitate horietan berez industriakoak diren hondakin bilduetatik zenbat tona utzi dituzte aipatu entitateek Nafarroan baimendutako hondakinen zabortegetan? Nola banakatzen dira tona horiek, entitate bakoitzeko?

Iruñean, 2020ko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **Galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluan irregulartasunak edo ilegal-tasunak gertatzeari buruzkoa.**

*ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluan irregulartasunak edo ilegal-tasunak gertatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1.- Nafarroako Gobernuak dakienaren arabera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluan irregulartasunak edo ilegal-tasunak gertatzen ari ote dira?

2.- Baiezkoan, zeintzuk dira?

3.- Baiezkoan, nolako neurriak hartuko ditu Gobernuak haiek konpontzeko?

4.- Zein dira gaur egun Nafarroako Gazteriaren Kontseilua osatzen duten gazte entitateak?

5.- Gazte entitateetatik zein dira Nafarroako Gazteriaren Kontseiluan parte hartzen dutenak nahiz eta horretarako baldintzak ez bete?

Iruñean, 2020ko abenduaren 14an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## **Galdera, Bulego Judizialak Iruñeko espetxean duen ordezkari buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Bulego Judizialak Iruñeko espetxean duen ordezkari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Gobernuak prentsa ohar baten bidez adierazitakoaren arabera "Bulego Judizialak Iruñeko espetxean duen ordezkari buruzkoa inbertsio

oso errentagarria da, eta ez bakarrik desagertzen delako epaitegiko langileek espetxerako bidaietan sortutako kostu ekonomiko eta ingurumenekoa".

1.- Zein da Nafarroako Gobernuak kontrastatu duen kostu ekonomiko, gaur egun ordezkari burutzen diren eginkizunak betetze aldera epaitegiko langileek orain arte egiten zituzten bidaiari dagokienez? Banakatu azken bi urteetako hilabete ko kostua.

2.- Zein da baliabide materialen eta giza baliabideen hilabete ko kostu ekonomiko, Bulego Judizialak Iruñeko espetxean duen ordezkari funtzionamenduan edukitzeak eskatzen duena?

3.- Nafarroako Gobernuak zein kostu ekonomiko egin behar izan du, guztira, ordezkari hori abian jartzeko, inbertsioak edo ekipoen erosketa barne?

4.- Zein da, Departamentuaren zenbatespenaren arabera, hilabete ko eta urteko aurrezpen ekonomiko, ordezkari ezarri denetik?

5.- Ordezkari abian jarri aurretik zein izan da hilabetero epaitegiaren eta espetxearen artean izandako komunikazio bolumena? Banakatu azken bi urteetako datuak, komunikazio motaren arabera.

Iruñean, 2020ko abenduaren 15ean

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## **Galdera, sozietateen gaineko zergan zerga-oinarri negatiboen aplikazioa galtzeari buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamari-que jaunak aurkezturiko galdera, sozietateen gaineko zergan zerga-oinarri negatiboen aplikazioa galtzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak dakienaren arabera, azken hamabost urteetan Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboren batek aplikatu gabe utzi al du zenbatekoren bat, aipatu zergari buruzko araudian arautzen diren muga kuantitatiboen edo denborazkoen ondorioz izan litzakeen zerga-oinarri negatiboen konpentsazio gisa?

Baiezkoan, zenbat subjektu pasibo ukitu ditu eta zein ekitalditan gertatu da inguruabar hori azken hamabost urteetan?

Iruñean, 2020ko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko Kontingentzia Plana aldatzea, Mahaiaren 2020ko abenduaren 21eko erabakiaren bidez onetsia.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 21ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2020ko abenduaren 16an argitaratu da 63/2020 Foru Agindua, abenduaren 14koa, Osasuneko kontseilariak emana, zeinaren bidez berriazko prebentzio neurri apartekoak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitaterako, COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoak izan duen bilakaeraren ondorioz. Aipatu neurriak pixkanakako malgutasun batean sartzen dira, zuhurtziarekin, Nafarroan azken asteotan egoera epidemiologikoak izan duen hobekuntzari jarraikiz. Horregatik, zilegi da esparru parlamentariora ere eramatea neurri horiek eta baimentzea, besteak beste, Legebiltzarreko guneak erabiltzeko edukiera handiagoa, orain arte onartzen zena baino. Neurri hauek aldi baterako aurreikusi dira, 2021eko urtarrilaren 18ra arte hain zuzen, baina luzatzen, aldatzen edo bertan behera uzten ahalko dira egoera epidemiologikoaren arabera.

Horiek horrela, honako HAU ERABAKI DA:

**1.-** Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko Kontingentzia Plana aldi baterako aldatzea, ondoren aipatzen den moduan:

**“Bigarrena.-** Bilkura ez-presentzialak eta mistoak (presentziala eta bideokonferentziazkoa) nola egin).

1 Presentzialak edo mistoak izateko deituak diren osoko bilkuren eta batzordeen bilerak Osoko Bilkuren Aretoan eta Batzorde Aretoetan egingen dira.

Parlamentuko Mahaia eta Batzordeetako Mahaiak Parlamentuko beste areto batzuetan biltzen ahalko dira, betiere pertsonen arteko segurtasun-distantzia gorderik.

2 Osoko Bilkurak eta batzordeen bilkurak presentzialak edo mistoak direnean, beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira pertsonen arteko metro eta erdiko segurtasun-distantziari eusteko.

3 Osoko Bilkuretan presentzialki egonen dira Nafarroako Gobernuako lehendakaria, bi lehendakariordeak eta gai-zerrendako ekimena izapidetu bitartean eskuduna den kontseilaria, Parlamentuko Mahaiko bost kideak, Legelari Nagusia eta harekin batera doan legelaria, eta talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak hautatutako 23 kide; azken horiek honela banatuko dira, beren garrantzi numerikoari begiratuta:

Navarra Suma	
talde parlamentarioa:	9
Nafarroako Alderdi Sozialista	
talde parlamentarioa:	5
Geroa Bai	
talde parlamentarioa:	4
EH Bildu Nafarroa	
talde parlamentarioa:	3
Podemos-Ahal Dugu Nafarroa	
foru parlamentarien elkartea:	1
Izquierda-Ezkerra	
talde parlamentario mistoa:	1

Kontrolako osoko bilkuretan, Gobernuako kideak bertaratuko dira, presentzialki edo telematikoki, hala justifikatzen badute, eta Ganberaren Osoko Bilkuran txandaka bertaratuko dira beren eskumeneko gaiak aztertzen direnean. Bertaratze horrek ez du eraginik izan bertaratutako parlamentarien kopuruan.

Gainerako kideen parte-hartzea bideokonferentziaz gauzatuko da, esku hartu behar dutenean. Bilkura horietan, aurretiazko boto-eskuordetze bidez egiten ahalko da bozketa, Erregelamenduko 94.2.b) artikulua eta lehenda-

kariaren 2020ko martxoaren 24ko 28/2020 Erabakiak xedatuari jarraituz (Foru parlamentarien boto-eskuordetzeari buruzko erabakia, COVID-19 koronabirusak sorturiko osasun-larrialdiko krisiari erantzutekoa; 38. NPAO, 2020ko martxoaren 25ekoa).

4 Osoko Bilkuren Aretuan egiten direnean, Batzordeen bilkuretan presentzialki egonen dira haien kide guztiak, bai eta haiei lagunduko dien legelaria eta agerraldia egitekoa den kontseilaria ere. Azken horri lau pertsonak lagunduko diote gehienez. Nolanahi ere, foru parlamentariak zilegi izanen dute bideokonferentziaz aritzea, bilera mistoak direnean. Era berean, zilegi izanen dute bideokonferentziaz esku hartzea kontseilariak edo haien laguntzaileak, salbuespenaz eta Batzordeko lehendakariari aurretiatzeko eskaera eginda. Bilkura horietan, bozketa publikoa egiten da, banan-banan deituta, Erregelamenduko 101. artikulua ezartzen duenari jarraituz.

5 Batzorde aretoetan egiten diren batzorde-bilkuretara joan dira batzordeburua edo haren ordezkariak, talde parlamentario bakoitzaren eta foru parlamentarien elkartearen ordezkari diharduen parlamentari bana, haientzat lanean diharduen legelaria eta agerraldia egitekoa den kontseilaria, gehienez ere laguntzaile bat alboan duela. Gainerako kideen parte-hartzea bideokonferentziaz gauzatu da, esku hartu behar dutenean. Zilegi izanen dute bideokonferentziaz esku hartzea kontseilariak edo haien laguntzaileak, salbuespenaz eta Batzordeko lehendakariari aurretiatzeko eskaera eginda. Bilkura horietan, bozketa publikoa egiten da, banan-banan deituta, Erregelamenduko 101. artikulua ezartzen duenari jarraituz.

6 Mistoak izateko deituriko bilerak alde presentzialki eta alde telematiko egiten dira, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduari eta Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren eta Batzordeen bilkura telematikoak egiteko jarraibideei heldurik (51. NPAO, 2020ko maiatzaren 11koa). Bat-bateko matxura tekniko bat gertatuz gero, parlamentari bati eragotzi egiten diona parte hartzea, dela bideokonferentziaz dela segimendua, eztabaida eta bozketa bermatzeko egokiak diren bestelako sistema tekniko bidez, eten egiten da bilkura, non eta kasuko parlamentariak ez duen modu fedeean adierazten baimendu egiten duela bilkurak jarrai dezan”.

**“Bosgarrena.-** Etendako jarduerak.

1 Bertan behera gelditzen dira Parlamentuz kanpoko jarduerak presentzialak, salbu eta Legebiltzarreko egoitzaren fatxadaren argiztatzeak eta

Mahaiak erabakitzen dituen gainerakoak, eleduen Batzarrari entzun ondoren. Edonola ere, bermatu beharko da Parlamentuko areto bakoitzaren gehieneko edukiera betetzea, metro eta erdiko pertsonen arteko distantzia errespetatzea eta Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak ezartzen dituen higie- eta segurtasun-neurri guztiak betetzea.

2 Osoko Bilkuretara gonbidaturiko publikoari buruz honako hau aintzat hartu beharko da:

Jendea bilkura-aretoa joan ahal izateko gonbidatu-txartelak banatu dira Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2020ko urriaren 5eko bilkuran hartutako erabakiari jarraituz. (NPAO 9.10.2020)

Beraratzen direnek eserita egon beharko dute eta pertsonen arteko segurtasun-distantzia bermatu beharko dute.

Distantzia-irizpideak betetzen ez dituzten eserlekuak baliogabetuko dira.

Beharrezkoak diren antolamendu-neurriak hartuko dira sarrera-irteerak era mailakatuan egin daitezkeen”.

**“Seigarrena.-** Eraikinerako sarbidea.

1 Parlamentuaren egoitzara sartzeko baimenduta daudenak honako hauek dira: foru parlamentariak eta talde parlamentarioen zein parlamentarien elkartearen laguntzaileak, Lehendakariaren eta Mahaiaren Kabineteko kideak, Parlamentuko langileak, jardura parlamentarioak beharrezkoak diren ikus-entzunezko zerbitzuetako teknikariak, garbiketa-langileak eta Legebiltzarren funtzionamendu normala bermatzeko ezinbestekoak diren mantentze-lanetako enpresetakoak, bai eta hornitzaileak ere, baldin eta ezinbestekoa bada haien presentzia.

Azken kasu horietan, ahalegina egiten da haien egonaldiaren iraupena ahalik eta laburrena izan dadin kasuko zerbitzua egiteko, eta aplikatzeak diren osasun-arauak betiere, eta egonaldia betiere egiten da haien segurtasunerako bermearekin, kutsadura-arriskua ekiditeko beharrezkoak diren bitartekoak ezarrita.

Nafarroako Parlamentuko garajera sartzen ahalko dira soilik baimenduta dauden pertsonak eta ibilgailuak, Nafarroako Parlamentuko garajera erabiltzeko arauetan eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2020ko urtarrilaren 20ko Erabakian ezarritakoari jarraituz.

Hedabideak baimenduta egonen dira sartzeko, hurrengo epigrafean ezarritako baldintzetan.



Lehendakaritzaren, Mahaiaren, talde parlamentarioen eta parlamentarien elkartearen bulegoetara bisitak egitea baimenduko da, betiere aplikatzekoak diren osasun-arauak errespetatuta. Halere, modu ez-presentzian egitea gomendatzen da.

Eraikinean fisikoki egotera behartzen duen beste edozein ezohiko inguruabarrek beharrezkoa izanen du lehendakariaren edo idazkari nagusiaren baimena.

Hori guztia ulertzen da ezertan galarazi gabe Foruzaingoak eraikina zaintzeko egiten duen lana.

Parlamentuko kafetegira osoko bilkurak egin eta taberna-zerbitzua eskaintzen den egunetan sartzen ahalko da. Zerbitzua emateko, Legebiltzarreko langileek emandako jarraibideak bete beharko dira, eta une oro errespetatu beharko dira Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak ezartzen dituen neurriak. Kafetegi-zerbitzua ematean, Nafarroako Gobernuak egoera epidemiologikoa- ren arabera hartzen dituen foru-aginduak hartuko dira kontuan.

Kafetegia erabili ahal izanen da bazkaltzeko orduan, horretarako ezarritako ordutegian, betiere Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak ezartzen dituen jarraibideak kontuan hartuta”.

**2.** Legebiltzarreko guneko bakoitzean bermatu beharko da baimendutako % 50eko gehieneko edukiera betetzen dela eta pertsonen arteko metro eta erdiko distantzia errespetatzen dela.

**3.** Erabilera publikoko Parlamentuko areto guztiak ahalik eta maiz aireztatu beharko dira, eta, betiere, egunean 3 aldiz gutxienez.

**4.** Erabaki honek sinatzen den unean hartuko du indarra, eta 2021eko urtarrilaren 18ra arte iraunen du, egun hori barne. Egoera epidemiologikoa- ren arabera Mahaiak xedatzen ahalko du hura luzatzea, aldatzea edo bertan behera uztea.

**5.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Iruñean, 2020ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias